

E U S K E R A

Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



VI
1961
BILBAO

E U S K E R A

Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



VI
1961
BILBAO

Depósito Legal: BI - 1244 - 1958

LUIS MICHELENA-K EUSKALTZAINDIAN SARTZEAN EGIN ZUEN ITZALDIA ETA AITA LUIS VILLASANTE-K EGIN ZION ERANTZUNA

1961 urtarrillaren 22-an Errenteria-ko erriak bertako seme Luis Michelena-ri gorazarre bikain bat egin zion. Bide batez, oraindik egin gabe baitzeukan, Euskaltzaindian sartzean egin oi dan itzaldia egin zuen. Aita Luis Villasante euskalizaiñak erantzun zion. Itzaldi biak ematen ditugu orrialde auetan.

Bezperan "Dollorra" teatro-lana eman zuten "Ereintza" alkartadeko teatro-jokolari erreenteriarraek Victor Idiazabal eta Antonio Coria zuzendari zirala: Lendabizikoak, gaiñera, dollorraren papera biziki ongi egin zuen. Teatrosalan bertan Michelena-ri luma bat eskeiñi zioten erregaloz teatro-jokolariak.

Biaramonean Errenteria-ko Ayuntamentuan ongi etorria egin zitzaien autoridade eta Euskaltzaindikoa. Ayuntamenduaren ordezkariak Michelena jaunaren billa joan ziran bere etxera eta dantzariak inguraturik Ayuntamentura eldu ziran eta meza nagusira joan ziran bertan zeuden guztia kin batera. Meza nagusian Roberto Aguirre parroko jaunak preditu bat egin zuen eliz-gizon bati dagokan gisan eta Michelena asko laudatu zuen bere dei egiazkoa segitzeagatik bitztan zenhait gauza uxten jakin duelako.

Meza ostean Ayuntamentuan Euskaltzaindiaren batzarre berezia egin zan publikoaren aurrean. Maipuruau Ignacio Maria Echaide Euskaltzaindiko buruzagi jauna zegoen eta bere aldamenetan Gipuzkoako gobernadore Jose Maria del Moral jauna eta Gipuzkoako Diputazioko buruzagiaren ordetza Ramón Flores Salazar jauna, Errenteria-ko alkate Luis Echeverria jauna, Aita Ignacio Larrañaga Pingliang-go apezpiku jauna, Errenteria-ko parroko Roberto Aguirre jauna

eta Nazario Oleaga (g. b.) Euskaltzaindiko sekretario jauna. Aipatutakoen aldamenetan Euskaltzaindiko besteak —bai mugaz gorakoak eta bai mugaz beherakoak— eta Errenteria-ko Ayuntamentukoak. Erreenteria-ko alkateak itzaldi labur bat egin zuen, eta gero, Nazario Oleaga jaunak (g. b.) batzarrearen arrazoia eman zuen; Luis Michelena jauna euskaltzain bik sartu zuten gelara eta orrialde auetan argitaratzen dan itzaldia irakurri zuen. Aita Luis Villasante-k, Michelena-n urrengo, erantzuna irakurri zuen. Azkenean Euskaltzaindiko buruzagiak Antonio Arrue jaunari itz batzuk esateko eskatu zion eta ala egin zuen. Michelena-n gizontasuna eta adiskide bezela dituen birtuteak jarri zituen agirian eta gure artean eredu bezela eduki dezagun eskatu zuen. Batzarrea bukatu eta antxe bertan alkate jaunak errainen izenean eskribitzeko makiña eder bat eman zion erre-galoz. Maipurukoak Michelena jaunarekin leiora atera ziran eta erriaren txalo beroak entzun zituzten eta plazan egin ziran dantzak ikusten gelditu ziran. “Ereintza” alkartadeko dantzari erreenteriarrak izan ziran aritu ziranak.

Erreenteria-ko musika-bandak kontzertu bat eman zuen Manso jauna zuzendari zala.

Bazkalordua allegatu zan eta ordu bietan Panier Fleuri jatetxean bazkari bat egin zan berreun persona inguru zeudela. Bazkalostean Alfonso Irigoyen jaunak ia bukatu ezinezko pillo bat irakurri zuen telegramatan eta kartatan. Batzuk ipiñiko ditugu emen. Vicente Asuero y Ruiz de Arcaute, Presidente de la Excma. Diputación de Guipúzcoa: “Reciba en este día de un merecido homenaje al que no puedo asistir por imposibilidad física, la expresión de mi sincera admiración y simpatía.” José María Caballero Arzuaga, Tolosa: “Al tiempo que le recuerdo con el mayor afecto, le envío la más cordial felicitación. Su buen amigo.” Nicolás Ormaechea (g. b.), San Sebastián: “Etorri-zuna begira daugazu On osasu (sic).” Jorge de Oteiza, Irún: “Grande y querido Mitxelena: Como estaré fuera en tu homenaje, te dejo un abrazo tan fuerte que puede estar viniendo desde que comenzaste a construirte hasta el próximo, que ojalá sea el de nuestra conjunta reconstrucción en nuestro querido pueblo. Agur, Luis, que tu ejemplo nos sirva a todos. Zorionak.” Federico Krutwig, Julián Elorza, Mariano Ciriquián-Gaiztarro, Odon de Apraiz, Miguel Angel Astiz, eta beste asko eta asko ez luzatzeagatik aipatzeko eztiranak. Basarri bertsotan itz egiten aritu zan jaiari buruz. Eta bukatzeko Michelena-k eskerrak eman zituen.

EUSKAL - IZTEGIGILLEAK

XVII - XVIII'GARREN MENDEETAN

Jaun·andreak:

Sarrera-itzaldi onetarako gaia autatu nuenean egoki iruditu zitzaidan antziñako euskal-iztegi-gilleez mintzatzea, Euskaltzaindiak eman didan lana sail orretakoa den ezkerro. Gai zabal xamarra artu nuen aurrenik, XVII-XVIII'garren mendeetako iztegi eta iztegitxoen berri emateko asmotan. Geroago, ikusiko duzutenez, gaiaren larriak eta astiaren urriak orobat era-ginik, askozaz ere estuago mugatu bearrean arkitu naiz gaurko berriketa au.

Adiskide baten telegrama artu omen zuen bein batean Urkixo euskaltzaiñak, Donibane'tik bidalia. Auxe zion, gutxi gora-beera: "Aurreko etxea desegiten asi dituk eta iruditu zaidak gogoko izango ukeala etxe-apurtze ori ikustea". Eztituen nonbait begi onez ikusten delako adiskide orrek Urkixo'ren aalegiñak euskal-gauzen jakiteari oifiarri sendoak emateko, euskaldunon zenbait uste kuttun urratu bear bazituen ere orretarako.

Nik, egia esan, eztut oraindik orrelako telegramarik artu. Enuke esango, orratik, iñori bururatu etaionik. Iñolaz ere, gaurkoa ezta egun txarra lore-xorta pozointuren bat neri bidaltzeko, Musde Irigaray'ri ezkondu zen goizean bidali zioten bezala.

Ziñetan mintza nadin, txantxetakoak alde batera utzirik. Luzaroan barratu genituren ondasunak bil-naiean asi giñanean euskaldunok, maiz jaso genituren, usterik onenaz, azal aberatseko ezerezkeriak. Ezta beti erraz egiazko aberastasunak gezurrezkoetatik bereiztea, eta alaz guztiz ere bear-beatzko da bereizkuntza ori. Egia zor diogu euskaldunok geure buruari aurrenik eta besteri gero. Egiaren gaifean landatua izan den jakitea, arri-gaiñean eraiki zuten etxearen antzera, iraukorragoa izango da urteen buruan. Baita probetxuzkoagoa ere guretzat, besterik uste izan arren norbaitek.

Iturburuetara jo bear da iztegi-lanetan, beste edozeiñetan bezala, biderdiko berriketei jaramonik egin gabe. Alfer-lana baita, eta okerrera gaitzakeana, aoz-ao dabiltzan esanak biltzea, nondik sortuak diren eta nork zabalduak galdeitu gabe. Iturri-billatze au, etxe-garbiketa bezala, ezta bear bada egunoroko eginbearra, bai, ordea, noizean bein —eta zenbat ere mai-zago obe— egitekoak, autsak eta pipiak jango ezpagaitu.

Eta iturburu nagusiak, euskal-iztegi-lanetan, bi dira. Amazazpigarren mendean, Silvain Pouvreau erdalduna; emezortzigarrenean, Larramendi an-doaindarra. Bioz mintzatuko natzaizue orain, eta batez ere bigarenaz (1).

Mende orientako iztegi-gilleen artean bada irugarren bat: Pierre d'Urte praille ibiltaria, Inglaterra'n galtzadundu zena. Onek, ordea, atzerrian ego-nik, etzuen iñoren libururik erabilli. Ongi gogoan zeukan Donibane'ko izkera azaldu digu, orren parekorik ezpaitzuen gaifera iñon arkitzen. Eta, batez ere, bere idazlanak eztira oraintsu arte argitara irten; bere iztegia, berriz, oraindik ez (2).

Pouvreau'k ikertu eta iztegian aipatu zituen liburuak Vinson'ek eta batipat Urkixo'k idoro dituzte (3). Oihenart dago aurrenik, Pouvreau'k, beronen *Atsotizac edo Refrauac* aztertzeaz gaifera, eunka egin baitzizkion galderak eta galdera oriek ezpaitziren erantzunik gabe gelditu. Oihenart izan zuen, dirudienez, gidari bizi bakarra, liburu mutuek sorterazten zizkioten zalantzak uxa zitzakean irakasle iztuna. Axular dator gero eta urren Leizarraaga eta Etxeberri Ziburu'koa. Aren *Testamentu Berria* ederki ikuskatua zeukan Pouvreau, apaiz katolikoak eta baita onen *Manual devotio-nezcoa* ere; Etxeberri'ren eskuz egindikako iztegi bat ere azertua zuen, agi danean. H laburpenaren azpian gorderik dagoen iturria, azkenik, Haranburu frantziskotarraren *Devocino eskuarra* omen da, Harizmendi'k berriz argitar emana, Vinson'ek dionez.

Bi puntutan aurreratu zen geiegi Urkixo jauna: *M* eta *B* laburpenek Materre eta Beriayn adierazten ote duten galdeitu zuenean alegia. Argi eta garbiro ikus diteke Oihenart'ek bere neurtitzei iratxi zien iztegitxoan ("Neurtiz hautaco hiz bekanen adigarria" delakoan) bi letra oriek Egoal-deko Zuberoa, Basaburua deritzana, eta Nafarroa beherea ematen dutela

(1) Bibliografiarako, argitara-berria izanik erraz arki ditekealako, neronen *Historia de la literatura vasca* (Madrid, 1960) izendatu bearko dut. An aipatzent dira iturri ugariagoak.

(2) Orrialde pare bat izan ezik. Iztegia latin-euskerda da (*Dictionarium Latino-Cantabricum*) eta eztoa leen iru letrak bainio aurrerago. Urkixo Mintegian daukagun kopia nere adiskide Douglas J. Gifford'i zor diogu.

(3) J. de Urquijo, «Las citas del diccionario de Pouvreau», RIEV 3 (1909), 504-519. J. Vinson, «Le Vocabulaire de Pouvreau», ib., 4 (1910), 139-141.

aditzera (4). Eta iztegitxo orretatik daude artuak *duhulatea, necoxa eta isuna* (5).

Ba ote zuen Pouvreau'k Bidasoa'z onunzko euskeraren berririk? Apurren bat beintzat bai, Oihenart'en bitartez bederen, ezpaitirudi berak emengo izkerarik ez euskal-libururik ezagutu zuenik, naiz gaztelaniaz ederki jakin: *amea*, dionez, giputza da eta *ur ibaia* "gué, riuiere gueable", "ibia" alegia, itzultzen duenean badirudi Aita Moret kondairagille andiaren aoz mintzatzaten dela (6).

Nabarmenagoa da iztegi orren orrialdeetan arki ditekean berri au: "*Jopoa. cerf. oreina*". Gogoan daukazute bear bada aldizkari batean, *Euzko-gogoa-n*, airatu den eztabaida itz onezaz. Solaun jaunak an agertu zuen bezala, oker dago puntu orretan Pouvreau, bat ere gudarik gabe. Ezta ori, ordea, emen axola zaiguna, beste zerbait baizik: oker naiz zuzen, bazuen nonbaitetik Pouvreau'k itz orren entzutea eta etzen erraz, bakana baiño bakanagoa baita itz ori, guk dakigunez liburu batean baizik azaltzen eztena, 1596-ean norbaitek argitara zituen *Refranes y Sentencias* deritzan Bizkai-aldeko errefrau-bilduman (7). Itza ez ezik, bakan xamarra da liburua bera ere: gure egunotan beñipein eztu iñork ale bat besterik ezagutu, Alemania'ko Darmstadt'en zegoena (8).

Irakurri ote zuen Pouvreau'k bilduma ori? Ez, noski. Arritzekoal litzake, bestela, itz ori orren itxuragabeki itzultzea, erderaz ere azalduak baitaude liburu orretan euskal-errefrauak, izenburuak berak adierazten dueenez: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Iru lekutan gutxienez (gutxienez diot aurki ikusiko den arrazoiagatik) ikus zezakean, bada, *jopu-k* eztuela "ciervo" esan nai, "siervo, criado, súbdito" baizik.

(4) 67-68^{gn.} orrialdeetan: «...apres auoir aduerty le Lecteur, que la lettre L. dont ie me sers apres aucun de ces mots, veut dire Labourt, & c'est pour faire entendre que tels mots sont particulierement vsitez au pays de Labourt. L. Oc, veut dire Labourt Occidental, qui est le quartier de la coste de la Mer, comprenant les Bourgs de Saint Jean de Luz & Sibore, & ce qu'il y a de Bourgs, & de villages à trois lieues ou enuiron à la ronde. B. veut dire la Basse Nauarre. S. la Soule. S. M. Soule Meridionale (qui est le quartier de la montagne, appellé vulgairement Bassaburua) & N. la haute-Nauarre».

(5) Azkue'k ere bein oker artu zuen B letra Oihenart'engan (s. v. *kaizu*): «Según Oihenart esta palabra pertenece al B[izkaino]». Bere eskuz zuzendua agertzen da orain: BN.

(6) «Amea, Gipuz. mere. ama». Moret'ek auxe dio (*Investigaciones históricas de las antigüedades del Reino de Navarra*, ilb. I, kap. V, 2 Tolosa'ko edizioan *Anales VIII*, 113^{gn.} orr., 1891-ean): «...que algunas regiones de los vascongados llaman al río, aunque en Navarra suena el vado».

(7) RS laburtuko dugu aurrerantzean.

(8) Eskerrak zor dizkiet J. Solaun eta I. Untzeta jaun adiskideei esku-artearen darabildan fotokopiagatik.

Are geiago. Mirestekoak litzake itz bakan ori eman ondoren orren al-damenean ageri diren itz bakanen, *hápax legómena* direlakoena, aipamenik ere ez egitea. Pentsa dezakegu, beraz, argitasun ori etzuela berez jasoa, Oihenart'engandik artua baizik, beste ainbesteren gisan.

Orrela pentsa dezakegu, baiña beti aieruz, gogobearrez, juzku onez edo gaiztoz, ustea ezpaita jakitea. Auzi onetan, ordea, gutxitan gertatzen dena, egiaren jabe biur gaitezke, balizkako arrazoibide guztiak osotoro bazterturik.

Bein batean, Urkixo euskaltzain zenaren paperen artean ikusmiran nentillela, ustegabeko ondasunak idoro nituen. Berak bere eskuz idatzia zeukan artikulu bat, oar eta erretrato batzuekin, onela izendatua: "De paremiología vasca. Oihenart conoció los *Refranes y Sentencias en Vascuence* de 1596".

Artikulu orrek bere-berez agertu bear du egunen batean, laster Jainkoak nai badu, falta zaizkion osagarri batzuek ipiñi eta paper zaarren erretratoak osoro eta zearo irakurri ondoren. Bidezko da orratik idazlan orren berri Euskaltzaindiaren batzarre ontantxe ematea, onelaxe baitio egilreak azken-aldera:

"Las anteriores cuartillas están escritas desde hace mucho tiempo y las tenía olvidadas. Hoy las publico —etzen asmo ori bete, nik dakidanez, gerrak eragotzi ziolako edo— a petición del Sr. Azkue, quien en la última sesión [de la Academia] me preguntó si creía que Oihenart había conocido los R. y S. de 1596".

Ona, itz bitan emanik, Urkixo jaunak arkitu zuena. Zalgize'ko jaunaren errefrauak ezagutu —Jaurgain'i eskerrak— eta argitara zituenean, esan zuen nondik artuak zituen: Oihenart'en paper-pilla aberats baten jabe ondadez egin zen Paul Labrouche jaunaren kuaderno zaar batean (9). An bertan adierazi zuen bazirela kuaderno orretan, Zalgize'k bildutako atsotitzen ondoren, beste zenbait geiago, Oihenart'en eskuz aldatuak. Besterik ere bada, baiña oraingoaz aski dugu ori jakitearekin.

Atsotitzen artean, sail batek, 38 atsotitz eta esaera batek osatzen dutenak (298-336'garrenak dira), "Biscaye" itza darama izenburutzat: ezpalerama ere, izkerak berak salatuko luke garbiro orien jatorria. Esaera Andrés de Poça'ren liburu ezagunetik (10) artua dago eta emezortzi atsotitz (299-306 eta 327-336'garrenak) RS-koak dira ezpairik gabe. Ona, bada, naierrara garbitua aipatu dugun auzia eta erantzuna egin dugun galdera.

(9) Ikus J. de Urquijo, «Los Refranes Vascos de Sauguis», *RIEV* 2 (1908), 677 ss., batez ere 699'garrena eta ondorengoa.

(10) *De la Antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, (Bilbao, 1587), f. 61 r.º «Garagorri; est adagium hominum factiosorum», dio Oihenart'ek garbi-garbi. Leenbizikoari eztiot begiratu, baiña argitaraldi berriek (Ik. orain A. Rodriguez Herrero'rena, Madrid'en, 1959) eta Urkixo'k berak «estque adagium hominum actiosorum» irakurtzen dute.

Oar bat, aatik, aurrerago ikusiko dugunarekin zer ikusirik aski dueña: atsotitz orien artean ezta RS-ko 419'garrena baiño beeragokorik agertzen; bestela esan, ezagutzen dugun liburuxkaren 49'garren orrialdea baiño leenagokorik eztu Oihenart'ek jaso. Besteak oraindik. RS-ko emezortzi atsotitzen artean beste ogei daude (307-326), bestetan ezin arki ditezkeanak, onako onetatik asita:

307. *Inardun badaguic ez doquer (11) besterenic.
Si continuas en el trabajo no tienes necesidad de otro.*

Izkeraz, RS-koen aide urbillak ez ezik senideak dirudite. Esate baterako, beste askoren artean, *jopu* itza dator 318'garrenean:

Emazte dollorren jaubea jopu.

Atsotitz ezezagun orien jatorria eta iturburua —dena den— ortan utzirik, gatozen orain, garaia da-eta, Oihenart eta Pouvreau'rengandik Larramendi'gana, gure Aita Manuel andiagana. Milla aldiz goratua izan den ezkerro leen zeruraiño eta beste millatan beeratua gero infernuraiño, eztago berriz gora-beeraketan asi bearrik emen (12).

Larramendi'ren iztegia, *Diccionario trilingue del castellano, bascuence y latin* sonatua, 1745'ean Donostia'n Gipuzkoako Probintziaren bizkar inprimatua (egiazko *annus mirabilis* ura gure artean!), luzea da izugarri, eta luzea bezain zabala eta lodia. Leen-bait-leen esan dezadan, beraz, bi liburu trinko orientatik eztitudala azken-aldeko zortzi orrialde eskas baizik aztertuko. Azaltzera noa zergatik.

Iztegi orren alderik txarrenak ontatik datozen batez ere: arrotzentzat, erdaldunentzat egiña izatetik, euskaldunentzat baiño geiago. Zekizkien euskal-itzak —eta ugari eta ederkizkien— ipiñi izan balitu errenka, erdal-itzulpena aldamenean emanik, bestelako tresna geneukan orain eskuetan. Nola atzekoz aurrera egin zuen lana, ordea, erdal-itzak etorri-ala euskerara edo biurtuaz, erdaldunak arritu bearrez noski, ezta erraz jakiten euskal-itz direlako orientan zer den entzuna edo irakurria eta zer den aldatua edo burutik burura asmatua.

Azkeneko zortzi orrialde orientara eldu zenean, ordea, *Suplemento izendatu zuen eraskin edo osagarriira, etzeukan erderaren kezkarik, itzuiliak baitzituen ordurako metopa, oxímaco, sincategoremático eta orien antzeko beste ezin konta ala aldrebekerria. Etzeukan, bada, beste egitekorik,*

(11) *doquer* ori liburuko doc ue[a]r-en lekuaren bide dago. Nere irakurra eztator emen bat Urkixo'renarekin.

(12) Orrezaz mintzatua naiz idazlan batean: «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*, 6 (Universidad de Oviedo, 1959).

itz berrien asmatzeak uzten zizkion txolarte laburretan irakurri —eta bear bada entzun— zituen euskal-itzen zerrenda iztegiari erastea baizik, betegarri gisa. Iñork baiño obeto esango digu egilreak berak nolatan jo zuen bide orretatik:

“Al acabarse la Impression del Diccionario me embia el Padre Agustín de Cardaveraz, de nuestra Compañía, un Quaderno viejo, que le ha avido á las manos, andando en Missiones en Biscaya. Està impresso en quarto, y contiene refranes del Bascuence, traducidos en Castellano demasiadamente à la letra. Faltale el principio, y el fin; ni se sabe su Autor, ni donde se imprimiò. Las paginas están en dos colunas, y en la izquierda viene el Bascuence de letra redonda, à quien corresponde de letra cursiva el Castellano en la izquierda. En ambas Lenguas están apuntadas con numeros iguales, y correspondientes todas las voces, assi las Bascongadas, como las Castellanias, para que nadie pueda equivocarse en su explicacion por la Sintaxis tan diferente de una, y otra Lengua. El dialecto es una mezcla del Guipuzcoano, y Bizcaino, aunque por lo comun domine este ultimo. En la Ortographia tiene sus erratas, pero son conocidas, y no causan confusion. Las paginas legibles son sesenta en treinta hojas. Destas he ido entresacando con bastante prolixidad aquellas voces Bascongadas, que por lo comun no estän en este Diccionario, y las he colocado por su orden en las correspondientes Castellanias. He añadido tambien otras muchas voces, que he oido en las conversaciones, y notado en los Libros, especialmente en Axular, que he buelto à repassar con cuidado”.

Suplemento-aren alde onak Larramendi'k berak aitortu dizkigu: itz-zerrenda orretan ezta asmaturik, entzunak dira batzuek eta irakurriak geienak (13). Iturri nagusiak ere aitorituak daude: Axular eta Bizkai'ko atsotitz bilduma zaarra, au da, aspaldi ikusi zen bezala, arestian aotan genduen 1596'garren urteko *Refranes y Sentencias*.

Egia esan bear bada, eta egia zor dugu, bada irugarren iturri nagusi bat, nekerik gabe ikus ditekeanez: ia berreun urtez leenago Luca'ko italiar batek, Landucci'k, osatu zuen euskal-iztegia (14). Bistan dago gaiñera zergatik daukan ixilpean Larramendi'k Landucci'ren izena: etzitzaiolako alegia egoki iruditzen artzaz agerian baliatzea itzaurrean egin zizkion purrustadak egin ondoren.

(13) Zalantzan gelditzen gera, guztiaz ere, -kuntza atzikizkaren bitartez agertzen den itz-sail mardulegiarekin: «atrevimiento, *azareunza*», «caso, *suceso*, *guertacuntza*», «marca, señal, *zagutcuntza*», «mejoras, *obecuntzac*», «paseo, *ibilcuntza*», «preferencia, *lencuntza*», «suficiencia, *asquicuntza*», «tormento, *toliacuntza*». Iturrietan eztut *azarkuntza* baizik arkitzen (RS 165), Axula'ren midicuntza besterik baita.

(14) *Dictionarium Linguae Cantabricae* (Donostia, 1958), M. Agud'ek eta neronek argitara emana.

Esandakoak eztitu iturriak zearo agortzen. Begiraldi bat aski da, Gorostiaga euskaltzain jaunari eskerrak, Larramendi'k dakaren itz bat RS-koá den ala ez jakiteko (15); beste orrenbeste esan diteke orain Landucí'ren iztegiaz, argitaratua dagoen ezkerro. Axular'i dagokionez, ezkaude orren egoera onean, Aita Villasante'k asi duen lan ederra buka dezan bitartean, bañia liburua gutxi edo geiago ezagutzen dugularik geienok nekez arki genezake *Guero-n* ustegabeko itz miragarririk. Larramendi'ren *Suplemento-an*, berriz, iru liburu orientatik artutako aberastasunak oro baztertu ezkerro ere, itz-mordo ugaria gelditzen zaigu eta eztira noski mordo orretan geientsuak Larramendi'k XVIII'garren mendean entzunak.

Azal dezadan, aurrera baiño leenago, zergatik uste dudan delako itz-zerrenda ori ikuskatu dugun baiño astiroago bear gendukeala ikuskatu. Azkue'k artu zuen, guztiok dakigunez, bere *Diccionario vasco-español-francés* arrigarria argitara orduko, artean Larramendi'k zeukan lekua eta agintea. Eta Azkue'k, nere iritziz, gogorregi artu du bere arbasoa alde batetik eta biguiñegi bestetik. Gogorregi, ate guztiak itxi dizkiolako, aren berririk ere jakin nai eztuelako, naiz eta beti komeni den Larramendi'k zer dion gogoan edukitza: esku-artean dugun *Suplemento-ari*, egia esan, zabaldu dio sarrera apur bat geixeago. Biguiñegi, berriz, Larramendi'ri atea arriz eta burniz itxitzten zizkion bitartean eztizkiolako zirrituak estali eta ori dela medio maiz topa dezakegulako Larramendi eskumikatua Azkue'ren iztegian.

Ez, noski, bere izen-deiturekin, izengoiti ugariekin baiño. Eztezagun, ordea, geure burua engaña. Zer dira, bestela, Azkue'k, oartzaka ala jakinaren gañiean eztakit, aipatzen dituen orrenbeste izen Larramendi otsoaren ardi-larruak baizik? Ona emen zenbait: Londres, Otxandio eta eztakit nongo esku-izkribuak, Añibarro, Cardaberaz, Iztueta, Hervás y Panduro. Lapurdi aldean ere, au da okerrena, nabari da Larramendi'ren eragiña, eta ez Hiribarren'gan bakarrik: Hiribarren'gan adiña ezagun da Harriet'engana. Baita emen ain jatortzat daukagun Haraneder'engana ere, obeto esan, Harriet'ek zuzendu eta argitara zuen *Testament Berria-n*. Berdin bitza nai duenak Larramendi'ren *Suplemento-a* eta Harriet'ek darabilgun liburuari erantsi zion "Hiztegi laburra, laur Ebanyelioetan iracurteen diren cembait hitcen, escualdun guehienentçat, adibidea".

Nolanai ere, Harriet'ek eztu ezin konpon ditekean kalterik egin Larramendi'ren *Suplemento-ari* geiago zabaldu diolako atea, Azkue'ren antzera, aren iztegiari baiño. Alaz guztiz, eraskin orrek ere badu atzerapide gaitz bat, gogoan eduki bear gendukeana beti. Egilreak, berandu ibilli zelako dirudienez, etzuen probak ikusteko eta zuzentzeko egokierarik

(15) Juan Gorostiaga Bilbao, *Vocabulario del Refranero vizcaíno de 1596* (Universidad de Salamanca, 1953).

izan. Eta ortxetik jaio dira zortzi orrialde eskas orientan ugari bezain larri ageri diren utsak.

Enoa emen guztiak banan-banan izendatzera, adigarritzat aleren bat aipatzera baizik. Bestetan kontatu dut (16) nola Landucci'ren "calentura, *vdamina*", *badamin* biurturik Larramendi'ren edo argitaratzaillearen erruz, Azkue'ren iztegiraiño eldu den, Haraneder-Harriet'en bitartez. Ona beste bat, ikaragarria, Azkue'k zorionez baztertua: "Inexcusable, *maemana* (*sic*)". Adizkia baita Larramendi'k izen-ondoko etsi duen itz ori RS--ko 307-garrenean:

"*Maemana* (< *baemana*) daqui emayten. Lo que no se le excusa de dar sabe dar". Zuzenago, bear bada: "Lo que ya dio sabe dar" (17).

Bi eratara itzultzen du Suplemento-ak erderazko *acelga* landare-izena: *zarba* (Bizkai-aldeko erri-itza) eta *bezarra*. Azkue'gan arki ditezke biok. Landucci'ren iztegia zabaldu ezkerro, berriz, au irakurriko da: "açelga yerua, açelguea verarra". Gogoan badaukagu bestetan ere artu zuela Larramendi'k z-tzat Landucci'ren *r* letra, *orast* "orain" *ozasz* irakurri zuenean (s. v. *al presente* eta *presente*) alegia, laster oartuko gera belarra beserrik ezten *berar*-etik irten dela *bezar* ori. Eta ezta emen bukatzen bezarraren kondaira lastimagarria. Beste uts bat zela bide, *betarga* biurtu zen bezarra Iztueta'ren Condaira-n (48'gn. orr.) eta orra non arkitu giñan bi itz berriren jabe, baten ordez.

Ager dezadan laburkiro, gai oni ekin diodan ezkerro, askoren gogoko itz baten jatorria: *oldoztu* "gogoetan ari"-rena. Erroak zorioneko *Suplemento*-an ditu, or irakurtzen baita: "pensar, *oldoztu*". Pozak, ordea, beartsuaren zorionak bezala, eztu luzaroan irauten. Auxe baitio oso-osorik: "Pensar, *oldoztu*. Sin pensar, *oldozqueran*". Eta goraxeago: "Descuido, *oldozquera*". Nabari da, beraz, *oldozquera* "descuido" baldin bada eta *oldozqueran* "sin pensar", eztitekeala iñolaz ere "pensar" izan *oldoztu*-ren zentzua, "no pensar, pensar en otra cosa" baizik. Amets pollit bat deusztatu zaigu, beste askoren antzera. Eta alfer-lana da Londres eta Otxandio'ko esku-izkribuak lekuko deitzea Larramendi'ren itza indartzeko, ez paitira onen oiartzun aula besterik.

Utsak uts, gatozen berriz arira, eraskin orren iturrietara. Esan bezala, Landucci eta RS eta Axular'engandik datozen itzak berezi ondoren ere gelditzten zaigu eraskin orretan pilla mardul bat, leiñu eta etorki izkutukoa oraindik. Auxe esan diteke orratik: sortaldeko eitea eta kutsua dute-

(16) BRSVAP 16 (1960), 228-231.

(17) Ikus BRSVAP 10 (1954), 190.

la batzuek (18) eta besteek berriz Bizkai-aldekoak. Azken oekin jardungo dut emen erosoagoa dirudielako bideak.

Lauren bat esaera zaar aipatzen ditu Larramendi'k leku onetan. Axularengandik artua da bata, itzez-itx: *Fin gaitz egunen duc choria, baldin gazte danic ezpadaguic catia* (178^{gn.} orrialdea). Beste bi, era berean, RS-tik: *Iquedac, ta diqueada* “darasme, y darete (*sic*) he” (233) eta *Saruc bat uste, tresnatzen dauenac beste* (335), itzulpenik gabe (19). Laugarena auxe duzute:

“Quien con niños se acuesta, sucio se levanta: *Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da*”.

Atsotitz au Bizkai'koa denik eztu iñork ukatuko, ezta antziñako bizkaieraz —ez emezortzigarren mendekoaz, alegia— emana denik ere: egia orren lekuko ozen dira bai aditz laguntzaillearen jokabidea (*dina*) bai itzak berak ere (*sei, etxun, ukuzka-, jaigi*) (20). Are geiago. Sinetsirik nengoen, eta besteren batek ere egin dezake oztopo arri orretan, errefrau ori, Bizkai'koa ez ezik, RS-ko zela, izkeragatik adiña idazkeragatik. Sinetsirik nengoen, esan dut, berandu xamar konturatutu nintzaiño, bilduma orretan eztela olakorik arkitzen. Obeto esan, eta ondore oni dioazkio esan ditugunak oro, eztela arkitzen guk ezagutzen dugun RS-en ale bakarrean.

Osoagoren bat ezagutu ote zuen Larramendi'k, Kardaberaz'en bitartez? Baietz esan diteke, baiña baezko ori elitzake uste utsa baizik eta erdi ustela, dakigunez. Eta uste utsa izango litzake gorago aipatu dudan Oihenart'en esku-izkribua ezpalitz agertu jendartera.

Gogora ditzagun berriro gaiaak. Paper zaar orietara aldatu zituen Oihenart'ek Bizkai'ko ogei atsotitz, guretzat berriak, RS-ko emezortziren erdian (zortzi aurretik eta amar atzetik). Uste izateko da, beraz, besterik gabe, leku beretik datoza batzuek eta besteak, izkerak, joskerak, itzek eta grafiak berak elkarren kidetzat salatuko ezpalitzutze ere. Esate baterako, bi

(18) Esaterako «facciones, hazbeguiac», Azkue'k Haraneder-Harriet'engandik artu eta gaiñera (azpegi) Lekeitio'n, Markiña'n eta are Gernika'n ere entzun omen zuena (?). Nik, bear den lekuau billatu eztudalako agian, eztut Guero-n arkitzen. Exeberri'ren *Manual de devotions coa-n*, bai (I, 102), infernuaz ari dela:

Hazbeguiac berceari / hautsten çazco tiraca,
Eta çanac apartatzen / gorputzeetic izpica.

Baiña hazpegi oriek «lohadarrak» («miembros») direla egingo nuke, eta ez «facciones». Pouvreau'k itzulpenik gabe dakar itza.

(19) Itza oker artu zuen Larramendi'k: «Obero, overo caballo, saruc». RS-ko bi adizki ere sartzen ditu: «darete, diada» eta «hierele, pegale iac, iyac». Cf. RS 174 «Yndac micabat orban baga, diada nesquea gajpaga. Dame vna picaza sin mancha, dar te he la moça sin mal» eta 272 «Iac, emac, erac, ta peguioc trancart. Hierele, dale, matale, y no le hagas falsia». Suplemento-ko «Sienes, eraitoquia»-k ere, esan dezadan bidenabar, RS-ko erayten dakar gogora (baifia aipatu oi den *eran eztu iñork ikusi eta izan ere eztut uste izan denik, er(h)o baizik): «erait (*e*)-(*t*)oki bide da etorkiz».

(20) Cf. «Sucio, ucuza» (*sic*) Suplemento-an bertan,

itz dakarzki Larramendi'k *Suplemento-an*, RS-ko askoren artean: "Arca, *bucha*" eta "Ladron, *ubuna*" eta itz oexek irakur ditezke Oihenart'ek bildutako errefrauetan:

308. *Ojal ona buchan saldu doa, eta*

311. *Hubuñenera (leg. -ñerean) boxtuac bulea.*

Are geiago. Oihenart'ek arturikakoek ere, gorago ikusi dugunez, aldamenean zeramaten erdal-itzulpena eta ez frantsesa, Oihenart'ek berak emana, XVI-XVII'garren mendeen mugako gaztelaniazkoa baizik.

Badirudi, beraz, Oihenart eta Larramendi'k ikusi zituzten RS-en aleak, naiz ez osoak izan, osoagoak zirela zenbait aldetatik gure eskuetara den bakarra baiño. Ba ote diteke, ordea, orrelakorik? Gure aleak, azken gerratean erre bide zenak, ez ote du, bada, bururik asiera (ez orratik azala) duelarik?

Bukaera falta zaio, erantzun bear da: erretratoetan baizik ikusi ez-tuenak ere ikus dezake azken-orrialdea, 64'garrena, oññeraiño betea da-goela, bukaeraren arrastorik gabe. Eta ona zer dion zeregin orretan iñor bezain azkarra zen Vinson'ek liburua eskuetan eduki ondoren (21):

"Il faut noter aussi qu'il n'y a pas de titre, et l'aspect de la dernière page ferait croire que le livre n'est pas fini et qu'il se compose des bonnes feuilles d'une publication interrompue en cours d'impression".

Lasai gaudezke gaiñera irudikorren batek asmatutzat eduki ditzakean Larramendi'ren *Suplemento-ko* itzei buruz. Zenbaitek, egia esan, badu alako egitura miragarri bat: "abundoso, *liscoa*", "acerarse, *urachi*", "alguacil, *amamerua*", "atormentar, *toliatu*", "ausencia, *endea*", "Bartolomé (San), *done Matro*", "caer (hacer), *irayo*", "calabozo, *leotza*", "calafatear, *istincatu*" (eta "calafate, *istincaria*"), "carga, *seldorra*" (22), "carta, *lequea*" (Axular'en *buthuna-rekin* batean), "Catedra de San Pedro, su dia, *done berecia*", "cautivar, *gurrandu*", "cena, *coitiguia*" (goitegia ote?), "comer demasiado, *chiflatzea*", "comer con gusto, *ñaflatzea*", "due-lo, *indea*", "escarmentar, *nertu*" (besteren buruan centzatu, galendu-ren ondoan), "espera, *zayoa*", "mal galardón, *trasumena*", "gastarse, *nortu*" (*idortu*?), "gusto, *ebaea*" (RS-ko *elaea* "enara" urrutiegi dago adieraz), "hado, *hebroa*", "inquieto, *guiraquea*" (**jirakea*?), "linage, *narea, bernagea*" (eta ez Azkue'ren *bernaga*), "lindero, *huerguina*", "mona, *crompoa*", "motivo (!), *almutea*", "nervio, *siracha*", "pacienzia, *zafira*", "pañales, *acomendagarriac, seilac*", "partera, *uzularia*", passatiempo, *aliaca*",

(21) *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Complément et supplément* (París, 1898), 529 or.

(22) Azkue'k (zuzenki ote?) «haz o pila de leña para hacer carbón» biurtu du. Aitorzen duen iturriak, ordea, Haraneder-Harriet'ek, Larramendi'ren itzak berresaten ditu: «*cama, sortha, sorta, carga, seldorra*».

“pensativo, *beriertua*” (eta *gogoetatsua*), “pulido, *fisa*”, “ribera, *huarriza*” (Erreenteria’ko erreka-aldeak *Ugarritza* zuen leen izena), “roso, y belloso, *aberescu*”, “sienes, *eraitoquia*”, “silaba, *letraya*”, “silla, *coya*”, “sustancia, fundamento, *denquia*”, “tirano, *amia*”, “vianda, *gondura*” (eta *oquelia*), “zurrar cueros, &c. *izorondu*”. Bitxi eta oi ez bezalako xamarrak dirudite batzuek, egia, baiña ez ote genduke beste orrenbeste esango *daguenil, endorea* eta *zajagauzi-z*, RS-en irakurri ezpagenitu? (23).

Eztugu aazturik eduki bear, gaiñera, badirela oriekin batera euskal-usai obea dariotenak, ots, adi-errazago zaizkigun itz elkartuak edo era-karriak: “callecer, *caillutu, golpagogortu*” (eta “obstinarse, *bisicatu, golpagogortu, estocatu*”), “corbata, *le pocoa*”, “cuenca de los ojos, *betzuloa, beguiarrena*”, “juglar, compañero de juego, *jocaquidea*”, “palma de la mano, *escueda*”, “suponer, *balizcatu*” (24), “vacaciones, *lanarteac*”, “a medio vestir, *jazqui, jazca*” (*ukuzka* “sucio” bezala eratua) (25). Erderatikakoak ere jatorrak dirudite: “cabezón, *fresa*” (26), “rencor, *enquina*” (gaztelaniazko *inquina* iturburu illuneko itzaren lekukorik eztu arkitzen Corominas’ek 1605 arte) (27). Itxuragaitzoko bi itz oek berak, “poema, *globac*” eta “poeta, *globaria*”, nork eztu ikusten *koblak* eta *koblari* ezagunen aldaera besterik eztirela?

Azkenera, nekatuxe bederen, eldu gera eta ez esku-utsik. Izartxo edo galdera-markaren bat eraman bearko dute askok oraindik, itz-zerrenda orretako uts nabarmenak direla bide, ageri berririk sor eztediño, baiña zerbait obe da ezer ez baiño. Ikusi ere dugu gure literatura zaarra, urria izanik, uste baiño ugarixeagoa zela: agertuko aal da nonbait, egun edo biar, orain *Refranes y Sentencias-i* falta zaion zatia!

(23) Ona non daukagun atea zabalik RS-en zein orrialde etzuen ikusi (edo ezin izan zuen irakurri) Larramendi’k. Iru itzok eztakarzki eta etziekean noski igesik egingo, ikusi izan balitu.

(24) **Balizco olea** «la erreria de si fuesse»-ren semea da *balizeatu* ori, esango du bear bada norbaitek. Eztut uste, ezpaitaude *Suplemento-an* RS-en orrialde orretan, irugarrenean, datozen zenbat itz nabarmen: **oñon** «porfia» (bai, ordea, beste orrialde batean dagoen **oñon** «gruñir»), mendela «orillo», **zitel** «pusílanimo», **yeascura-** «desseoso de saber», **cematuoc** «los amenazados»;urrengo orrialdeko *itoguina* «gotera» (RS 16), berriz, bai.

(25) Oar bat merezi du beste onek: «fiel, equilibrio, **obua**», «justo, al justo, **obuan**». Gauza bat adierazten baitigu, Azkue’k alegia oker ipini duela iztegian **obo**, **obu**-ren ordez. Aski genduen, izan ere, berorrek dakarren **oboen** ikustea, entzundako **obuen**-en lekuaren, orrela dela igertzeko: a ori ezpaitzen e biurtuko antziahako o baten ondoren, naiz oraintsu **u-tara** aldatua izan, antziahako u baten atzetik baizik. Itz orrek, bego bidenabar esana, gaztelaniazko **huevo**-ren senidea edo bear bada umea dirudi.

(26) Ikus J. Corominas, *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*, s. V. Iruso. Aragoi eta Frantzia-aldetik gureganatua dirudi. Gaztelatik baiño areago.

(27) Ibid., s. v. *inquina*.

Kontatzea merezi du liburu orren kondairak. Eztakigu nork eratman zuen ale bakar ori Alemania'ko bazter batera: eraldunen batek, noski. Arrotzek gorde zuten beintzat. Gero, beste arrotz batek, van Eys holandesak, arkitu zuen an eta eman argitara. Besteren leiari geiago zor diogu, beraz, geure zabarkeriari baiño.

Bi euskaldun andik, ordea, eta iruk obeto, zuritu gaituzte pixka bat euskaldunok arazo onetan. Oihenart zuberotarra dator leenbizi, esaera zaar oriek bere paperetara aldatu zituena. Ez aal zuen ark bein batean esan bere buruaz:

Nic...

*Gu baitan orano es ensunac,
Arguitaratu'tut ilhumbeti?*

Larramendi dator urren, zorretan baikeundeke arekin ainbeste aldiz aotan artu dudan *Suplemento-a* besterik utzi ezpaligu ere. Eta Urkixo azkenik, euskal-filologiari zimendu sendoak eman zizkiona Euskal-errian. Eztuten ura saiestu bidetik ez urre-kolorezko arri-koskorrek ez perlarri-itxurako kristal-puskek. Etzuen, ordea, beiñere utzi jaso gabe gurasoen eta geuron zabarkeriak sakabanatu duen ondasunik. Larramendi'k zion bezala: "Nere min garratzena da, are eztacuscula onetatic darraizcun cal-teac eta gaitzac eta, dirudienez, ezagutuco ere eztitugula, ditugun on pis-cac galdu ditzagun artean". Eztakigula beintzat orrelakorik berriz gerta.

Milla esker guztioi, besteak beste, goiz onetan opa didazuten arretagatik. Esan dut.

ITZALDIARI ADABAKIAK

Eraskin-bidez mintzatzera beartua arkitzen naiz neroni ere, Larramendi'ren antzera, argitasunen bat edo beste emateko itzaldi-barruan azal-tzeko luze eta gogaikarri izango ziren zenbait punturi buruz.

1. Pouvreau'ren iztegia

Sarri aski aipatua izan da bi kopiatan utzi zigun iztegi ori. Eztago orren balioa geiegi goratzeko beldurrik: lotsarik gabe esan diteke, eraldun batena izanik, geroagoko edozein euskaldunenak baiño uts gutxiago duela. Gutxik baizik eztaki zenbat baliatu diren lan orrezaz Duvoisin, Harriet eta oraïñengo Azkue eta Lhande bere lankideekin.

Erru bat du, izatekotan: izan ditezkean itz erakarriak, ez direnak bakarrik, sartu dituela zenbait aldiz, dirudienez beintzat. Agitz zabaldua dago joera ori, dakigunez, edozein tokitako iztegi-gilleen artean. Yakov Malkiel'en itzakin, izkuntza aldatu gabe, esateko (*Romance Philology*

12 (1959), 374 s.: "Far more numerous and, all told, more insidious are the latent words smuggled in deliberately. In the Romance languages [eta orobat gurean, diot nik] these ordinarily comprise derivatives manufactured with the aid of productive and sharply focused suffixes, in particular of those enjoying unopposed extension, such as *-able* (*-ible*) and *-ador* (*-edor*, *-idor*), on the verbal, and *-ero*, on the nominal side. Such formations are readily understandable, they may at any moment be introduced with impunity; however, the sober truth is that speakers, for some reason or other, do not bother to activate all of these potentialities, and scrupulous lexicographers, unless they adopt a preceptive attitude, ought not to tolerate, still less stimulate, their infiltration."

Maiz gertatu zait, alaz guztiz ere, nik asmatutzat neukan itz erakarrria liburueta arkitzea, bai Axular'engan eta bai Etxeberri Ziburu'koagan. Baditeke, beraz, geiago ere jasoak izatea, ez osatuak.

Itzaldian esan dut Pouvreau'gan arkitzen diren Etxeberri'ren aipamenek *Manual de devotionezcoa*-tik artuak diruditela, geienbat edo zearo. Gidari artu ditut ori erabakitzeko esaerak, ez bakarkako itzak. Ona zenbait, Urkixo'k bildu zituenak geitzeko:

Pouv. "Jaincoa ezta ahantscor berantcor baicen".

Man. dev. I, 91:

*Halacotz Iauna delaric / gaztigura berantcor,
Eztuc ceren enganatu / allegua abantzcor.*

Pouv. "Charitatez gurendua. rempli de charité. e".

Man. dev. I, 133:

Ecen charitatez daude / bibotçac gurenduac.

Pouv. "Aharantza arrotzez minzatzea. parler les langues étrangères".

Man. dev. I, 7:

Aharantça arrotz batez / sujet mintçatcea.

Pouv. "Helantce gaixtoa du".

Man. dev. II, 131:

*Aitciñera ezteçagun / guztiz gal esperantça,
Ceren vrean itçatu / dugun gaichto belantça.*

Pouv. "Emaitça appurra".

Man. dev. II, 22:

*Arren bada errecibi / çäçü ene agurra,
Mezpreçatu gabe, ceren / den emaitça aphurra.*

Pouv. "Erauqui dioço ossasun doblea. e. guerir l'ame & le corps".

Man. dev. II, 101:

*Milla esquer ditutçula / Iainco dohainguillea,
Ceren erauqui dioçun / ossassuna doblea.*

Pouv. "Gorputz gucia herrendua".

Man. dev. I, 98:

*Bisaia color gabea, / bekhoqui chichcaldua,
Eta colpe handiz gorputz / guztia herrendua.*

Esanak aski izan bitez, baiña zerrenda luza dezaket. Eztut orrelako aipamenik arkitu Etxeberri'ren beste obretatik, Noelac eta Eliçara erabil-teceo liburu-tik, arturik.

2. Suplemento-aren utsak

Larri xamar batzuek aipatuak izan dira itzaldian. Ona beste zenbait, uts diren edo direnetakoak, ttikiak eta andiak:

Aguar, *urtsatu* (-tzutu-ren ordez, cf. Ax. 406, Pouv. "Vrčutcea. tremper dans l'eau"). Al presente, *ozazi*; presente, al presente, *ozazi* (Landucci *orast*). Amortecimiento, *iltura* (Land. *iltua*). Andas de muerto, *zarraldoa* (?), RS 420: *Hugazean edaten dana cerraldoetan essuro*). Armas, *isguiliuac* (RS 7: *ysquilliuc*, baiña badirudi etzuela orrialde ori Larramendi'k irakurri). Badil, *barcuina* (Land. *barçyna*). Bocanadas, *ahopaliac* (?), cf. Ax. 137 *ahapaliac*, "discours impertinents" Pouv.-k dionez). Cascara de huevo, *cestola* (Land. *arrauňa cascola* edo *coscola*). Cernicalo, *capelaria* (Land, *çapelaria*). Cesto, *zarampoa* (?), cf. RS 34 *zarau bat* ("vn cesto"). Colmena, *erlatera* (Land, *errlateya*). Cogote, *garraita* (*garbaitean*, Ax. 153). Continuo, *jarriquia* (*jarraiquia*-ren ordez, noski). Costo, *glostoa* (cf. Pouv. "Gostua coust"). Escondrijo, *estalguna* (-gune-ren ordez, cf. Ax. 4: *Ezta harentçat golccoric, çoccoric eta ez estalguneric*). Higa, *buguesa* (Land. *bugesa*, *bugesac emon*). Honor, *andizura* (Emaytea *andizuren arcaytea mingarri*, RS 392). Hurto, *esparcoa* (Ax. 359: *eta Poetecc adulterioa deitcen çuten, epascoa oboin queria*). Manejable, *manaiacorra* (Ax. *manaiu*-). Manteles, *escusauac* (Land. *escuçauauac*). Matrona, *andraura* (RS *andra* (h)uren-). Mella, *croasca*, *orca* (*ozca* da noski). Miseria, *ezceria* (*laceria*?). Muro, *afantua* (*asentua*?). Itz ori (Axular'ena ote?) onela azaltzen du Oihenart'ek: "On sen sert en quelques endroitz de Labourt pour signifier vn trauail de massonnerie. Etche horrec assentu ederra du, la massonerie de cette maison est belle". Begira gaiñera Deen, *Glossaria duo vasco-islandica* I, 380: "Assentuba, husveggur"). Negocio, *ecaira* (Ax. *eccaia*). Ocasión, *aurguina* (-*quina*?). Ojos (abrir, y cerrar dellos), *herguidiqui bat* (*hertsdequi*, Ax. 196). Olla, *dipidia* (*dipiña* da, noski). Papo, *birapora* (RS *birapo*-). Pensamiento, *gogaya* (*gogayera*-ren ordez). Recamara, *inistura* (Land. *ynistrea*). Resuello, *ama-sa* (*arnasa*?). Semejante, *alayoa* (*alacoa*?, cf. Ax. 4: *Halacoac, anima-*

lia adimenduric eztuenac baiño adimendu gutiago du). Siesta, *biaota* (RS *biao-*). Sobrado, abundante, *coicatia* (RS 497 *cocari* “sobradissima”). Sombra, *gueriza* (Ax. *gueriza*). Sucio, *ucuza* (*ucuzca*, dudarik gabe). Tizón, *supita* (*supitac* “refranes” RS 32’garrenean, baiña orrialde ori ez bide zuen ezagutzen Larramendi’k).

Franko inprenta-utsak dira noski. Zenbait aldiz, bakanka ordea, gaizki artu zuen Larramendi’k itzaren zentzua. Geiagotan gaizki irakurri, Landucci’ren iztegian eskuz idatzia batez ere, edo gaizki ebaki itza. Ugari xamar dira azken era onetako utsak. Adibidez, gorago azaldu dugun *andizura* “honor”-en antzera:

Negocio (eta Quehaceres), *ecaira* (*ecairac*); Ax. 202: *eccairic asco emaiten dioena*.

Matrona, *andraura*; RS 210: *Andra vrenac esea lauçatu guino daroa betatu.* Ikus gaiñera 317 eta 527’garrenak.

Pensamiento, *gogaya*; RS 395: *Gaba gogayeren Ama*.

Siesta, *biaota*; RS 366: *Biaotan çeguic lo ynsaur petan*.

Pentsa diteke “Atreverte, *ausariatu*” ere oker dagoela, Axular’ek *ausartu* erabiltzen baitu (ikus 26, 408’garren orrialdeak eta nonnai), baiña Etxeberri’gan arkitu dut (*Eliçara* 339 s.):

Hargatic ausartatcen naiz / Çure gana herstera.

Zalantzako galdera bat azkenik. Eztut zaurretan iñon arkitzen, *Suplemento* onetan izan ezik, “mensage, *guezná*” (eta “mensagero, *gueznaya*”). Beste itz ezagun bat badagoela gogoraturik “mandatu” esateko, *mezu alegia*, biak onelatsu berdintzea bururatu zait:

*gu e z n a
m e z u a.*

M batetik *gu* jaiotza ezta erraz, eziñezko ere ez, ordea. Geldi bedi oraingoz orretan.

3. RS-en izkera nongoa ote?

Eztabaidataraiño eldu gabe, iritzi bereziak agertu izan dira RS-ko esaeren jaioterriari dagokala. Ezta nora ezekoa, jakin, guztiak leku berean sortuak izatea. Nolanaí ere, zenbaiten ustez, badute batzuek Orozko-aldeko usaia eta neroni ere bat natorkie.

Orain argiago ageri da ori, gorago aipatu dudanez Larramendi’k daskarren bilduma orretako atsotitz bati eskerrak. Onela dio, berriz ere:

“Quien con niños se acuesta, sucio se levanta:
Seyacaz echun dina, ucuzcari jaigui da”.

Onela bear luke, ene ustez:

Seyacaz echun dina, ucuzca jaigui doa.

Emen, ordea, bestetara noa. Gauza ezaguna da, Zuberoa'n eta Erronkari'n, gaiñerako euskaldunok *i* ... *u* egiten duguna *u* ... *u* edo *ü* ... *ü* biurtu dutela. Esate baterako "ikuzi" *ükhiizi* da Zuberoa'n (Erronkari'n, ordea, *ekuzi*). Itz orretan gaiñera orixe berbera gertatzen omen da Orozko'n, Azkue'k dionez: *ukuzi* esaten dutela.

Bilbao n, berriz, *ikuz-* zen XVII-garren mendean, Micoleta'k erakussten digunez: "Suzio, *Ycuscquea*". Eta aurrerago: "aqui viene ya la lauandera, Ara emen non datorre *ycuslea*" eta "Una suciedad en la cama, *Ycuscatasumbat oean*".

Arritzeko bestea da, Bizkai'ko iñongo partetan, naiz Orozko'n naiz bestetan, *uhuñ* esatea, *o(h)oñ*-en ordez, Zuberoa'ko antzera.

Luis Michelena.

AITA LUIS VILLASANTE-K EGINDAKO ERANTZUNA

Jaun-andreak:

Mitxelena Jaunak ofizialki gaur egiten digu Euskaltzaindian sartzea, baiña denak dakite aspaldidanik dagoela gure artean sartua, eta guztiak dakite, gaiñera, gure lagunarte onen barruan egiten ari den lan merezi-garria. Orregatik, gaurko pesta ospetsu au, bere sarrera baiño geiago, Euskaltzaindiak berak eta bere jaioterriak egiten dion omenaldi eta gorazarrea da, noski.

Euskaltzale ta euskalari, euskal idazle giartsu, iztegigille, linguista, gure izkuntzaren ta bere literaturaren kondairagille, kritiko azkar, dena dugu oso-osoan gure Mitxelena.

"Egan" euskal aldizkaria irakurtzen dugunok badakigu bere luma bizkor, urduri eta sarkorraren berri. Euskal orri parrasta dator zenbakia bakoitzean, bere izen edo izengoitarekin, naiz dela interviuren bat, edo zinema-gaiak, naiz liburuen kritika, ta abar. "Boletín de Amigos del País" deritzaion aldizkarian, berriz, etengabe ari da euskal saillari nundik edo andik urbiltzen zaion edozein gauza ikutzen. Izkuntzaren testu zaa-

rrak azaldu, interpretatu, agertzen diren liburuuen iritzia eta berriak eman, besteen lanak agertarazi... Lan benetan isilla, astuna ta neketsua euskal kulturaren alde urte auetan Mitxelena jauna apalki eta abarrotsik gabe egiten ari dena. Espanturik ezpaitu berak maite. Atsedenik gabe lanean jardun, euskal kulturari benetazko oiñarri sendoak jartzen: ori izan da beti bere kezka.

Eta Euskaltzaindiaren lanak argitaratzen dituen "Euskera" agerkaria eskuetan artzen baduzue, an ere berdin ikusiko duzue Mitxelena-ren ize-na, naiz euskal itz baten argitasunak emanaz edo iztegirako gaiak metatuz, ta abar. Etxeko ditugun aldizkari auezaz kanpo, naiz Espaiñako naiz atzerriko errebista jakintsu askotan ere agiri da bere izena, beti ospez eta itzalez inguraturik. Ona emen errebista oietako batzuk: Madrilgo "Emerita", Zaragoza-ko "Pirineos", Oviedo-ko "Archivum", Tolosako "Via Domitia", Pariseko "Bulletin de la Société de Linguistique", Nueva York-eko "Word". Baita lagunarte jakintsu askok ere bere lankide bezala izendatua daukate. Adibidez Pariseko "Société de linguistique" eta Espaiñako "Consejo Superior de Investigaciones Científicas"; eta azken urte auetan bere gain dago Salamanca-ko euskal kursoa ere.

Díaz Plaja jaunak "Historia General de las Literaturas Hispánicas" delako Sorta argitaratu zuenean, gure Mitxelena-ri agindu zion euskerari zegokion atala. Bere liburuak ere or daude: euskal deiturei buruz bata, eta Euskal Literaturaren Kondaira, bestea. Baita Landuchio-ren iztegia ere heronek eta Agud-ek agertarazi zigute lenbiziko aldiz. Eta aurten ematera dijoakigu, gaiñera, Filologiako titulua eskuratzeko egin duen Doktor-lana: "Fonética Histórica Vasca".

Oiñarrien eta iturrien kezka esango nuke nik daukala Mitxelena jaunak bere erraietan sendo josia. Argi ta garbi ikusi baitu oien bearrean gerala, euskal saillean zerbait iraunkorrik egin nai badugu. Euskaldunak maiz izan gera euskaltzale bero, bai, baiña bear bezalako jakintzarekin eztugu beti jantzi izan gure zaletasun ori, eta ezzakin ortatik euskerari berari etorri zaizkion galerak eta naasteak eztira makalak izan. Batari sartzen zaio buruan itzen etimologiak eta sustraiak billatzea, eta ortarako iñungo jakiterik bear ezpalitz bezala asiko zaizu etimologiok asmatzen; beste bat, gure izkuntza garbitu egin bear dugula ta, jarriko zaizu itz berriak asmatzen eta lendik zeudenak etxetik botatzen; beste bat, euskal gramatika bera ere logikaren izenean aldatzen, eta zenbat olako! Euskal zaletasuna bazuten, bai, jaun oiek, baiña ala ere zenbat naaste eztigute ekarri! Eta dena zergatik? Oiñarrien faltaz. Bai euskera berpiztuko bada eta bai euskerari buruzko jakintza zerbait izatera iritxiko bada ere, biak oiñarri sendoen bearrean dira: Mitxelena jaunak ori ondo ikusi du eta artara jarri da. Lingüistika-kontuan jakintza zifiezko batekin bere burua jantzi bear zuela konturatuzan, eta Madrilgo Universidadean atera du titulua, guziok dakigun ohorearekin. Oiñarrien alde ontatik zer-ikusi eta

antz aundia ikusten diot nik Mitxelena jaunari Euskaltzaindiaren sortzaile izan zan beste jaun prestu eta ospetsu batekin: Urkijo jaunarekin, alegia. Ark ere ikusi zuen ondo euskal zaletasuna bear bezalako bidetik zuzentzeko, indarra, amodioa ta borondate on xoillak etziela aski. Jakintza ere bear zela, eta euskaldunak, jakintza orren faltaz, parregarri gelditzen giñela, Larramendi-k eta Astarloa-k jarritako okerreko bideei jarraituaz. Eta orregatik, benetazko oñiarri oiek jarri nairik, sortu zuen bere. "Revista Internacional de los Estudios Vascos", euskal kulturak ainbeste zordion aldizkari sonatu ura.

Izan ere, amodioaz gaiñera jakintza, biotzarekin batean burua, indarraren ondoan argia ere bearreko ditugula, ori ikasi bearra genuen euskaldunek. Argatik-edo, Ibar jaunak, bere "Genio y Lengua"-ren atarian Sertillanges-en itz auek jarri zituen: "La victoire est une proie; mais c'est la proie du regard, plus encore que celle de la force". Garaipena, arrapatu bear den eizea bezala da, baiña eize ori arrapatzeko indarrak baiño geiago balio du bistak. Beste itzez, bioztun bezin burutsu bear da izan ortarako.

Naibague andijei darraicueè andijaguac, ta illten jaco beguijeen aurrian bere seme Jesus. Ò Ceruco ainguera, [un borrón ha hecho ilegible este espacio] triste onen testigu izan ciñanac! Celan gueratu zan ordu atan Siongo doncellaric ederrenea? Esan eguidazu icusi ezpacenduban gustija ori ta colorgatu, ta eriotziaren imagiña vici bat eguinic? Cembat bidar enzun ceuntzan esaten Jacobi bere seme Joseren illbarrijan baño viotz-gotic. Negarrez juango nintzainde ni Ynfernura aguño neure semiagaz egotearren. Baña ez ama maitia ez, eriotzia gozueguija da zuretzat, gueitu biar dabee oraindic zure doloriac neurri baga. Urragotic icusi biar dituzu ceure semiaren zaurijac, ta ceure escubac ucutu biar deutseè bere eriotziaren oztasunari. Beguira *Cac.* celan eraatziric curutzetic, imini eutseen altzuan bere discipulubac, Jesus illa. Ò icusgariric samurreena! Amaric biguneena semeric maiteena ill otzituric, gustia zauritu, ezaindu, ta ci-quinduric bere besuetan eucala. Au dà esango eban nire seme zana? Onerata biurtu da gauza gustijeen eguillia? Celan dacust neure viotzeco atsegui bacarra? Aita eternuac emon eutsan ceruco coroeric ederrenea noc biurtu dau arantza gogorretan? Justicijaco, ta misericordijazco escu indartsubac, noc zulatu, ta adorebagatu ditu? Noc verva baten, burutic beera zauri oso bat eguiñic, cirquinic eguin ecin dabela ichi dau ceru, ta luur gustijeen aguintarija? Ò begui, ceruco izarrac baño milla bidar argijaguac, cembat bidar beguiracune amorezcuaz gozatu oi ceunstan neure viotza, zacuztaz oraiñ illunduric. Ezpan eztitsubac, celan gomunteetan nasan emon deustazuzan atseguiñacaz, ta orain daucazun oztasunagaz. Ò matrilla [sic] eder aimbeste atseguiñegaz sarri laztandu ditudanac, ta orain odol, auts, icerdi, ta loiquerijac ezaindubac, cein desbardiña dan oraiñ azqueneengo agur triste onetan emotera nuatsun laztana, leen emon oi neutsuzanetatic. Baña ecin orregaitic ichi neizu emon baga neure amodijuaren señale au, jasoco badabee bere neure ezpanac zure arpeguico ciquintasunaren zati bat.

Ordubar Discipulubac artu eutseen Jesus, bere besueen artian ondo eztuturic eucana, ta ama dolorezco au anda buruko zala juan ciran sepultura edo obi lecura. Emen ciran Christinaubac laztan barrijac, agurric tristeenac, cizpururic estubeenac, ta penaric gogorreenac. Baña batez bere enzun ebanian araco arlosiaren otsa, ceñegaz eztalduba izan zan *J. Cen.* gorputz illa, artu eban bere viotzac azqueneengo ezpatiaren epairic mingochena. Artietan, edola bere, illic, ta zaurituric bazan bere icuste eban bere semia, baña ordubar gueratu zan atseguiñen izpi baga, ta dolorez gustija inguratuta. Ò Espiritu consoladore, amodijozco su vicija, erdu zu, edola bere, gozatutera cerbait ceure esposa maitia. Ez da zugana eldut-en danic iños atseguiñen baga gueratu, ez alda bacarra izango, bacarric

pecatarija izan ez dan emacume gustieen artian maiteen dozuna. Baña àà Cac. ezcuteetan jaco, esateraco, doncella eder oni, bere ceruco esposo bacarra, gueitu dedin alarguntasunic tristeara doloriaren doloriari. Nora biurtuko nas orain ni, esango eban ama triste onec. Nun atseen daique nire viotz eztu, ta larritasunez betiac. Beguiratuten badot Aita Cerucuagana dacust gustija asserratuba. Neure semia galdu dot iñoc ez laco moduban. Esposoric maiteenac ezcutau dau niganic bere arpeguija. Munduban ez da niretzat burla, ta desprecijua baño beste gauzaric. Beguirira, beguirea daguan edo ez nire doloreei bardinduteco penaric. (*)

Cac. adorau daiguzan Jangoicuaren misterijo andi, edo ezcutapen gurez gañeticuac: baña orregaitic edegui daiguzan gueure adiñac aztertuteco cerbait, guizonaren argaltasunari, ta berac emon deusczan arguitasunei jaoqueen moduban. Siongo alabaric ederreanac gura eban izan pecataria gustieen ama, ta Aita eternuac emon eutsan izate au igaro cituban doloreen ordez. Galdu biar eban modureen baten, bere seme Jesus, izateco mundu gustico guizoneen ama. Orra cegaitic Jesusec esquini eutsan Juan bere ordez semetzat, bada Juanen icenian sartutem cituban, eleisaco mai-subeen erechijan, munduco guizon gustijac. Artuten dau ama maite onec Juan bere semetzat Jesusen ordez, eta beragan pecataria gustijoc, ta gueldituten da seme barrijeen irudin [sic] bat eguinic curutziaren oñian. Cerubac pecatariei eutseen asserria jausten dà bere [con una indicación dice sobre la palabra *bere*: *ama seme oneen*] gañian, ta gueldituten gara [gara está escrita sobre otra palabra] gustijoc berari jaocazan atseguiñeen herederu edo jaubeguei. Justicia niretzat diño, ta misericordija, erruquia, ta biguntasuna nire semeentzat.

Ai Cac. eldu ete leite gueijagora ama baten amodijua bere semiac ganaco? Nos azartu zaatian [sic] guizona aimbeste mesede escatuten ceruco Erreguiñari? Ceruco Ainguerubac, cein pocic artuco cenduban zubec ceuben amatzat: baña ez, guizon pecatarijarentzat dauca amodijuaren señale miragarri au. Badà ò neure enzac. nun billatu daiquegu atseguiñic beronegan aurquituco ez dogunick? Cer erabilli lei guizona bere esturasunetan munduco aringarrijeen billa, izanic bere ama gozotasun, ta esperantza gueuria? Nun atseen daique obato gure viotz tristiac, amaric maiteenaren [mait... está escrito sobre *bigun...*] beso bigunetan baño? Batez bere zubec pecaturic lotsagarrijeen ondoren zabiltzanac, ostikopeturic ama maite onen atseguiñac, zarraturic ceuben belaarrijac bere dei ta erregu amarosuei, cer eguiten dozu aimbat lasterrean beragana biurtu baga? Cec atzeratuten zaitu orretaraco? Eguin dituzu eriotzaren batsuc, jausi zara milla pecatu ciquiñetan, galdu dozu sarri matrimo. leijaltasuna,

ibilli zara lapurreta andijetan. Jarraitu deutseezu ichu ichuric munduko arrotasunei, desprecijau dituzu *confen.* esanac, isildu dituzu pecatubac & & &.

Baña gustijac equizala, gura izan guenduzan bere semetzat artu, ta deituten deuscu gaur curutziaren oiñetic dolorez beteric. Cer achaquija euqui zinai, ezpada esatia ez dozula gura orain, ta pecatari gogortubac esango dabena, guero eguingo dozula? Beraz pecatari madaricatuba ez dozu gura orain, enzun ceure ama. Beraz ceruco gracija euqui gura dozu ceure zain nai dozun arte gustijan? Ô zori gaistoco guizona, cein deungaro aituten dozun cetan daguan ceruco erreguiñaren semetasuna! Ynfernuban dagozan guizon gustijac euqueen semetasun au, ta beragaitic dauquee pena gueijago. Ez eizu sinistu jarri zala gure amatzat, euqui guiñaijan lecu ta ocasinoe gueijago pecaturaco, luzaruago egon guiñaindezan pecatuban sarturic, ezpada euqui guiñaijan beragan pozgarrija, aimbat lasterrean baquetuteco Jangoicuagaz, ta erraztuteco onetaraco bidiac.

Ea bada *Cac.* ez eguizu luzatu eguneric egunera emon baga ceuben arimei, munduban izan daiqueen atseguiñic andijeen au. Esan eguizu David R. Santac. *dixi nunc caepi.* Orainch gura dot eguijjaz eguijjaz biurtu neure Jangoicuagana. Biurtu gura ditut aleguiñez inoren ondasun &. urratu adisquidetasun &. esan araco pecatu, isillic euqui dodana &. Etzungo nas pocic *confe.* erruquior baten oiñetan, ascaturic osaro neure gueistaquerija gustijac, bere esanac eguiteco asmo osuagaz. Zucenduco ditut cerrura neure viotzeco cizpurubac ama dolorezcuañ negarracaz bat eguiñic, biar ditudan gracija, ta laguntasunac jaristeco esperantza osuagaz; ta beti aguintauco dabeè onic aurrera nire arimaan Ama dolorezco, ta bere seme jesusec [la *c* final está escrita sobre *n*], emen lurrian vici nasan artian, gracijaren bidez, bat eguin gaitian guero ceruco amai bagaco glo-rijeetan; gustioi opa deutsudan moduban Aitiaren &. Amen.

Otro exhorto.

Ea bada *Cac.* nai dozu eguijjaz eguijjaz izan ama dolorezco onen seme ta alabaac? nai dozu izan bere dolore, ta peneen herederu, ta jaube? Ez bada gueijago gogortu viotzat [sic] gaur bere bitaartez icharo daiquezun ceruco gracijari. Ez ama maitia ez. Goitu ditu gure viotzac zure amodijuac. Ez dago, izan gura ez dabenic, zure seme edo alaba. Munduko gauza gustijac ichico ditugu, biar bada zugaitic. Aguindu eguizu nai dozuna, ta billatuko dituzu gugan servitzari lejalac. Baña jarri zaquiguz arren bitaartecotzat,

iaetsi daigun zure seme Jesuseganic, gueure orainguiñoco pecatubeen paracinoia, ta aurreruntian [sic] bere amodijuan irauteco gracia, izan gaitian zugaz batera Aita Cerucuarenac eternidade gustijan Amen.

(*) Cc. Ara emen gueure ama maitiaren amodijuaren irudin [sic] labur bat. Bere dolore gustieen artian ez dauca beste atseguiñic, gu bere seme, ta alabatzat artutia baño. Ucatuco deutsa iñoc viotza aimbeste amodijori? Galdu dau gugaitic bere erraijetaco seme laztana. Guelditu da barric, gente gustieen erreguiña. Negarrez dirauscu artu daigula gueure amatzat. Ó ceruco Ainguero ederrac! Noraaguiño igongo ez leuque zuben atseguiñac, enzungo baceuntzaz ceuben Erreguiñari, verva aiñ gozatsu, ta samurra? Cer dà bada Cc. eranzungo deutsadana, ceuben ama' izan gura daben emacume triste oni? Esango deutsat baietz. Baña aa! Biar bada ascoc guraco ez dau, ama aiñ garbijaren, seme alabei, jaoqueen vici modubari ez jarraitute arren. Esango deutsat ecetz. Ó dolore gustieen doloria! Jususen eriotzaco ezpatia baño oraiñdic mingochagua bere viotzarentzat.

Sartu zaite bada Cc. ceuben barruban: Ytandu eguijuzubee viotz orrei, cer diñueen: ta erabagui eguzu ceubec cer erantzun. Baña aa! Cembat beguitanduten jatazan oraiñ dabilzala ez da baida baten. Ezagututene dabee, Ynfernubac eurac icaratuteco gaucia dala, ceruco erreguiña bera, esquintzia guizonaren amatzat, ta, Jangoicuaren semiac pocic artu ebana, eurac gura ez izatia. Baña beste aldetic, eureen barruban oraiñ artian adorau ditubeen mundubaren ta araguijaren Ydolo falsuac, diadar eguiñgo deutsee beste Agustin bati leguez. *Dimitis ne nos?* Cer? oraiñguño aiñ ondo alcar artu, aimbeste maitetu, ta aiñ laster ichico gaituzu betico? Nic esango deutsa ascori lujurijac, sarri atseguiñiac emon, ta gozatu zaitut, ta orain ichico nozu aiñ errazto? *Dimitis ne nos?* Nic esango dau banidadiac, ecarri deutsudaz estimacione andijac, batu adisquide asco, ta ori dà emon gura deustazun esquerria. *Dimitis &.* Nic, esango deutsa ascori mundubac, orain artian ondo artu zaitut, aurreruntzian emongo deutsudaz oraindic ondasun gueijago, izango nas gustijau ceure ceuria, ez naguizu bada arren ichi.

Arima tristè, ta errucarri guerra vici onetan zabiltzanac. Ceñentzat gueldituco ete dà gaur zuben victoria? Erabaguiten badozu izatia oraindic mundubarenac. Ó seme galdubeen ama triste ta bacarra, celan gueldituten zara? Ai, ta noc icusi al leiquian zure viotzeco doloria! Ó Espiritu consoladore viotz gustieen jaubia! Esan lei ucatu deutsazuzala gaur beste atseguiñ gustijac ceure espresa maite oni. Ycusi dituzu beragan leijaltasunaren señaleric ciurrenac. Ez eguijuzu bada ucatu azquenic, bere bacartade tristetic, negarreko cizpurubacaz escatutem deutsun mesede' bacar

au. Betoz diño pecatarijac neure seme ta alabatzat. Ea bada pecatari gueisua, asco dà igues eguiteric oraiñ artian amaric maiteenari. Yzan arren zuben pecatubac areiac baño ugarijago, ez dozu iños oraiñ baño prestago billatuco ceruco gracia. Amaren amodijuac eztaldlico ditu [está tachada la palabra *laster*] zuben esquergabetasunac. Erabagui bada, erabagui, laster izatia, aurreruntzian eguijiaz beraic; emon eguijozu escatuten deutsun atseguiñ bacar au, bere bitaartesunagaz [sic] alcanzau daizuzan, iños amaituco ez diran cerucuac Amen.

Ea bada pecatari tristia. Erabagui arren gaurtic izatia benetan ama maite onen seme edo alabia. Beguira cein laster igaroten dan munduko gloria argala, ta cer icharoten jatzun bere ondoren. Ez bada galdu, gaur, ama maite onen bitaartez esquintzen jatsun misericordija!

Oh ama maitia! Eracutsi eguiyu arren gaur gugaz zure amatasuna. Egongo da emen, biar bada, pecatari triste lotsaz confesinoiac eguiten ditubaneen bat. Amistade, lagun chaar, ta ocasioian sarturco [sic] & Bandidade & Jaetsi eguijeezu gracia urratuteco lazu triste oneec, confesinoe on bat eguiteco, ta sendaro irauteco, erbeste triste onen ondoren cantau daijezan eternidadian zure misericordijeen alabantzaac Amen.

Es copia literal.

JON JOSEBA PUJANA.

2

[En la portada dice:] Soledad o Dolores de M.^a Santísima año 1843.

[Sobre el latín que viene a continuación hay una cruz pequeña].

*Ego plorans et oculus meus deducens lacrimas quia longe factus est a me consolator facti sunt Filii mei perdit *et p*rae*evaluit inimicus Jer. cap. II v. 16.**

¡Ce icuscarri tristia NA gaur A.edo G.guere beguien aurrian dacus-cuna Jangoico bateren Ama guizon da Angueruen atseguien poscarri da alegría neque pena da estutasunes beteta! tormentus beteta curuciaren oñian bere viotzac ganec eguingura deutsela! ¿Noc esango leuque Not [sic] neque ta atzacabes betata [sic] dagozanen consuelugarrija bera daguela consuelo esque? ¿Noc esango leuque mundu guztia contentus betete ebana

inguratuco ebala viotseco iluntasun da tristeciac cec poztu eceuquelaco? Ecin esan bagaric egon niteque gogua ilten jatala moteldu miña da icaraz neure zanac icusijagas Jangoicuaren Ama baten egoquera errcarrijagas [sic] au da icusijagas pozcarriren apur bat ezdaucala ez cerutic ez lurretic. Ycara onegas nundic asi enequijala nenguala ambeste penen artian etorri jatazan gogora Jeremias Profeta santuac Ama eguijas esan cituan verba onec *Ego plorans et oculus meus deducens lacrimas.* Nago begui bijetatic negarra daridela urrun da niganic consolagarija galdu dira nire semiac da contrarijuac urten dau beriagaz *facti sunt fili mei perdit *et p*raevaluit inimicus.** Pensau baño ezdaucazu NA cec animau neunquian icusiric curuce orretan cerutic jatsi zan Jangoicuaren semia. Belena muxica gozuaquin etorri jacazan Angueruac ez dira orain aguertuten Calvarijoco mendira leen baquia predicau ebenac dagoz orain negarres. Cec gogortuten daben guejago [sic] neure viotza da icustia [está repetida la palabra *icustia*] Jesus crucificaduaren Ama curuciaren ofián negarra darijola inundic pocic aurquitu ecin dabelaco da motel motelic dinuala *longe factus est ame Consolator!* Ychi eguidazu bada arren cerura beguijac jaso da galdeñu dajodian Aita Eternuari: ¡Ayta adoragarrija! ¿Etzara Ceu Daniel Leoien lezan consolau cenduana Profeta bat bialduta? ¿Etzara Ceu Elias Jose ta beste ambeste justo poztu dozucena? Baña cer dinot? Etzara Ceu ceure Seme J.C.Getsemanico hortuco estutasun da tristezan Angueru battegaz consolau cenduana? Bada celan orain icusiric Ceure escuetatic urten daben Criaturaric santa miragarrinen [sic] negarrac bialdutenez deutzasu consolidadore bat? Criatura ori da Ceure seme Jesus consolau ta berotu ebana bere beso artian jayozaneco bera Herodesen atzamarretatic gorde ebana erri erbestian ezagutu da amodijoric andijenagaz aciebana ezdeutso inos emon sentimenturic ez atzacaberik! ¡Celan bada erruquituen etzara beragaz dinuanian *longe factus est ame consolator!* ¡Igaz eguidau niganic consolagarijac!*

Emenche bai itandu guinaiquiola Ama tristiorri Jeremias Profeta Santuagas *Cui comparabo te vel cui asimilabo te Filia Jerusalem!* Siongo alabia nor comparau leique Ceure estutasun orretan? ¿Comparau neique Jacob Patriarquiagaz bere semia pistija gogorrac jaebala entsutian bere soneco guztiac urratu da cilicios beteric ambeste negar eguin ebanian? ¿Comparau leique Ama laztana lurrian Eli sacerdotiagaz bere enemiguen escuetan guelditu zala Testamento Arquia entzun ebanian? *Cui comparabo te!* ¿Comparau leique Davidegaz bere seme Absolonem eriotsia entsutian [hay una palabra tachada] bere magestade da anditasun guztiac negarres da diadarres esaten ebanian amaitu ciriala bere victoria guztiac? Ez NA Ez Jacob bacarric icusi cituan bere seme Joseren jancijac zatituta

¿baña Marijac dacuz bere errayetaco semia zatitu apurtu da odolduta curuce baten.bacarric sentietan eban Eli Sacerdotiac JC irudija eucan arquia preso ta lotuta icustia.Marijac barres sentietan ditu Jesucristo berberaren neque pena pasinoe da eriotsia.Davidec bacarric negar eguiten dau seme guesto oquer da lotsa bagaco baten eriotsia. ¿Baña Marijac munduan inos icusidan semeric manso da humildiena gaitic.

Guraso bigun da amodijos betiac gogora ecarrizus instate [sic] onetan ceuen semien eriotsa ta desgracijetan sentido dozusan pena guztiac da beguiratu egizku igual badira Ama triste onec bere Semien curucien oñian dauquezanaquin. Ycosten da Ama bat Salomonen aurrian bere errayetaco Semia zati bijan icusteco bidian. Negar eguin da tristezas beteten da Sunamitis ederra bere bularren contra bere bularren contra [se repite *bere bularren contra*] bere semia iltēm [sic] icusijagas. Ecin guejago cispuru ta negarracas eracusten dau Ana Tobiasen [no se entiende bien el final de la palabra, pues hay algo tachado. Despues hay una palabra tachada] Ama bere semien faltiac da ecin inundic consueloric artun [sic] dau etsera eterri artian. Baña pena neque da estutasun onec ecer ezdira Marijac curucien oñian igaro cituanac guri adierasoten emoteco.Salomonec juzgau eban andriac bere aldera ensuneban sentenciā bana Marijac entsuten dau bere semien contra sentenciā gogor da cruela.Sunamitis ederrac beste consueloric euqui ez arren logretan dau bere beso artian bere semia iltēm [sic] icustia baña Marijac dacuz lapur biren erdian curuceco urcamendi lotsagarrijan bere viotseco prenda maitia.Anac bacarric negar eguiten deutso campoti dan Semiari Marija curucian ilda dacuzan Seme maite da onenari. ¿Cui comparabo te? Bacarric topau leique comparacinoe labur bat Marijaren dolore edo soledadia eracusteco araco ainchinaco demporan munduen castiguraco Jangoicuac bialduxituan ojol [sic] icarragarietan [sic] bada cerren erreca ta elementu guztiac guizona itoteco batu cirian leguez alainche batucirian Marijegana neque gach pena ta sentimentu guztiac estura ta pena andijetan ipinteco. Bai NA andija ta neurri baguia da Marijaren pena ta sentimentua bere semia guere amodijua gaitic vilosic curuce orrettan ilda icustia zauritu ta zatituta baña sentigarrijagua da berezat icustia neque pena eriotza itzala gugaitic igaro arren galduco dala guizona da utengo dabela beriagaz enemiguac.Auxē da bere pena ta dolorien artian bere viotza zatitu ta erdibituren dabena da bere doloriac aumentetan dituana; da ara emen neure sermoia.

Alan bada neure cer esan guztia izango da gaur ceuen beguijen aurrian ipintia celan aurquituten dan Jesusen Ama maitia curucien oñian consuelo apur bat bagaric claru daquijelaco galduco jacobala bere semezat emon jacazan ambeste Adanan seme ta alaba ta diabruac egungo dituala caltiac

facti sunt fili mei perditi. Pena ta sentimentu onen golpiac claru ezagutu cituan Simeon Santuac Jangoicuaren seme bacarra Templuan presentau ebanian Virgina Santisimiak verba oriec esan eutzasanian *tuam ipsius animam pertransibit gladius* sartu gaitian bada gu bere sentimentu onetan Baña Simeonegas dolores izan baño lengano [sic] esan dayogun angueruas Ave Maria.

Thema ut supra

Gutzis andi ta esagutu ecin leiquezanac izan cirian Jangoicuac bere Amazat escogidu izan ebanenzat egun cituan mirarijac alde batetic jausten dira bere viotsera Jangoicuaren irutz gozuac arima guztia gozos beteten deutzenac. Esan lei beste aldetic eseutsela munduan emon nai contenturic. Aguertutem jaco Anguerua barri onac emoten dirautsela bere Semia izango dala mundo salvadoria. ¿Ce barri obaric berezat? ¿Bana [sic] ce contentua sortu biar eceban bere viotsian jaquit [sic] guizonari jatorcola osasuna? Baña dempora guichiraco da contentu au laster mingoztutem jacon Simeonec beraga [sic] biurturic dirautsesan verbacaz dirautsela bere Seme Jesus ipinita iguala ascon oneraco da ascon charreraco da agaitic espata zorrozac igaroco ebala bere arimia. Angueruac dirautso bere semiac erreinuaco dabela betico Jacob echian da gaur dacuz Calvarijoco mendian alzeten deutsela Jacoboren [sic] ehecuac Tronu iccaragarri bat urrezco coroien ordes aranzascua aranzac garutaguino [sic] sarcen deutsezala da aguiente guztia guenduteco escuac josiric ipiten [sic] dabela Angueruac dirautso bere semia izango dala deitua Jangoicuaren Semia, bana [sic] gaur entzuten dau dirautsela Jangoicuaren Semia bazara jatsizaite curucetic. Angueruac esateutzan doncella eder oni Jangoicuaren Ama izangozala da gaur bere seme laztana beraganic alde eguiteco orduan nos amodijosco verbac entzun biar cituan bere aotic, dirautso sicut sicuric; ¡Andria ara or Ceure Semia! *Mulier Ecce Filius tus,* ¡Ay ene Erredentore maitia! ¿Etzara Ceu Ysaiasec esaneban leguez verbari [sic] eguingo etsenduana? ¿Etzara Ceu Sn. Pedro Apostoluac beguiracune bategaz irabaci cenduana? ¿Etzara Ceu Samariaco adultera Maria Madalena escandalosia arpegui bigun bategaz artu cenduzana? ¡Ceuzara bai da ez besteric araco gurazo samurra besuac zabalic artu dozuna Seme ondatzaile edo prodigua viotz damutuacas etorri jatsucenac! ¿ta gordeco dituzu muquertasunac ta verba otzac inos bere ichi ezdeutsun Ceure Ama inocente da izan aldeitequian santa da bigunenzat? ¿Eta nos? Ceure beguiracune amorosuac da bervaric consolagarrijenac entsun biar cituanian Nazareten urteten dau esateco moduan Jangoicuaren

seme bacarrac bere Aytaren viotsetic bilatutera Virgina zorijoneco onen sabel garbia bere bularra da besuac nun gozatuten zan atseguintasun andiegaz da gaur Calvarijuan gracijazco verba entzun biarrian dacus [no se lee con claridad *dacus*] amodijo guejaogas tratetan dituala bere enemiguac da etchacola [sic] beste mesederic eguiten Ama oni ezpabere bere besuetara erutia [sic] Seme ilen gorputza odoldua da zatitua! O Ama penas betia! ¿ez da ceuretzat izango consuelo piscabat? ¿Baña beste misterijo bat dauque Amavirginiaaren negar da inundic pocic ecin artuac? bere negar da pena poz bagacuac diriala dino bere Seme Jesusec ambeste pena da tormentu igaro ezquiero galdu da ondatuten diralaco betico semesat emon jacozanac da Diabruac urten dabela beriagaz. *Yd circo ego plorans et oculus meus deducens lacrimas Quia facti sunt fili mei perditi et praevaluit inimicus.*

Guztioc daquigu cembat ondasun da provechu etorri jacon munduari JC eriotsatic emetic esan leique ce bere pena andijen artian euqui biar ebala Ama Virginiac poz andi bat ambeste ondazun da provechu icusijagaz. ¿Ce poza artu biar eceban acordetiagaz celan baquetuco zan Ayta Eternuaren aseria? ¿Ce poza jaquinagaz Limboco atiac edeguitera juezala da an egozan arima justuac igongo ebela ordu artian zarraturic egon cirian ceruetara? ¿Ce contentua gomuntetigas Apostoluac JC icenian eguingo cituen milagruc da gracijaco leguera ecarrico cituenacaz? ¿Ycusi euquian viotseco contentu bagaric Diabruen buru ausi ta da bere escubide ta aguiente [sic] quenduta infernuco Principia? ¿Ce contentua artuco eceban ambeste milla martiri aurretijas amodijoric andijenagaz emongo ebenac euren viciencia bere Semia leguez? ambeste Virgina garbi angueruen vicisia eguingo ebena [sic]. ¿Ce negar gozuac bota biar etcituan icusijagas confesinoco sacramentuagaz garbituco cirian pecatarijacas da Altaraco bildos inocentienagaz zurituco cirienac? ¡Ay! Virgina Marija esango neutzan an egon banitz cerijacos orrec negarroc da cispuruoc cetaco dinozu consueluac igues eguiñadela zuganic? ¿Gu ezgaituzu maite? ¿Etzaitue poztutene gugana etorri dirian mesedia ceure semien lepotic izandabere? ¿Cer eguingo guenduan Adanen Seme tristio Ceure seme Jesusec vicija emon ezpaleu? icusico guenduzusan betico galdua. Consolau zaite bada sicutu eguiuzus Ceure beguijetaco negarroc da alegrau zaite guere onagaz. Baña ¡Ah ce errazoe utsac da alperrac onec poztuteco Ama Virginiaaren viotz tristezas betia! mingostuten deutso bere contentua guztia curucien ofian darabilen pensamentu larrijac! ¡Ay ene tristia! Cinuan YI niire [sic] Seme Jesus guizori guztiac salvau citian da guero condenau biar dabela betico ambeste zori gaistoccoc! ¡Ycusi emen odola darijola Jesus da ecer eguiñezpaleu leguez esquerriek emongo ezdeutsela guizonic quejenac!

Loric ecin eguin badau seme galduen Aitac bere semia galduric jabilcon artian da beste semien ontasunac arindu ecin badau bere pena ta sentimentua. ¿Ce aurquituco dau guizonen Ama onec ambeste seme galdua icusita. Arzain edo Pastore bat estuten bada ardi bat edo bi aldendu jacozañaco. ¿Ce estutasuna artuco ecevan bere viotzac icustian ambeste seme JC arteguitic aldendu da infernuco otsuen atsamarretan? Ycosten cituan Madalenien moduco nescatilla batsuc etorrico ciriala pecatuen damu benetacuagaz Jesucristoren oñetara, baña dacuz beste nescatilla asco guejago jaramonic eguingo ezdeutsenac bere semien dei amorosuari da buruan vleric baño pecatu guejagogas egongo cirianac da beti pecatuan atsituric ilgo cirianac. Ycosten cituan Zaqueo da tratulari char batzuc ostua guejagogas biurtuco ebenac baña baita beste tratulari batzuc aleguin guztia ostuko ebenac da deunguia onzat salduco ebenac? Ycosten evan zurituco jacozañako guizonari buruko uliac chimurtu arpeguiko azala ecebala euquico aguinteric gaztien artian ibelteco baña alambere beti bere pensamentuac izango ciriala deungac bere verbac astunac da loyac bere ecanduac guztiac gaztetasunecuac da beti onec jarraituco eutsela sepulturara artian *facti sunt fili mei perditii.* &.

¡O pena icagarrija! Santu eta Santa asco ilaguinic guelditu badira entsunagaz arima bat galdu dala. ¿Celan gueldituco zan edo ce viotseco damutasuna artuco ecevan Ama Virginiac curucien ofian claru ecusanian cer eguingo eben guizonac da cembat arimac gal [pasa a otra página y se repite la sílaba gal] galdu biar eben. Icosten eban benic bein an egozanac etcituela edegui gura beguijac eta Jesusi erijken odola artu ebela euren ganian bere erritarrac da augaitic etorrico jacuen castigua. Ycosten eban celan Erromatarrac etorrico cirian Jerusalena da celan ilgocituen millinoe [sic] bat andra ta guizon da guejago. Bere gau ta eguneco janarija izangozala negarra icusijagas bere nacinoe da gentien galdu biarra. *Plorabo die ac nocte imperfectos populi mei!* ¡O nire viotseco penia! esango eban ¡O estutazuna! ta dolore pare baguia! Ynfernua beteta leguez dacuzt neure semien odolagas irabacitaco arimacaz. *Praevaluit inimicus.* Estutasun onetan eguala enzungo eban cirautcela bere Semiac. *Noli fleere super me.* Ama viotsecua eceguizu nigaitic negarric eguin eguizu Jerusalengo seme alabac gaitic, nire eriotsiagaz valijau gura ezdabenac gaitic euren pecatu ta maldadiacas barriro curucian ipinico nabenac gaitic ute [sic] osuetan ni azturic pecatuetan da peligruetan sarturic dagozanagaític, nire gorputz da odola demoni: nuen vici lecua dan arima loi da atsituan artuco dabenac gaitic da neure Religinoe santuan charto vicico dirianac gaitic onexec gaitic negar eguizu sed super vos flecte.

Bai NA onejec gaitic gura dau negar eguin daijan bere ama maitiac curuciaren ofian ezdau gura negar eguin daijan ogueta amairu urtian mundu onetan igaro ditu neque penac da trabajuac gaitic bere pasinoeco ichasuan pasau dirian tormentuac gaitic ezpada pecatuen cateietac [sic] pocic dagozanac araguijaren cateia senduacaz lotu ta ascatu nai ezdabenac gaitic Diabruaren azpitic urten nai ezdabenac gaitic euren bila artu ci-tuan nequiac estimau biarrian bere escuetati igues eguingo deutsenac gaitic. ¡Ay Ama tristia! Ce andija izango zan Ceure penia icustian guc eguingo guenduan vici modu guestua Bay Ama consuelo baguia, bai orduanche ecusan Calvarico [sic] mendijan guc guere vici guztijan eguingo guenduzan pecaturic astunenac banan banan guztiac icusi cituan. Ycussen cituan ambeste arima diabrua baño ezainaguac pecatuen atsa eriuela Ecusan ni izango nizala bere Semien Sacerdote char bat humildade baguia oracinoeraco da beste gauza esan ecin neiquijenac. Ycussen cituan naita nai ez guizonac eguingo cituen lapurreta ta trampa da engañuac. Garizuma onetan eguingo cirian sacrificijuac da gaurric aurrera eguingo dirianac guizonac erabilico cituen ausi guesto ta oquerac. Ycuscarri loi onec ez icustiarren estalduco eban bere arpeguija ojal edo veluagaz lotsa arren David esan eban leguez: *Confusio operuit animam meam* penien penas aztutarren biurtuko cituan bere beguijac bere Seme ta Jangoicuaga. Baña ¡Ah! ¿lausotuten [no se entiende bien en el original la primera sílaba] jacos bere beguijac. ¿Eta ce consuelo aurquitu euquian bere Semiagan bijac pena modu bategaz begozan? Entsutzen eban cirautsela Ayta Eternuari Ayta: cegaitic aztu ta ichi nozu andic laster icusi evan beguijac ichi burua macurtu da ascaneco [sic] arnasia emoten. ¡O pena consuelo baguia! galdu nire semia arimac pecatutic ateratarren da onec ez urten gura inundic bere! Emon Jesusec eban odol guztia pecatua zapaldutiarren da icusiric bere Amac gueituagas juango ciriala pecatuac! *facti sunt filii mei perditii* & pena onegaz eztuturic ascatu gura dau negarra darijola esanagaz. Jauna: icusi eguizu nire estutasuna eta larritasuna bada enemiguac urten dau beriagaz. *Vide Domine afflictionem meam quoniam erectus est inimicus!*

¡Ay NA uste neban nic orain artian icusi bacendu Virginien imagina ori guizon arima bacuen osticopian bigunduco lizatequezala zuen errayac da negarres espata zorrocen artian sartuco ciniala ataratiarren escu sacrilegio [sic] aetatic prenda ain estimagarrija. Baña orainche daquit ecerbere eguingo etsenduquiala bada icusiric eitem [sic] desprecioric andijenac Ama virginiaaren irudi edo Seme viotsecuari gugaitic emoten daben vicitsia estimau, nai ez da osticopian darabizu bere odola penien apur bagaric. ¡Ah! ecin icusi dozu chacur bat alarauca aranzabat sartu jacolaco

da bertati zuaz ataretara ¿da egongo zara ardura bagaric pecatuen aranzacas. Ama virginien viotza erdibituta da ez atara gura bere viotza bateric bestera igaro deutzan espatia?

¡Ay Jangoicuaren Ama ona! ¡Ay eta adieraso albaneizu neure damua ambeste penagaz ceu icusita! galarazo albaneiz arima baten pecatuac! Ceuc daquizu [sic] ondo diadar eguiten deutsedala erruquituten jatazala amenacetan dodazala ceure Semien aserriagas da eguiten dodala aleguin guztia arguituteco itzuac entsun eraiteco gorrai bigunduteco viotz gogorrac da Ceu consoletaco. ¿Baña cetaraco atara dot? Etorrico dira ceure besuetara ezaguturic ce deungaro tratau daben ceure Semia contentau dala uste dau pecatuagaz da egunen damuagaz arinduko dituala ceure penac. ¿Ezeditu ondo ezagututen pasinoeco penac munduco olganza da zoraquerijac buruan dauquezala. Eguin begui bada naidabena esan bequijue esan ala da orrec negarracas nastautaco berba [Después de la palabra *berba* está semitachado *caz.*] amorosuacaz ezdituzu ataraco euren vici modu guestotic. Ez daucat nic esperanzaric. Urte asco da Jangoicuac convidetan dituala bere misericordijagaz. Sarri entzuten ditue verba on asco Predicadore da Confesoren aotic Vicitzac beti dira lenac bayta izango bere.

¿Baña cec sartu nau ni ceure misericordijari neurrija ipiten? [sic]. ¿Noc daqui gaur Judic baño Virgina poderosuaonec ecarrico ete daben osasuna erri onetara? ¿Noc daqui orain artian Diabruaren aspijan vici izan dirianac Jangoicuaren libertadian paraco [sic] dirian? ¿Noc daqui pecatuco ocasinoe loyan orain artian vici izan dirianac sacrilegijuac eguiten gaurric aurrera ocasinoe guztiac ichi da parauco dirian Ceruco bidian? ¿Noc daqui orain artian charto confesau da comulguetan izan dirianac gaurric aurrera garbitucoituela euren arimac Jesusen odolian? ¡Ay Jesus Crucificaduren Ama! Ceuc daquizu ondo etzaite aserratu eguitera noyan escabidia gaitic. Ceuc daquizu ondo cemba [sic] alcineyan etzaizu badea gura izan galduidein arima bat da principalmente Eleysa onetan daguanic Ezdeutazu [sic] eguingo gracijs au. ¿Baña cerda Jesus onac gura izatia gueuc gura ezzpadogu? Ara cer dinuan Spiritu Santuac. *Gemitus Matris tuae* etsaitiela gogortu ceure Amaren negarretara. Consolau eguizu bere pena da dolorietan eguizu [Al margen de la última sílaba *zu*, con la cual comienza la línea, dice: *con nueva vida*] beregas bertati tratu bat zuec ez gueigo [sic] ofendietaco Jesus maitia berac lagundu zuri ceure estutasun guztietan bago [sic] inor zuen artian tratu au eguiu [Al margen de la palabra *eguiu* hay una nota que dice: *viciza barri bat artuaas*] ezzdaberic Ez arren NA ezaqutu [sic] daiguzan guere pecatuac da euraquín emon

deutsaguzan sentimentu andijac emetic aurrera jarraitu dayogun berac era-custen deucum [sic] bidari vici gaitian Jesusec irabaci deusun [sic] gracijan da alcanzau daygun Cerua. Amen.

O. S. C. S. R. E.

Es copia literal

JON JOSEBA PUJANA.

3

Jesu Christoren Viotza da dino beste guizon veneragarri batec ez bacarric virtute guztien egoteguija, baitabere gracia guztien Yturburuba, nun arquitu ta gordeetan dirian virtute artu dirianac. Ce eraspen ta devonicua [sic] euqui biar ezteutsagu Viotz sagradu oni? Celan juango ezgachacoz amorez urturic arima garbijacaz! Ai elduco baguiña ezpan egarberaacadit turri onetaco ur ederretara! eta celan ilgo lichaquegun lurreco cinguira lojetaco ur ustelen egarrija! Ai elduco baguiña beragana gueure premina guztietan, ta ce laguntasun andijagaz urtengo guenduquian!

Iracurten da ostera Santa Metildesen vicitzan aguertu jacola bein Jesus maitia esataco: Amau naguizu osoz ta aldozun aleguin guztiaz. Baña billatu eguzu amodio oso ta neurri bagaco au aldaraco Sacramentuban nun emoten dan amodijuaren bai edo prenda ederra. Emen dago vicitzarako laguntasun osua, ta eriotzarako atseguiun ecinesan bestecua bera maite izan dabeenentzat. Enzun cituban une atan amore garbico verba oneec icusi zan beteric Jesusen viotzaren devocinoez, cefiegandic artu cituban aimbeste mesede, ta gracia, cein da dinuan Santiac berac contau biar balitu artu citubana ezlitzatila asco Liburu andi bat.

Baña devocino onen bando ezpalegoz Santuben esanac, ta Jesu Christoc berac euren arteco ascori eracutsia, noc esan lei errazoia galdu ez-padau eztala vide onecua? Jesusen devocinoia da aguertutia ta billatutia amodijuamodijo lecuric adjutubenian; dago bacochac aleguiñaz deseguitia bere amodijuari Sacramentu santu onetan emon jacazan atsacaba ta egun jacazan vide baguiac alan heregen celan cristinau dongueen aldetic. Noc esan ceimtaigue [sic] cembat atzetasun, cembat jararamon [sic] ta ezardura daruazan. Ceimbat dabilz [Al margen hay una nota que dice: Sn Juan Bta.] iguesi urte guztian carga andi bat ezarten baleutse leguez beragana

eldutia? Ah Christinau esquer galducua! Cec zarabilz iguesi. Galdubac dira Jauna esateutsan Profeta santu batec zuganic aldeguiten dabeenac. *Ecce qui se elongant a te peribunt.* Cer dinozu? Etxariala ondo vici sarrijago elduteco; nai cenduquiala on izan baña etxariala. Eztozula dongaro comulgau gura. Ondo dinozu [al margen hay una nota que dice: *Simil del enfermo*], baña gaisqui eraatzi [sic]. Cerc eragozten deutzu on izatia? Ce atseren gueiago arquituten dozu pecatuz cargaurico vicitzan garbi ta zucen baten baño? Ai bacenqui ce arimaco atserenac, ce olgura ta gozamen, ce viotz ascatute vr gozua darijuenac, ce negar malco gori atzeguintsbac igoar daruezan ondo vici izanda duazanac Jesusen Convite onetara! Elzaquioz bada amorez, ta arguituco zaitu. *Accedite ad eum et illuminamini.* Artu ta probau eguizu Ceruco erregalu Ainguerubac emongo balichaque artuco leuquena ta icusico dozu cein gozatsuba dan. *Omne delectamentum &a.*

Eztot inos orrelango atseguinic artu eldu nasanetan? Ah Jesusen maiatzalliac erdu ona, esango deutsut San Agustinegaz, erdu ta esan eguidazu egquia dan edo ez gozo gozua dala Ceruco erregalu: Baña deituten badeutset viotz amore on baguia, atzeca Jesusegaz dabilznanai, eztabe aituco cer dinodan. *Si autem frido loquar nescit quid dicam.*

Bada cer, vicitzan indarrian duazanai, muquertasuna baño eracusten ezteutseenai, juango jaquee Jesus viotza edeguita consoletara penaac arindutera, ta vidē eternidadecuan lagundutera?

Deitu eutsan Samuel difuntubari Saul erregue concienciaco estubac larri erabilli eban dempora baten. Vici izan zan artian conseju eder asco emoeutsazan Samuelec, ta onen vitartez jaso eban erreguetasunera. Etzituban jarraitu onen consejubac, ebillen Saul ilteco arriscu andietan guerraco demporan. Ecusan ernegauta bere buruba conciencia donguiaren zaunca issiltzaquiaz, ta billatu eban andra encantadore bat viztu eguijan Samuel onec ateraco ebalaco ustiaz esturati. Vrteeban Samuelec sepulturati, zucéndu zan Saulen billa, jarri jacon aurrian, ta dirautso sicuti sicuti ta difuntu batec esan daiquezan verba itzaltsbacaz. Saul, cegaiti galerazo deustazu illen toquijan neucan baquia. Cetaco viztutera obligau nozu? *Quare inquietasti me ut suscitarer.* Cer gura dozu nire aoti orain enzun? Bijar Zu ta ni lecu baten batuco gariala. Pensau baño eztaucazu celan zurtuco jacozan Sauli buruko uliac, izoztu viotzeco odola alaco difuntu santu baten aotic alango sentencija enzuebanian. Alan il zan Saul erneguban ondu baga.

Ah Christinaubac! Orain Jesusec emoten deuscuz milla modutara conseju eder asco ondo vici gaitian. Dirauscu bere viotza edeguita eldu gaquiozala amorez, ta prest ezpagagoz garbitu gaitiala penitencijaco iturri-

ja, [sic] Samuelec Sauli vicitzan emoeutsan baño bazcari obiagua esquin-tzen deuscu. Baña cer jazoten da? Darraiogu gueure moduco vicitziari, atzetutene ditugu bere convite onac, eztogu uste pecatuban baño bestetan atseguinic daguala... Alan daruaguz egunac Saulec leguez otuten jacuna eguiten; nos edo nos badator ilteco epia. Larritutene gara; edo gueuc escuta edo inoren aguinduz badua Sacerdotiac [sic] ateraten Jesus sagrarijoco sepulturati. Dua gusto baga gaiso conciencia donguiac estutubagana. Sartutene da guelan, eztau inoc enzuten daben verbaric esaten; baña ah bai ta celan verba eguin baleu esango leuquian. *Quare inquietasti.* Cetaco quendu deustazu Sagrarijoco sepulturan neukan baquia. An nenguan ni Ainguerubac lagun eguiteustela... *Quare inquietasti me.* Cer gura dozu enzun niganic. Etzara zu... Biar, gaur edo laster alcarregaz batuco gara, ni zure Juez izatera, ta zu contu emotera. O trance estuba!

Ai Jesus maite, onegui oneguija. Berorrec gura guenduquez emorez licatu gure viotzac. Berori eguiñ da guretzat Bildots zuri guc jan daigun ill ebena, ta amorezco subac erre dabena. Baña cein alperric dendatutene dan! Aguertu eban ta zabaldu bere Viotzaren devocinua deseguin guenguizan negar ta penaz berorren Sacramentubari eguiten deutseezan ta eguiñ deutseezan injurijac Judegu ta herege sinistu gura eztabeanac berorrec aimbeste daiquianic edo aimbeste gura izan leusquegunic. Geu [sic] gueu gara gueitutene ditugunac deseguin biarrian berorren videgabiac [sic]; edo gabilcoz atzeca iguesi edo guacoz viotz liquinacaz! Baldin osagarrijac biurtutene baditugu satarri [sic] edo pozoe gaisto eguitera, ce vide dauca gure viotzac beretuco [sic]. Ah Jauna! Orra elduric demporac ceñetan amatau dan berorren amodijua, ceñetan barre eguiten jakan len ain zabalduba eguan devocino ori, ceñetan dagozan baztartuta berorren servitzarijac, ta buru jasuacaz dongaac. Arren argitu &a.

Es copia literal.
XABIER AMURIZA

Tu es qui venturus es, an allium expectamus? Math. C. II.

O Zorrioneco Velen! eta ze pozic zengozañ enzuten Profeta S. esaten eusubeenian zeure erribarruban Jaico zala Munduko Salvagillia, Aita eter-nuaren seme bacarra, Jangoicoguizona? O ze dichas vetiac izango guñian gu izan balebe gueure erriiac fortuna ori? O Augustoren dempora ederra!

eta ze pozic egongoguiñian gu, alcanzau bagendu zu icustia! Arzaiñac poztu bazirian guztiz, zeruco señalquín, ze consuelo parebagua, euco ez eban gure Viiozac Ycusita aita eternuaren seme bacarra gueure artian guizon egunda? Baña ez daucagu ze tristetu ez icusi arren dempora areec, ez daucagu zer desiau dempora areetan munduban egotia; zeren orainche, dempora oneetan, Jaiotenda Jesus gueure viiozeten modu barriian, onera pate bagacuac dacarzala zerutic gurezat: Onetaraco Eleiza S. combideetan gaitu dempora santu onetan prestau daiguzala gueure viiozac Jesu Christoren Jaiozaraco, artu daigun gueure arimeetan Jesus ceruco onera guztiiequin.

Guztiioc daquigu, etorten danian Emperadore, Erregue, edo Veste onelaco personaren bat vere ziudade, edo erriren batera, eguin oidirian prevenziñoiac erri atan, imindeco eureen Jaun eta Jaubiari echeric ede-reña, Jarbitasunic [sic] andiienagaz, Alajaric Valiioso, eta estimaciñoeric andiinequaquin: eta onelan eguiten ezpadabe, edo dira gente zoro, esquer gueistocuac eureen Jaubiarenzat, edo ez dabee ezaututen eureen Jauna: Denpora onetanche gagoz Eleiza S. dirauscunez, Vertati Jatorcu Gueure Emperadore, Gueure Jaube, eta Jaun Jesuchristo gu oneraz, eta mesedez Veteetara; Jaquin viardoguna orain da, ze modutan prestau viardeusagun vere egonlecuba: Davidec esaten ebanez, Batu arren mundoco zidar, urre, eta arri Valiioso guztiiac, ez da ezer, Jangoicuaren egonlecuba imindeco viardan moduban, zeren oneec dira guizoneen adornubac, Baña Jangoicuari prestau viardeusagun lecuba, da arimia: Presteetaco arimia viardan moduban; eta gueure Jangoicuari vere egonlecuba; gogoratuten deuscu Eleiza S. ez gaitiala izan Judegubeen moducuac, zeinzuc Belenen ez euseen emongura izan ez echeetan lecuric, ez tellaperic; ez gaitiala izan ain esquer gueistocuac: Belengo gente gogorra! Ez da ori aimbeste Profetac opa izan deusuben anditasuna, zeubec oneraz veteetan datorrena, zeruco vidia eracusten datorrena, Jangoicua guizona? aïñ esquer gueistocuac izango zara? [sic] ez deusazu Prestauco zeuben artian lecu onbat Mesias icharotenzagozanari? Bafia ez dago zer miraritu, zeren gueuc euquiiagaz arguitasun gueiago Judatarrac baño prestetean deusagu Jesus maitiari lecu loiiagua, pecatubetati garbitu bagaric arimia, prestau daiguzan gueure arimaac viardan moduban Jesus erreziebietaco. [sic]

Exodoco 25 capituluban eracusi eban Moisесec zer modutan imini, eta prestau viarcozan Jangoicuaren egonlecu, eta templuba; lelengo aguindu eban eguin zedilla altara sacrificiuetacua; guero lecuba garbituteco bacochac vere loiiac; guero argui iriciuac; guero inzensua, eta asquenic Maiia: oneec euroc, edo esangura dabeenac eguin viarditugu prestetaco geure [sic] viiozac, eta arimaac Jesus erreziebietaco: Lelengo eguin viardoguna da

sacrificiio altaria; auda samindu gueure viioza Jangoicua ofendidu do-gulaco pecatubequin; mortificau, eta eguin penitenciia guere [sic] gorpuz, eta sentidu guztietan Jangoicuaren Justiciia vigundu dedin; ez Jaramon mundubari, eta verac opa deusczan guzur, eta falsedadai; lelengo guztiz sacrificadu oitura gueistuac, eta viurtu Jangoicuagana parca escatuten eguin ditugun gueistaqueria guztiiac gaiti: ze exemplu ona daucagun David erregue sant. zeinec ichiric Saul, eta vere Palaciua, Juan zan Belengo sacrificiiora: zer izango ete zan Jaquin baleu, Jaiozala an aita Eternuaren seme bacarra? Zoratuco jacon, zurturic queratuko zan pozaren pozes; eta guc onera onegaz, ez deusaguz sacrificauco mundo gauza gauztiac [sic] Jaun oni? Saminduco ez dogu gueure viioza, eta eguin penitenciia eguin ditugun pecatubac gaiti? Eleiza S. gueure ama amodioric andienecuac diadar eguiten deuscu ez gaitiala izan Judatarrac leguez, esquer gueistocuac, sacrificiioau eguin daigula viioz guzti... [La *i* termina en el borde de la parte baja de la página, cuya parte está un poco desgastada].

Vigarren eguin viardabena C. dempora onetan da, garbitu ondo vere Conciencia, Sacramento S. Penitenciacuan, presteetaco egon lecu garbiia Mesias zerucuari, orregaiti emoten deuscz Eleiza S. lau aste avendu S. prestau gaitian viardan moduban Jesu Christoren Jaiozarako: esaten eusan Jangoicuac Jacob P. S., igon eguizu Betel derichen lecura; eguin egui [sic] eguizu an nirezat Altaria; Vertatic Jacoc dei eguin eusan vere gente guztiiari, aguindu euseen, Vota eguiiezala Jangoico falso guztiiac, quendu eguiiezala erroba lojiac, eta Janzi garbiac; Modu onetan C. dei eguiten deusee Jangoicuac, zuzendu daiiela eureen Viiozeco altaria veragana; Vatu daiiezala sentidu guztiiac, Entendimentuba, Borondatia, Memoriia, icusi ziaz eureen conziencia, eta badauquee loiric, garbitu daiiela ondo Jesus Maitia arzeeco.

Yrugarren euqui viardau C. candela iriziua, au da Vere consideracioneco arguitasuna, gogoratuteco ze mesede parevagacula eguin Jacon C., dempora onetan, zeñietan etorri zan Aita eternuaren Seme Vacarra Mundura, guizona errescateetara; consideretan dabela, Zein dan Mesede au egui euscuna? Jangoicuaren semia: ez eban gura izan Viraldu Angue-rubac guizona errescateetara, vera etorriزان enpersona: Nundi dator? Zerubetati, Aita veticuaren ondotik, zeruko tronutic. Nora dator? Misericordia, eta negarrez veterico lecu onetara: Nogana dator? Adanen seme desterraduvetara, Parausic, botata dagozanetara; Vere arerrioric, esquer gueistocuenetara; ze modutan dator? izanic Jauzaguztiien [sic] eguillia, arturic esclabuen Yrudina: Zetara dator? ateratera gu Deabrubaren cautiveriiotic, topeetara ardi galdubac; topau, artu vere lepuan, eta eruatera, vere artalda, eta guiberriietara; eracustera guri zeruko vidia, vere semezat gu

arzeera, eta vere erederu gu eguitera; azquenic, nos dator? Javerdiian, [sic] auda Mundubac iluntasunic andiiena eucanian; eta Jaun au errezibietaco ez dogu prestauco gueure arimia cuidadoric andiienagaz?

Laugarren eguin viardabena C. presteetaco vere viioza Jesus vere Jaiozaan errezibietaco, da, euqui veti inzensua Altaraan, auda, euqui desioric andiiena veti vacochac veragan, Jesus errezibietaco; Euqui viardon-gula guztiioc desio aiñ andiia Jesus errezibietaco gueure viiozeta, zein euqui ebeen testamentu zaarreco guraso onac; zerren desio andiia daucanari, etorrico Jaco Jesus vere viiozera graciia guztiequin; orregaiti Eleiza S. gueure ama viiozecuac, zorzi egunez, Jesusen Jaiozia baiño leenago, eracusten deuscu, egunian vein, ze modutan esplicau Jesusi desio oneec gueure arimeetara etorri dedin; Ô Jaquituriia Pareric ez dozuna, erdu gueure viiozeta [sic] eracusteria guri, zer eguin viardogun zu errezibietaco. Ô Munduko salvaguillia, zeruco ateetaco guilzeen Jaubia, erdu eta atera gaizuz Munduko iluntasun, eta laquio gueistuetatic. Desio oneec euqui viarditugu viioz guztitic, ze baldin badira viar dirian moducuac etorrico da Jesus gure viiozeta; amodiuac urtu viarditu gueure viiozac Jesuseganaco; Desio gueiiago euco guenduque Jesuseganaco, Considerauco baguendu, zer dan gure dignidadia, gure aberastasuna, Jaun au errezibietan dogunian gueure arimaan: Zer eguingo eteeban Abraam P. S. euqui baleu guc daucagun dichia, eta fortunia? Zer David erregue santubac? Zer veste Erregue eta Profeta S. ascoc? Ze neque andiac iragoten ez zitubeezan paraliticu, eta gueiso ascoc Jesus icusi ezinic, Jesusi vcututeco, Jesusen gueriziac edolavere vcutu eiiuen, osatuzeditan [sic] onela eureen enfermedadeetatic: guztiiac osatuten zirian, zerren desio euquena Jesuseganaco zan andiia, eta viioz guzticua, eta guc ez dogu euco oneenvesteco desia Jesuseganaco?

Azquenic euqui viardau C. Jesus errezibietaco Maiia auda, eguin viarda, vacochac aldaian ereduban, inos baño gueiiago, dempora Santu onetan, limosnia pobriai, eracusteco Jesuchristori deusagun amodiuua, vere sierbo, eta gueure proximuetan; zerren zeimbat gueiiago eracusi daigun Jesu Cristoren [sic] amodiuua proximuetan, aimbat gueiiago eracusico deuscu guri Jesu Christoc vere amodiuua, Vere etorreran gueure arimeetan: Gueure viiozac izan Viardau Mai zabala pobre tristeenzat, ez Jaco galduco inori pobriari eguiten deusana, eta gura badogu arindu pecatubac, [sic] ez dago limosnia laco erremedioric propisitu [sic] firme bategaz ez gueiiago pecaturic eguiteco, Viiozeco samintasunic andiienagaz eguinditugun pecatubac gaiti: Onez osterancian euqui viarditugu gueure viiozeco maiian Fede Vizilia, esperanzaric andiiena, eta amodio eguiatzua, zeinzuquin etorrico da, duda bagaric gueure viiozeco maionetara, Zeruco Jaanari, eta Mesias egui-azcua.

Modu onetan prestau viardogu gueure arimia, dempora santu onetan, Jesus errezibietaco gueure viiozeta, Consideraubagaz gueure oneraraco eguiten ditugula obra on guztia: ez dator Jesus mundura Vere Viarrez, guizonari deusan amodio andiiagaiti baño; guizona, oneraz, eta mesedes veteetara baño, eta emotera guizonari pensau ezin leitequian dignidade, eta anditasuna: Baña prestauco ezpaditugu gueure Viiozac Viardan moduban, eta circunstancia guztiiequin Jesus errezibietaco; oveda milla vidar ez errezividu, eta egún Belenguac egun ebena, ez emon gueugan egonlecuric, ez tellaperic, ez echeric; pecatuz veteeta, gueure oitura gueistuaquin artuco badogu Jesus, oveda ez artu; Ó ze ondo esaten eban Isaias Profeta santu bac dempora onetan vertan; Ó Jauna! zeure etorreraco arguitasun andia-gaz, asco ascori veguiiac arguitu deuseezuz; baña baliiau gura ez dabeelaco arguitasun onegaz, gura ez dogulaco icusi viarguenduquian moduban ar-guitasun au, ez zara poztuco viarlizatequian leguez; mesedes vete gaituzuz mundoico guztioc, zeure etorreriagaz, baña ez gara aprobecheetan mesede oneequin, eta ez da gueituten zure poza. Ara zuzen Isaiasen Profeziia, gure eguitiaquin, asco prestetan gara Jesusen Jaiozaraco, Jesus gueure viioze-tan errezibietaco, baña guichi viardan moduban, eta orregaiti ez da guei-tuten Jesusen poza, zerren loquerriaz veteric gueure conziencia, eta Ari-mia, errezibietan dogun, gueure Jaun eta Jaube; gente asco asco, baña pozcarri guichi Jesusenatz: ez dago bada, veste erremedioric, Jesusi emo-teco artu guraleuquia [sic] poza gugaz, Vere etorreran, prestetia baño gueure viiozat [sic] Viardan moduban; Zuzendu gaitian veragana; parca escatu daiogun orainguiñoco pecatubac gaiti, eta propositu firme vategaz ez pecaturic gueiago eguiteco artu daigun Jesus gueure viiozeta oraiñ eta veti. Amen.

Es copia literal. Derio, 1961-IX-14.

XABIER AMURIZA.

[En la portada dice:] †/Sermon de los Dolores de/ Maria, año 1828.
[El 8 final no está claro. Sobre otro signo se han hecho rasgos de 8].

†/ Dolores de Maria año 1828.

Cum vidisset ergo Jesus Matrem, et Discipulum stantem quem dili-gebat dicit Matri sue: Mulier, Ecce filius tuus, deinde dicit Discipulo, Ecce Mater tua. Joan. 19.v.26.

Beraz Cc. Ainguерuben Erreguiña, ta guizaaldi guztietaco esperantza ta poza, icusi biar dogu gaur guztija azpiratu ta zamintasun edo Dolorez inguratuba. Beraz cerubac beretzat izan cituban amodijo ta gracijazco Yturi ugarijac, biurtu ditu asserrezco Ychasca gogorretara, ta mundubac ez deutsa esquintzen, ezpada illuntasuna ta naibaguia. Oh, Siongo Doncella eder ta garvi, izan, ta izango diran guztien artian doatsu ta leijaléna [sic], bacar bacarric, ta besteric ez leguez ama ta Doncella izan, ta izango zariana! Cetaraco zure gomunta utsa izan zan arima justu ta Patriarca Santubeen poza, ta Ygarla Santubac necatutem ciran aillaguiña, goratu nairic zure icena, adierazoric Erregue Profetiac berac, apaindu cenduzala Jangoicuac berac alegrijaco gozotasunagaz? [Desde la palabra *apaindu* hasta *alegrijaco* hay unas cuantas palabras tachadas y en la parte superior de ellas han sido escritas éstas.] Ps. 44.8. *Unxit te Deus tuus oleo letitiae.* Cetaraco, diñot, aimbeste pozquerija, icusico baciñan gaur Dolorezco Ychasuetan ondatuba, ta jaio, ta jaioco diran emacume guztien artian errucarrijena? Nundic, ama laztana, aimbeste gora beera? Cec biurtu ditu alegrijazco ugarritasunac, orrelaco dolore ta garratzasunetara? Oh, Adanen seme alaba zorijonecuac! Asiera bagaco Aita beticuaren erabaguijetan icentaurico eva barrijac bere semiaren ama izateco, batu biar eban bere seme onegaz guizonaren libertaderaco sacrificijuan, alan, guizonaren amodijuac azpiratu beeban allaguiña, ataraco, ceruco erregueren gloria bera, amodijo onec beronec azpiratu, zamindu, ta garratzu [sic] biar eban bere amaren anditasun ta gloria guztija. Bai, Jesusec bere odolezco eriotziagaz atera guenduzan pecatubaren mendetic, ta edegui ceruco atiac, ta bere amac viotz ta arima barruko Doloreric izugarrijenacaz artu eban beragan gu salvacinoeco cai edo portura zucenduteco cargu edo lan santuba. Au guri arguituteco, Jesusec, bere azquenengo agonijaco zotien artian, verba eguiten eutsala bere amari Sn. Juanen buruban guizon guztiacaz, dirautso: *Mulier, Ecce filius tuus.* Andria, ara emen zure semia, edo semiac. ta bardin zucenduric Sn. Juani, *Ecce Mater tua.* Ara zure ama, edo ara adanen seme alaba guztien ama barrija.

Emen aguertuten jat bada niri gaurco sermoeraco guei egoqui bat, ta izango dà adierazotia, celaco dolore ta zamintasunac igaro cituban Jesusen amac gure amatzat gueldituteco. Bere doloreen anditasunac arguituco deuscu guretzaco daucan on erechi, amodijo ta erruquitasuna, ta alan atera naico dodan frutuba izango dà iguitutia aleguinez guztioen viotzac esquinii gaquijozan pocic bere seme ta alabatzat, gogoric senduenagaz erantzuteco leijal bere neurri bagaco mesedei.

[En la siguiente página:]

† / Sermon. / *Cum vidisset ergo Jesus &*

Ez dà Cc. guizonaren jaquiturija argalarentzat adierazotia Ama maite onen Doloriac eureen garraztasun guztijan, ta baldin Sn. Agustin batec esaten beeban, guizoneen gorputzetaco zati guztijac miyn biurtu arren, ez litzaatiala iñor duin izango biar leguez goratu ta alabetaco, eguijaz esan daiquet au berau bere Dolore ta zamintasuneen gañian. Noc iños aztertu dau biar leguez Jesus ta bere amaren viotzetaco amodijo edo etsiguitasuna? Ay! Salomonen samurtasun ta esacunerik vicijènac, labur gueldituten dira amodijo onen aurrian. Yzanic, bada, amodijo au bere doloreen neurrija, eureen ezaguera arguija beti izango dà eztalija gure argaltasunarentzat. Baña Adanen seme alaba aimbeste, ta aiñ dolore izugarrijeen jaube edo herederu garianoc, ez dogu aimbeste arguitasunen biarric bere leijaltasunian issiotuteco, ta alan ecin izango dà alperra eureen gomunta labur bat eguitia.

Ez dà ezagutu ta ez ezagutuko luurraren ganian Jesus ta bere amaren arteco amodijuaren bardinic, ez ur emotecoric, bada eureen viotzac janiziric amodijoric garvi ta samurrenaren apaingarri guztijacaz, ez euqueen eragozpen ta ez otzgarriric alcarregan gozatuteco. Alan ama maite onec beguiratutenean eban bere seme Jesusegan bere amodijo bacarraren Yspilluban leguez, ta serafinic issiotubenac ez euqueen cer icusi bere viotzeco amodiozco garracaz. Baña ay, ester eder ta garvija! Ez zara izan jasua, ceuretzat bacarric, ceruco Erreguiña ta Jesusen ama izatera; zure lan ta carguba, ez dago amodijoric garvijènian gozatu, eta gloria ugarijeen jaube izatian utsic. ¡Ez! ezpada zabaldutian ceure altsutasun andijaren erruquitasunac esquintzen jatsuzan adanen seme alaba galduen gañian. Zure seme laztana esquiñiric eureen amorez curutzeco sacrificijoric gorrenera, lagundu biar dozu amodijo onetan, ta josi biar dabee zure viotz samurrian doloreric izugarrijeneen sillubacaz, bere gorputzeco zauri gustijac, artuteco amatasun barri bat genteric errucarrijenacaz. Bai, Eva ren ume Errucarijac [esta última palabra en la parte final está superpuesta a otras letras que se han querido tachar escribiendo encima], erbeste onetan negarrez, argaltasunez beteric ta cematuric alde guztietatic, biar guenduban Eva barri ta leijalago bat, ta aita beticuac ezarriric aitaraco zugan bere beguijac, icentau cenduzan gueure ama barritzat. Baña amatasun onen erruquitasuna guri eracusteco, beragan aurquitu guinaijan amodijo ondo baguia arguituteco, ta beraganaco leijaltasuna gueijago ta gueijago gure viotzeten issiotuteco, izan biar dau dolore ta garratztasunic izugarrijeneen frutuba. *tuam ipsius animam pertransibit gladius.*

Amatasun onegaz ázturic vici zarian pecatari gaisua! Beguirá cetara dacarren zure amodijuac Jesusen ama ta espíritu santubaren esposa garvijai Galdu biar dau bere seme bacar ta laztana, zure ama izateco; ta galdu

biar dau inoc munduban icusi ez daben tormentu ta lotsaarijetan, ta cerubac arguituric bere erabagui oneec, ez dau ecec atzeratuten, ta sendotasunic andijénagaz erantzuten dau: *Ecce ancila Domini, fiat mibi secundum verbum tuum.* Ara, Jauna, berorten mempeco edo esclavia, bete bitez nigan berorren erabagui Santu guztijac. Galdu daidala bai, neure seme bacar ta laztana, bete dedilla ordu onian bere curutzeo sacrificijo gogorra, ta ichassosco garraztasunac inguratu daijeela nire viotza, izan nadin evaren seme alaba gaissuen ama barrija. Beguira, diñot amodijo onetara, ta aztertu cerbait bere ondorengo doloriac. Baña ez dà nire asmua orain euraz [sic] ciaztau ez cembatutia, izanic beste arembeste, ceinda Jesusen pasinoeco pausubac. Banacaren batsuc aitatutia uste dot asco izango dala neure asmua bete, ta arri biurturic ez dagozan viotzac iguituteco.

Egijaz Cc. baldin bere vorondateco sacrificijo utsac jasoten baditu nai ta ezco sentimentubac gure viotzeten, celacuac jasoco ez ditu icustiac ama maite au bere seme laztanaren tormenturic izugarrijeneen testigu? Catigarioj [sic], osticada, belaarrondoco, burla, lotsáari ta sentencia oquerreen ondoren, espalda billosaquin lotuten dabee Jesus pillar baten ta óleoeric [no se entienden bien las dos primeras letras, ni si es una letra solamente] amorratubeenac essesten deutsse bata bestiaren ondoren azotez zaurituten adicatu arte guztijan; azote puntaac daruez bere araguí zatijac, ta aguertutten jacozi saiets azurrac; eta zu Sunamitis samur ta ederra berari beguira, zu bere onduan? Nun zan zure amodijua? Nun dà zure viotza? Ainguero eder jazoera onen testigu izan ciñeenac, zubec esan daiquezubez cerbait ama maite onen viotzian igaroco zan doloriaren gafian. Nic esan daiquedana dà, arturic ama maite onec nire amorez ain zauri garratza bere viotzian, ez daquidala celan aurquitu deitequian [sic] neuria bere leijaltasun ta esquer onian issiotu baga.

Ama maite ta errucarrija, icusiric zure semiaren arerijo ta boreru-been gogortasuna, jaquifíc eureen aurreraco astmuac, alde eguiuzu arren bacartade batera, ascatu bitez zure beguijetaco Yturrijac, ta atseen dajala albadau cerbait zure viotzac, bada asco dà sacrificioric guizonaren amorez; baña ez, edan biar dau caliza garratza azquenéngo ondar saminetaraguiño.

Erallaric gogorrénac, azote izugarrijeen ondoren, imiñiric coroe arantzazcua buruban, ta curutze astuna bere lepuan, darue Jesus Calvarijoco lecura. Gente pilluaren indarrez ecin urreraturic beragana ama laztana, aurreraturic, icharoten deutsa cale canteo baten, nundic igaro biar eban: urreratu zanian gueldituten dà Jesus, ta beguiratzen deutsee alcarri ama semiac. Oh, beguiracune samur, ta bide batez garratzasunian irudiric ez

daucana! Beguiratuten deutsee alcarri, baña issillic dagoz eureen miyñac, ta bacarric verba eguiten dabee eureen viotzac. Baña cer ete? Nic ez daquit, Baña beguitanduten jat cirauntsala ama maite onen viotzac: zuaz, seme laztana, zuaz ceure sacrificijora, emon eguiyu azquenengo odol tantaragiño adanen seme alaba galdubac gaiti, an nozu ni bere ondoren, esquintsera eureen amorez zure ofetan zure amodijuac neure viotzian emon biar deustazan azquenengo zauriric míngochénac [sic]. Eta peccatari gaissua; escatu cinaijo amodijo gueijago ama maite oni? Bada, ja iraitu eguijoxa Calvarijoco mendi gañera. Eraen [la *r* de la palabra *Eraen* no es segura. Puede ser *Emen*.], edolabere uste dot ez jatsula gueldituco gueijago cer escatu.

Gogortasunic izugarrijeneen ondoren josten dabee Jesus viciric curutziā lapur biren erdijan. Esanic eguan leguez, bere oñazpitic [al principio de la palabra las letras *oñ* están escritas sobre otros signos que quedan tachados] buru gañeragiño ez eucan zati osoric. Arantza punta gogorretatic garunetaco odola, Vltziac atera ditubee Yturri ugarijac escuta ofetatic, ta gorputz guztija zauritu ta odolez jantziric, ta orregaitic ama curutziaren onduan zutunic dirauscu *Sn. Juan Evangelistiac*. Bai, ama beguira, ez Jesusen penaac arinduteco, bada ez daucha ur tanta bat cer emon bere egarrija ezcotuteco, ezpada bere semiaren *Yspillu negargarri* atan gure amorez bere viotza gueijago zaurituteco. Ama beguira, ez bere semiaren agur gozoren bat entzuteco, ezpada amaren icen gozuaren ordez andriaren icen otza entzuteco.

Amaitu biar ebanian Jesusec bere sacrificio gogorra, agonijaco azquenengo zotinetan zucenduric bere ama ta Discipulu maitiagana dirautso leleengo amari *Mulier ecce filius tuus*. Andria, ara or zure semia; ta guero Discipulubari, *Ecce Mater tua*: Ara zure ama. Au dà, ara or nire Discipulu ori, ta nire doctrinari jarraitu nai deutsén guztijac zure seme ta alabatzat, zucendu eguiuz bide garbijetatic arima leijalac, ta arima argalei bere luzatu eljézubee ceure escu erruquiorra jagui ditian [la *t* de la última palabra está escrita sobre otro signo y no es clara] bide galdubetatic ta zucendu ceruco bide eguijazzcora. Onezquero ez dozu izango nigaz lùrrian semeric, baña erosiric ta ascaturic neure odolagaz adanen seme alabaac, izango zara eureen ama, eureen poza, alegría ta amparuba.

Ez dà cetan esan, ta bacochac pensau daique, cembateraguïño edeguico zan ama maite onen viotza entzunic Jesusen aotic andriaren icena ta ez amarena, baña guztija darua ontzat gure erruqui ta amorez. Alan aldendu baga bere beguijac, Agarrec beste dempora baten aldendu cituhan leguez bere semiaren eriotzia ez icuste arren, jaoca Jesusi beguira azquenengo cizpurubac curutze atan emon artian.

Oh Adanen seme alaba, nai badogu, benetan zorijonecuac [desde *Adanen* hasta *zorijonecuac* hay palabras tachadas en la parte inferior de la línea que constituyen que dicen así: *pecatari aimbeste dolore ta garratztasunagaz erosijac*] Amodijua ez dá ezagutzen atseguiñetan, naigabetan [sic] baño, ta baldin ama maite onec erosi bagaitu aimbeste Dolore ta garratztasunegaz ¿cer escatuten deuscu bere amodijo onec?

Es copia literal. Durango, 1961-VIII.

JESUS FCO. GARITAONANDIA.

4. *Bina*, qui in abzwezten meist als "Kumpel" und "Freunde" und "Freie parte" dienten den alten
Institutionen einer, die gegen jüngere, westliche, feierlichen Grinde keine Stütze.
Jedoch welche und welche Künste werden jenseit der neuen Formen
durch Bina bestrebt, besonders auf der von andererseits herangetriebenen
Welt. Jenseits ganz des Ching, da es hier das edle Jenseitchen möchte, gewohnt
seien. Letzte Brücke heißt jüngste jenseitliche Orgel und schon zweitletzte Brücke
jüngste abzwezten Deutlichkeit; und letzte bellichsel Segnungen d. Prasada des
Orient, best. aus schwarzer Smaragde. Bina ein ganz jenseitiger als solcher,
am ersten Platz, so ein anderer jenseitige, d. jenseitigen Aquaten im

Fragmento del sermón de Fr. Franso. Tristan de Huandurraga, (EUSKERA 1960, pág. 341). Tamaño natural.

Fragmento del sermón de Fr. Juan de Ajuria (1800), (EITSKERA) 1960, pág. 354.

ESEMERA, 1900

'Amanci dipanemos! Mision don. Cr.
 plante don: Eppos edesa. Cer agustatens zazitza olaquezna? Yaa ejia bawas baa-
 zia de jua: na billechita, izom i na lemo puc qizion itzimni: qaziq'ien, banz aq qui-
 der, se peccatzos benguar. 'Amanci mani; even la ois'ale amedjizam laqzegno-
 tawen. Chantimne vihennas, ba alda aqguitiaco paa elvia meton, uobajos ba dñ-
 boni bese percatuban dunes. Maydilechataq qaziq'ien, benguztasi bawad'ay ta dñlo-
 sea nacitupusio qipillaric qaziq'ien. La oida inca faguzio amibentz bawo qaziq'

Fragmento del sermón n.º 1. Tamaño natural.

un beuctora zigotonic se diengos tratus talen. Cuer lomia con
 tanta dala u se dan prototigaz se qrenen demungaz aanduco de
 talos cuor penas, si'edita mio exequititon puroco p'ores mun-
 duo aqanea de sonqoypas horwan diaqueval! Yaaq'equi bade
 nacitupu even keqyue even sla da oaxx negaznac nacitutaco
 kertros amotolucar exditatu atamio cuor enimurto qutotie. Ez
 davact mi esperancas. Uste aro da Jangonuas comidetan a

Fragmento del sermón n.º 2. Tamaño natural.

Bada cox, viciaran
indomian duazanai, muguetzarruan
bano exauzen estentzeari, suanosa -
gure Iesu zioira eizozita consoletzen
penaak anindutzena, ta zide etenriade -

Fragmento del sermón n.º 3. Tamaño natural.

taue hangoianaren itzalakia higanduz zelai; eta txamor mun
zobaxi, eta Xeraa opa deniztzaun gurez, eta jaheziaz
lelengo gurazio sacrificadu oianak gureizate, eta Xurea ibar
gurengarren perrea eratzeten egun ditzagun guretxopenerria
gurutzea gaiei: Ze esempla ora hauenguen David emugutene

Fragmento del sermón n.º 4. Tamaño natural.

zinc amoldjone i granito sanxeren abriga-
rasi gontijas, ex engreer exagozpan te exolgaran-
zic alzaren gontijos. Otros amoldjone c-
bemiratios oban bese rene iengren bese amo-
chijo bacaxaren Upsilon leper, ta vacuna i mo-
tubonac ex engreer ces iuri bese viñicos amoldj-

Fragmento del sermon n.º 5. Tamaño natural.

LAU URTAROAK NERE BEGIETAN

**Euskaltzaindiak 1961 urtean ipiñitako Lizardi
poesia-saria irabazi zuen lana**

U D A B E R R I

Argi-urratzean ba-noa mendira.
Gaiñetan Egoa, beetan geldi da;
mendiak garbi ta bertan ager dira.

2

Leenik urritza da gara txintxilletan;
izotzak ez ba'du galtzen aurrenetan,
aurrek ba'dukete naiko lan ortzetan.

3

Ogeiarten gaude. "Ogeiartez kuku" (1),
aurten, il ez nadin, garaiz otsegin du;
udaberrieta ez bekit mututu.

4

Txabaltzear dago oraintxen orria;
billa dabil kuku besteren kabia;
laister Pazkoa da, ba-dator bizia.

5

Mugitzen asi da landetan belarra,
ustai-antza dago bel-beltza kalparra,
udaberriaren leenen irriparra.

(1) Ogeiarte = Garizuma-erdia, micarême. «Ogeiartez kuku, San Pedroz mutu».

6

Belar-arte artan zizak txuri txuri,
aiekin egingo arrautz-opil guri;
baiña, Joxe Mari, ez atsegin zuri (2).

7

Zozo bikotea bide baztarretan
axtaparka dabil artille bilketan,
ardizaarrak utzi baitio larretan.

8

Ari da bizia berritu naiean,
kabiak an emen ostazabaltzean;
arraultzak berela eta ama gaiñean.

9

Ene! Gertatua: arkaitz gorrietañ
eserita nengon Ostaro leenetan,
zerura begira, ez deusen kezketañ.

10

Ontan, begira det nere oiñetara,
sugea kiribil nere makillara,
dir dir egiten zun atorratik ara.

11

An, bazterragoan utsik atorra,
artan igaro du neguko mozkorra;
ark ere nai luke bizi il-ezkorra.

12

Bizi nai guk, bizi betiko argitan,
beti nai genduke egon eguerditan;
il-bearrak gauzka ikara larritan.

13

Bai alaia dala zerura-uste au!
 gorputz ustelkorra naiz geldi dedin gau,
 orduntxe bertantxe, animak argi dau (3).

U D A

14

Urdiñ urdin goia, beroa zapala,
 langille. ta alperrek billatzen itzala,
 zugatz aundiaren alaba yaukala (4).

15

Legorte gogorra, baiña gauden lasa!
 Txorroxkile bat da ataritik pasa;
 arek ekarriko digu euri-jasa.

16

Udara da; orain bizia betean,
 landarea mardul, gizona lanean,
 izerdiz, tarteka, sartuz itzalpean.

17

Idi mingain-luze sargoriz arnaska,
 lana baiño geio nai luke ur-aska;
 ezin bota ditu euliak isaska.

18

Beorrak ez du nai etorri eultzira,
 belarriak kizkur, ixipuz ortzira;
 iñork ezin dakar zartaillu azpira.

(3) «Oi zein dan ituna beera bear au!» (Liz.)

(4) Lizardik berak Zarautzen bildu-itza.

19

Beltxez jantzi eta apaizgai alperrak (5)
 pasako ditute egunak ederrak,
 pilotan astinduz eskubi ezkerrak.

20

Siesta. Norena? Xomorro batena,
 lore kukutxean bildu zan arena;
 gero an gelditu pipitan barrena.

21

Antxen egingo du biago luzexta;
 sabel itxi artan ba-du naiko pesta;
 ez dago galdua ezer bear ez-ta.

22

Aunditzen, gizentzen ari da sagarra,
 arekin batean baita gure arra;
 ez du nai orduko atzemango larra.

23

Zizare antzeko gizen itsusia,
 noizean beinka du ozkatzen mamia;
 bidetxur egifiez, azalera dia (6).

24

Andik? Ostazabal batean da biltzen,
 mullo zuri antza maluta egiten,
 bertan mitxeleta polit biur diten.

25

Luzea zun loa baiñan ez zan illa;
 egalez jantzirik goi-gose dabilla;
 noizbait asi zaigu tarte berri billa.

(5) «Alperrak etorri dituk» (AN). Ba-dira belarrean lana latz egiten dutenak ere.

(6) Dia = doa, (AN).

26

Lurretik jalkitzen asi da gizona;
goragorako du gose ezifñegona;
beti lurrerako ez da sorkai ona.

U D A Z K E N A

27

Arorik onena: eskuak bete lan,
ba-du langilreak uztaren bilketan:
gari, arto, sagar... bego; geio zertan?

28

Praille kaskamotza zakua lepoan,
baburruna jango dute komentuan;
gure etxeen exkax urteeren buruan.

29

Txingurri, lurpera-bidean dabilla,
bizkarrean dula bera aifñako opilla;
an metatuko du negurako pilla.

30

Txerramak basoan ausarki ezkurra,
elurpetik ere sartuko muturra;
anai basurdeei ein dio agurra.

31

Etxera bildu da sabela betea;
noizbait eldu zaio egun-betetzea;
eta zer egin du? — Basurde-taldea. (7)

(7) Ikusi ditut gure etxeen baxurdeak jaiotzen.

32

Sa-Miel-dia da: larruketaria;
 etzaio aztutzen iñun ataria,
 gogora bait-zaio il zuten ardia.

33

Nagusiak: "ba-det neuk ere bearra,
 zulatua baitet neguko zamarta;
 bei-buruutan ere ez litzake txarra.

34

Onto, perretxiku, gibelurdiñ, ori,
 zartagian ondu aal dan bezain guri,
 ta gero Naparra, aren bultzagari.

35

Etxaunak gurdika biltzen du egurra,
 oola bialtzeko neguen bildurra,
 etorko baitzaio atera elurra.

36

Ez det aztu bear gaztañaren lana,
 ark ematen dio muxarri jana;
 kristauentzat ere ba-du mami ona.

37

Bebil eiztaria usoen pasean,
 nik aski det ibil muxarren eizean,
 koipe goxo janda igurtzi naitean.

38

Muxarra ba-doa pago-zulotara,
 gizendurik, negu guzikó lotara;
 lo luzea, baiña noizbait argitara.

39

Gizonak il eta dadukan zuloa,
 luzeenik dala, ez da betikoa;
 eriotza zer da? — “Jaungoikozko loa”.

N E G U A

40

Ijito andreak txerri il-usaiean,
 eltzeto ta pertza konpon-aintzakian,
 txintxurra nai luke besterik ezean. (8)

41

Etxenagusia zatak josten ari,
 larrau kendu bait-zion beorrari,
 leengoan amildu ta kali zanari.

42

Agure gaizoa bildu da beregan,
 otza sumatzen du eskutan, anketan,
 erio-zantzua zaiñetan, muiñetan.

43

Atalondoan du leenengo elurra,
 egiten diola begiratu zuura;
 sutondora doa erreaz egurra.

44

Elurra neretzat bertso-gai onena,
 aurretan arekin jostatzen nintzena;
 nik ere ba-diot gaur begirapena.

45

Orduan, bai, pozik, elur lodi zala,
 Kristoak egiñez etzaten giñala!
 Eskolara gendun bide ez zabala.

(8) «Etxekoandre! Txerri txintxurra ba duzu?»

46

Ango atarian, sartu bitartean,
 elur-pillotak ein alde bakoitzean,
 eta alkarri tira gerraren antzean.

47

Naiko egurrekin eskolan beroa,
 ez da beroago etxeko txokoa;
 geiago pizten zan ikasi-gogoa.

48

Aiton zaar gaizoa! Siñismema ba-du,
 nai du arek ere Aingeru biurtu;
 inguma bat aiña ez ote gera gu?

49

Bezperan du entzun illaren ezkilla,
 eta bertan esan: "Aingeru dedilla" (9);
 izanez anima beiñere ez da illa.

50

Gorputza ta anima bakandurik daude,
 argitan anima gorpuz-lorra gabe,
 beti zoriontsu, griña denen jabe.

51

Anima bakan aiz zeruan, Lizardi,
 gorputzaren lorra ez duk ik or senti;
 animak ba-zeukak atsegínez argi.

52

Zubi estutxoа tarte, ator, egun!
 Pasa (y)adi, zubi! Gero arte, lagun!
 alkar, beso gabe, laztandu dezagun!

ORIXE

(9) Akordamena emateko esaerak: Zeruan gerta dedilla; Jainkoak zerua diola; Aingeru gaitezela. Erunt sicut Angeli Dei. (Ebang.). Que te mato! = que te hago áнима! (Arag.).

BERRIAK ETA GAI LABURRAK

GURE ILLAK

JEAN ELISSALDE (1883-1961)

Sortzez Askaindarra (1883), Larresorron, Baionan eta Nay-en eskoletua, 1909-an apeztua zen. Jadaneko eskuaraz idazten hasia zen "Eskualdunean", Hiriart-Durruty buru. Uztaritzeko bikario egon zen hamabortz bat urte, gero igorri zuten Liginagarat erretor ta 1932-tik azkenerat Gerezietako erretorgoa egin zuen. Eskualzaleen Biltzarreko buruetan sartu zen 1921-ean eta 1930-ean Landerretche-ren ordain hartu zuten Eskualzaindian.

Pilotazale gaitza zen, bainan eskualzale porrokatua ere bai. "Eskualdun berrian", "Eskualdunean", "Gure Herrian", "Argian", "Euzkadin" badu zer-bait ager-arazirik, ichorio, "zer eta zer", pilotarien berri, eta nik dakita.

Haren liburu ezagutuenak: "Kantari Berria", "Ichorio Saindua", "Kati-chima", "Ama Maria Pasionekoa", "San Frantses", "Bahnar Deitu Salbaiak", "Atsotiz, Zuhur-hitz eta Erran Zahar". Aipatu behar litazke Dassance jaunarekin bildu chori eta landare izenak.

"Zerbitzari" zuen izen-ordea, nahiz bertze izen-orde batzu erabili dituen hala nola "Haur Prodigoa" eta "Azkaindarra".

1961-eko maiatzean joan zitzaikun Garalda-ko Ama Birjinaren beila bi-haramunean, goizean gozik, harrigarriko jende-keta bildu baitzen ondoko astelehenean haren ehorztetako.

P. L.

NIKOLAS ORMAETXEA "ORIXE" (1888-1961)

1888 abenduaren 5-ean jaio zan Iriarteak Orexa'ko errian. Añorga-n il 1961 agustuaren 10-ean.

Bereala amak, sortu ziran iru aurrik ezin bi titiaz azi zitzakela ta Nikolas mutikoa Uitziko Errekalde etxera iñudearengana eraman zuten Asuntxi amandre onaren ardurapean.

Geroztik ez zituan saltzeko ez iñude, ez Asuntxi, ez Errekalde ta ez Uitziko erria. Napar kóskortzat jotzen zuan bere burua ta iñoi Orea'ra era-

maten ba'zuten etxea Uitzin zuala. Emen lenengo eskola ikasi ta gero lanean asi zan. Eta bai ongi ikasi nekazaritza, artzantza ta basoko lantegi guziak.

1908 urtean Nafarroa'ko Xabier'en Jesuitak duten ikastetxean sartu zan. Doi-doi erderaz mintzatzen etorri zan mutikoa bostpasei urtean gizon egiñik. Jakituriz jantzi zan goi-maillako ikaskizunetara erosoa iritxirik. Xabier'etik Oña, Comillas eta Tudela'rta aldatu zuten, filosofia, teologia, ta ixturio sakonenak burutzera. Griego, latin eta erderazko literatura klasikoa errrotik ikasi zituan. Eta Comillas'en batik bat literatura irakasle bezela jardun zuan Jesuiten artetik atera bearrean gertatu zan artio.

1915 urte inguruan lenengo euskal bertsoak tajutzen asi zan. "Jesus'en Biotzaren Deya"-n Nikolas Ormaetxea, S. J., izenpean lenengo artikuluak irakurri ditezke (1917-1922).

Aldi artako R. I. E. V. aldizkarian erderaz "Acento Vasco" gramatika lana, "Unificación del Lenguaje Literario", eta abar. (1918-1919-1920.)

1919 urtean Euskaltzaindiak urgazle bezela artu zuen.

Durango'ko Euskalegunean (1921) itzaldi bi eman zituan: "Eusko Olerkitzaz" eta "Eusko Olerki neurritzaz".

Poesi sariketan lenengo aldiz premioa jaso zuan.

Lezo'ko Gurutzeari eskeñitako olerki ederra dala-ta Aita Otaño'k musika jarri zion.

1923'garren urtean komentuko bizitza ta Jesuiten jantzia uzten ditu ta munduan agertzen da "Orixé" izenordea.

Euskaltzandiaren buruzagi zan R. M. Azkue'k bereganatzen du ta EUSKERA'n lanean asten da. Itz eta euskal esaerak biltzen ia Euskalerri guzia ikertzen du. Orixé'ren izena geiena nabarmentzen da "Euzkadi" egunkarian naiz erderaz eta naiz euskeraz idazten asi zanean (1924-1934).

Kirikiño'ren ondoren euskal ataleko zuzendari jarri zanean, gramatika gaiz, eztabaida ta burrukan bazterrak dantzatu zituan. Baiña bai lan ederrak burutu ere. Ordukoak ditu "Tormes'ko Itsu-Mutilla" eta "Mireio"-ren euskerapenak, ta "Santa Kruz Apaiza".

Ezin entzungor egin poesirako zuan deiari ta 1930 urtean Erreenteriko I Eusko Olerti Egunera itz neurtu sakona bidali zuan, gero "Barne Muinetan" liburuxka mistiko ta jainkotiarrean agertuko zana.

1928 azaroan "Euskal Esnalea"-k eratutako itzaldietan mintzatu zan "Oraindañoko Euskal-Neurtitzak" gaiaz. Urte ontan Lizardi-rekin adiskide-tasuna egin zuan.

Eta elkartasun onen ondorengo, zorioneko bi liburu eder, euskal literaturan ederrenetakoak: "Biotz Begietan" Lizardi'tar Xabier'en eta "Euskaldunak" poema aundia Orixé'ren lanik nagusienak.

Geroztik eten gabe Orixé'ren lumatik galgi dira ugari idaz-lanik mardulenak bai itz neurtuz eta bai itz lauz. "Yakintza", "El Día", "Euskalerriaren Alde" ta beste aldizkari askotan Orixé'ren irakurgaiak noiznai agertzen ziran. Gerra ondoren "Urte Guziko Meza Bezperak", ajola aundikoa Errililio ta euskerari buruz, eta "Agustiñ Gurenaren Aitorkizunak".

"Euzko Gogoa"-n (1950-1959), Guatemala'n lenengo eta Bayona'n gero atera dan aldizkarian, olerki-sail bikaiña utzi digu, ta ortaz gaiñera euskeraz beiñere landu gabeko lan gaitz eta sakonenak. Auen artean: "Kito'n Arrebarekin" mistika ta espekulazio goitarrez. Estetika, Metafisika ta antzeko gaiez Orixe'k erakutsi digu gogoeta sakon eta euskeraren jabetasuna.

Ezin aaztu ditezke "Gernika" adizkarian (Bayona, 1947 - Buenos Aires, 1953) azaldu zituan idaz-lan bikaiñak euskeraz eta erderaz.

"Orixe" izen ordeaz gaiñera "Espuru" (1) ezizena erabilli zuan.

"Gizabidea" titulupean idatzi zituan artikulu egokienak etorri ta tankeraz.

Azken lanak "Karmel" ta "Olerti" aldizkarietan agertutakoak ditugu, eta Tolosa'n Lizardi'ren omenez eratutako jaian irakurri zuan itzaldia, eta saritu zioten olerkia.

Guatemala-tik etorri eta euskaltzain izendatua izan zan. Leitzan 1957 abenduaren 22-an egin zuan sarrera itzaldia EUSKERA-n irakurri diteke (1958 p. 29).

Argitaratu gabe gelditu zaizkion lanak:

"Dantza Nagusia", "Danza Prima". Euskeraz eta erderaz.

"Jainkoaren Billa". Mistika gaia. "Kito'n Arrebarekin" lanean erabilli zuan antzekoa, baiña elkar-izketarik gabe.

"Euskal Izkera". Bi zatitan. Oyarzabal M. apaiz jaunarekin batera egiña.

"Salmutegia".

"Lau Ebanjelioak". Euskera xume arruntean itzuliak.

Eta abar eta abar. Bere paperak aztertutakoan lan geiago agertuko dira noski. G. b.

Tolosa, 1961 urria

A. M. L.

NAZARIO OLEAGA (1884-1961)

Bilbon jaio zan 1884 uztailaren 28-an. Eta iri berean il 1961 abenduaren 5-ean.

Bere estudioak Deusto-ko Universidadean egin zituen. 1905 urtean Salamanca-ko Universidadean litzentziatu zan deretxoan. Arrezkero il arte lege-gizon bezela aritu da lanean Bilbon. Fama aundia zuen bere ofizioan.

Urte askotan, Bilboko lanak utzi gabe, Zeanuri-ko sekretario izan zan.

Bilboko Abogadu Kolegio Ilustrean ainbat urtean lendabiziko diputadu izan zan eta dekano-orde ere egin zuen.

Zaragoza-n egin zan "Congreso Nacional de Derecho civil"-aren ondoren "Comisión de juristas para el estudio y ordenación de las instituciones de Derecho foral de Vizcaya" izendatu zan 1948 urtean eta N. Oleaga ere egin

(1) Espuru Ortxa'n dagoen muño batén izena da eta Orixe'rentzat "Tabor" mendia bezela.

zuten sail ortakoa. Aipatu dan Zaragoza-ko biltzarrean ere parte artu zuen Bizkaiko ordezkarien artean.

Euskaltzaindiak 1919 urtean urgazle bezela artu zuen eta euskerazko lanetan ibilia da: Erizkizundirako gaiak biltzen, Azkue-ri iztegi lanetan laguntzen eta abar.

Gerra ondoren 1941 urtean Euskaltzaindia berriz piztu zanean euskaltzain izendatua izan zan eta sekretario. Il arte irauen du bere karguan.

1957 urteko EUSKERA-n ikusi diteke R. M. Azkue-ren gorazarrean Bilbon egin zuen itzaldia.

Bizkaiko Kultura Biltzarrean ere parte artzen zuen.

Liburu bat dauka argitaratua: "Zurtasun-Gogoa". Gregorio Mujica-k egiña da eta N. Oleaga-k euskeratu zuen besteren eskabidez.

Azken denborararte egin diran Bizkaiko bertsolarien txapelketetan eta bestelako biltzarretan parte artu du.

Biblioteka ugaria utzi du.

Euskaltzaindiari oso emana zan eta arek asko zor dio. G. b.

IGNAZIO LARRAMENDI (1874-1960)

Eneko Larramendi, Bera de Bidasoa-n sortua 1874 urteko maiatzaren 14-garren egunean, eta hiri horretan ila 1960-ko agorraren 10-ean.

Bere gurasoak bera bezala espartingileak izan ziren. Kontralto boz eder baten jabe zen. Madrilen egon zen Iruñeko Orfeonarekin Alfonso XIII-garren ezteietan kantatzeko eta karia hortara domiñu eder bat eman zioten. Euskal olerkari pollita zen eta liriko tankera osoko poema eta bertsu eztiautu dauz-kigu. Itxura eder bateko gizon prestua eta ona izan zen.

A. Irigaray

BERNARDO MARIA GARRO BASTERRECHEA (1891-1961)

Mundaka-n jaio zan 1891 agustuaren 22-an eta umetatik zekizkian euskera eta erdera. Bilbon il zan 1960 iraillaren 14-an.

Bilboko "Escuela de Comercio"-n karrera egin ondoren emezortzi urtekin Argentina-ra joan zan eta bertan igaro zituen zazpi urteak laguntasun aundia eman zioten euskerazko izkera geienak ikasteko, aingo euskaldunak, urteen buruan, euskera-nastu batean mintzatzen baitira (1).

(1) Ala aitortzen du berak Alia L. Villasante ri zuzendutako karto batean.

1917 urtean Mundaka-ra itzuli zan, eta arrezkero Bilbon eta Mundaka-n igaro zituan gaifierako urteak.

Gaztetatik asi zan etxean eta kalean ikasitako euskera obetzen alegiñetan eta oso zalea zan meza-liburu, bertsot berri, aldizkari eta bestelako irakurgai guztietara. Berak aitortzen duenez Añibarro-ren "Esku-liburua" izan zuen "irakurgai eta irakaslerik atsegíñena". Erriko euskaldunen esaera, ipuin eta erre-frauak ere gogoko zituen.

1927 inguruan Bustintza-k eratutako euskerazko palindromo sariketara eun bat palindromo bialdu zituen, eta ordukit aurrera Mundaka-n batutako albista, ipuin eta abar, astean astean, egunkarira bialtzen asi zan. Bere euskera lanak egunkarietan agertu izan dira beti: beren artean "Bertolda eta Bertoldin" —gero liburu baten batua—, "Bijar Doniane'rea" —liburu txiki batean gero argitaratua—, Jean Barbier-en ipuiñak Bizkaiko euskerara itzulita, eta ingle-setik artutako "Abere Ipuñak", "Abere Dontsuak" eta beste irakurgai batzuk, eta erderatik eta inglesetik eratutako "Euskal-Erriko Abere eta Piztiak". Azkenez Cardenal Gomá-ren "Los Evangelios Concordados" Bizkaiko euskerara itzuli zuen, Olabide-ren "Itun Berria" lagun zuela, eta oraindik argitaratu gabe dago.

Azken garaian euskerazko toki izenak estudiatzen aritu izan da eta EUSKERA aldizkari onetan argitaratu izan dira bere lanak.

JEAN ITHURRIAGUE (1896-1960)

Irulegi-n sortua zan 1896 urtarrillaren 30-ean. 1960 azaroaren 9-an il zan.

Gazterik sartu zan Belloc-en bere eskolak egitera. Gerra denboran bururu-tu zituen aingo eskolak eta soldadu joan artean illabete batzuetan irakasle artu zuten. Armak artzera deitu zuten eta gudukatzera bialdu. Zauritua gertatu zan eta gerrako kurutzea eman zioten.

Gerra bukatu eta Bordelen eta Parisen liburuai eman zitzaien eta "licencié" errez atera zuen eta irakasle izan zan Chalon-sur-Marne irian.

1925-ean "Diplôme d'Etudes Supérieures de Philosophie" artu zuen.

1932-an "docteur en philosophie". Autatu zuen gaia: "Jainkoa eta arima Platonen liburuetan".

Gero Morlaix-en egin zuen egonaldi bat eta Baionara izendatu zuten.

1940-ean gerrara joan zan berriz ere: "Chef de bataillon au 7e Tirailleurs Marocains".

1942-an kargu aundi bat eman zioten: "Inspecteur Départemental à la Jeunesse et aux Sports".

Geroago Parisen egon zan eta bertako Euskaldun biltzarretan etzan alper egoten eta Euskalzaleen buruzagia izan zan.

Berriz Baiona-ra itzuli zan eta 1955 urtean "Musée Basque"-ko buruzagi izendatu zuten.

Zenbait liburu argitaratu ditu: "Un peuple qui chante", "Meubles et ensembles basques", "Vues du Pays Basque". Artikuluak ere bai. Aren itzaldi batzuk dira: "Importance de la Tradition", "La sorcellerie au Labourd", "L'influence de l'Encyclopédie en Pays Basque", "Les Pastorales souletines", "Le basque et les Savants", eta abar. Aibat batasun eta alkartadetan parte artzen zuen. Bertsolarien juzgalari ere sartu zuten.

ELADIO ESPARZA AGUINAGA (1888-1961)

Nació en Lesaca el 18 de febrero de 1888, y desde principios de este siglo hasta algunos años antes de morir, el 23 de marzo de 1961, estuvo intensamente dedicado al periodismo. Sólo trabajo, por esta razón, se halla diseminado en los periódicos de nuestra región y principalmente en "Diario de Navarra", del que fue redactor-jefe desde 1929. Ya de antes había sido colaborador asiduo. Sus temas predilectos fueron siempre los problemas espirituales y económicos del país. También en temas de cultura destacó por su actividad, la que se refleja principalmente en el Boletín de la Institución Príncipe de Viana, de la Diputación Foral de Navarra, y de la que fue su director desde la fundación, en 1940. Son importantes sus trabajos sobre las antiguas ferrerías de Navarra y el fuero e historia del reino pirenaico. Obtuvo relevantes galardones dentro y fuera de Navarra. De sus obras son notables: sus novelas "Nere", "La Dama del Lebrel Blanco" y "La Novia", y su biografía sobre el gran santo navarro "Nuestro Francisco Javier". Honró la lengua de su estirpe y la Academia le hizo de los suyos. Y así, apaciblemente, murió una tarde en su casa de Lesaca, en la biblioteca, y rodeado de sus hijos y oreado por el aire viejo y entrañable del paisaje que tanto amó.

J. Aguerre

GREGORIO MAIDAGAN (1891-1961)

Arechavaleta-n jaio zan 1891 martxoaren 12-an. Bilbon il 1961 martxoaren 30-ean.

Gazteiz-eko Seminariora bere apez estudioak egitera joan baiño leen urte batzuetan Gipuzkoako Baliairrain-en egon zan apez batekin latiña ikasten. Ogetairu urtekin ordenatu zan Gazteiz-en eta Mondrandoen eman zuen lendabiziko meza.

Urte bete eskas egin zuen Araba-ko Faido-n apez, R. M. Azkue-ri Bilbora ekartzea bururatu baitzitzaion berarekin edukitzeko. Lendabizi Ave Maria Monjekin kapellau egon zan eta gero urte askotan Jesus-en Zerbitzariekin Jaundone Jakue katedralera bialdu zuten arte. II arte egon da azkenengo eliza onetan. R. M. Azkue-k bere sekretario bezela eduki zuen eta aren testamentu kontuak ere bere gain gelditu ziran. 1957 urteko EUSKERA-n ikusi diteke R. M. Azkue-ren gorazarrean egin zuen itzaldia.

AITA I. MANZISIDOR, S. J. (1907-1961)

Azkoitia'n jaio (1907-IV-8) eta Loyola'n il (1961-X-16). Ikasten Orduña'n asi zan (1918), Comillas'en jarraitu, emen Doctor in Philosophia irtenik (1927) eta jesuita-karrera Salamanca'n asi (1927) ta Marneffe'n (Belgique) bukatu (1938).

Langille porrokatua -izan zan bere eriotz uneraño, gaixoaldian ere lumari jaregiteke. Bere prediku, liburu, artikulu ta lan guztiak euskeraz eman zizkigun. Erlilio-gaia besterik ez du erabilli oietan denetan. Hagiographia baizik ez, esan diteke uts aundirik gabe.

Bizitzak: Garate, Jesukristo, Gure Patroi Aundia, Santu Bizitzak (irukoitza azkenengo au). Gai ortatik kanpo, Otoitz-Bidea aren liburu bakarra, eta emen ere hagiographiak baditu bere saillak. "Euskal-Erri fede-erri" zan aren jo-muga.

Egiteko ontan muga garbiak ipiñi zizkion bere buruari. "Nere elburua literatura ezdala (jakin zazu); deunen bizitza errex eta al dedan gozoena eta errikoiena azaltzea baizik. Ta ori onbiderako... bultzada irakurleak izan dezan".

Elburu onek agintzen dio beste gañerakoetan ere. "Errex-goxo-errikoi": iru mugarrick izkuntza ta idaz-tankera ta gaia bera mugatzen diote, uts aundirik egiteke. Erri-euskera buru-belarri zaitu zuan Mantxik, iñioizko edo iñungo rnodu edo modara bigundu gabe. Etxetik zuan euskera ugari eta pitxi bat. Izlari oso atsegilña zala jakiniñik, doai oiek bere idazkia erasten arduratsu ibili zan. Bere beingoko etorriari itzal aundia zion. Oso gutxi esku-pasatzen zuan bein orrela idatzitakoa. Ortik noski aren liburuak duten naturalidade, erri xumearen ain gustoko, ori.

Aren idazlanak. danera, irubat milla orri joko dute. Euskaltzain urgazlea zan (1958-V-29). Ongi, beraz, Euskaltzaindiak bere EUSKERA-n egiten dion aipu au. A. Iñixio Mari Manzisidor, G. B.

Iru-garate.

DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA 1960

Etzuen iñork lanik bialdu eta urte bete luzatu zan lanak aurkeztutzeko epea.

TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA 1961

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi mila pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagundua. Sariaren oiñariak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke teatro-lanak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta lanak norberak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Gutxienez ordu bete iraun bear izango du eta ekitaldi bi izan. Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera).
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi mila pezetakoa eta zatitu eziña.
- f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez lanak bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkarri batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1961-gko. uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSKAL-SARIKETEA AMAR URTETIK AMABOST URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT (1961-rako)

1.—Euskaltzaindiak sariaketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutillentzat. 1961-gko. maiatzean egingo da adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amabost urtera izan bear dira. Zimentarriak oneik dira:

2.—Sariak izango dira:

- a) Amabi urtetik amabost urtera dituezanentzat: 600 pesetako sari bat; bi 400 pesetako; 350 pesetako bat; iru 300 pesetako; bost 250 pesetako; sei 200 pesetako; eta sel 150 pesetako.

- b) Amar urtetik amabi urtera dituezanentzat: 500 pesetako bat; 400 pesetako bat; 350 pesetako bat; bi 300 pesetako; iru 250 pesetako; lau 200 pesetako; lau 150 pesetako. Sariez gaiñera diplomak be emongo jakiez, bai neska-mutillai eta bai gertetan dituezanai be.

3.—Sariketea esamiña bat euskeraz egíñik erabagiko da, eta gaik izango dira:

- a) Gitxienez kristiñau-dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.
- b) Gitxienez sei bertso-sorta desbardin gura ban bozean buruz kantetan jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta dagoen "**Euskal-kantak**" liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiñ beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña-egunean zeintzuk dakizan esan bear dau bakotxak esamiña-tailleak guztietatik bat aukeratu daien itanduteko.
- d) Esamiña-egunean bertan emongo dan "**Kresala**" novelatik zerbait irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Urte osoan al dan guztia irakurtea komeni da.
- e) Esamiña-egunean diktadu bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da urte osoan kristiñau-dotriñatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barriro kopietan ekitea oituteko.
- f) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxeen aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear dira albait-eta-onena izan daiten aukeratuten dana.
- g) Esamiña-egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbait idatzi daien. Gaia itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuertasuna neurtzeko.

4.—Esamiñatzaillek Euskaltzaindiak izentauko ditu egingo dan éguna edierazoten daveanean.

5.—Izenak 1961-gko. apirilaren 30-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxeen (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao). Izena, deitura bi, hizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

"LIZARDI" JOSE MARIA AGIRRE-REN GORAZARREZ EUSKALTZAINDIAK ANTOLATZEN DUEN POESIA-SARIKETA

Oiñarriak:

1.—Iru sari emango dira: 1) Bi mila pezetakoa. 2) Zazpireun eta berrogetaaamarrekoia. 3) Berreun eta berrogetaaamarrekoia.

2.—Bialtzan diran poesia-lanak nai dan bezelako luzeera ta gala izan dezakete eta bertsotan euskeraz egíñak izan bear dute.

3.—Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera 6, Bilbao) 1961 maiatzaren 15-a baiño leen, makiñaz idatzita. Lema batekin firmatu bear dira eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu.

4.—Poesia-sariketa erabakiko duen batzarrea Euskaltzaindiak izendatuko du.

EUSKAL-SARIKETAK MARKIÑAKO ETA ONDARROAKO NESKA-MUTILLENTZAT

1.—Euskaltzaindiak eta Markiñako Ayuntamentuak, alkartuta, sariketa bat iminten dabe Markiñako neska-mutillentzat. Zazpi urtetik amaiakara edo amabi urtetik amabostera izan bear dituez sariketarako izena emoten dabenak. Aurtengo abenduaren 8-a baiño leen egingo da egun orretan sariak partidu aalizateko.

2.—Markiñako Ayuntamentuak sari ederrak emongo deutsiez sariketara doazanai.

3.—Sariketea esamiña bat euskeraz egiñik erabagiko da, eta gaiak izango dira:

- a) Gitxinez kristiñau-dotriñako otoitzak jakin bear izango dira.
- b) Gitxinez sei bertso-sorta desbardin gura dan bozean buruz kantean jakin bear da. Euskaltzaindiak 1960 urtean argitaratuta da-goen "**Euskal-kantak**" liburutik ikasi leitekez gura direanak, baiña beste edozein liburu edo bertso paperetik ikastea bardin da. Esamiña-egunean zeintzuk dakilan esan bear dau bakotxak esamiña-tzaillek guztietatik bat aukeratu daien eta kantauerazo.
- c) Esamiña-egunean bertan emongo dan "**Ipuin-barreka**" liburutik zerbaite irakurri ostean irakurri danaren kontua emon bear izango da. Aal dan guztia irakurtea komeni da esamiña eguna eldu baiño leen.
- d) Esamiña-egunean diktau bat egingo da eta alegiñak egin bear izango dira erratu barik idazten. Orretarako egokia izango da, esamiña eguna eldu baiño leen, kristiñau-dotriñatik edo beste edozein liburu errazetik bein da barriro kopietan ekitea zuzen idazten oituteko.
- e) Gura dan ipuin bat idatzi bear izango da buruz. Bakotxak bere etxean aukeratu bear izango dau eta ikasi, eta alegiñak egin bear izango dira albait onena izan daiten aukeratuten dan ipuina.
- f) Esamiña-egunean gai bat emongo da aren gaiñean bakotxak zerbaite idatzi daian. Itaun batzuri erantzutea izango da bakotxaren zuurtasuna neurtzeko.

4.—Izenak 1961-gko. semendiaren 30-erarte artuko dira Markiñako Ayuntamentuan. Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

5.—1961 abenduaren 8-an partiduko dira sariak, eta aurrerengo gelditu direanak, publikoaren aurrean, dakien zerbait esan edo kantauko dabe.

Beste sarketa bardin bat imini dabe Euskaltzaindiak eta Ondarruako Ayuntamentua alkartuta. Ondarruako sariak 1961 abenduaren 24-an partiduko dira.

1962 DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIAREN OIÑARRIAK

Bizkaiko Ahorro Kaxak zortzi mila pezetako sari bat sortua du Euskaltzaindiari lagunduaz. Sariaren oiñarriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke novelak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste izkuntza batetik itzulia.
- d) Izkribuak makiñaz idatzita bialdu bear dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzirik, folio tamañuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.
- e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi mila pezetakoa eta zatitu egiña.
- f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaie batzarrekoei.
- g) Batzarrea Bizkaiko Ahorro Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lának bialtzeko epea bukatu ondoan. Batzarrean Bizkaiko Ahorro Kaxaren ordezkarri batek parte artuko du.
- h) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6, Bilbao) 1962-gko. uztailaren 20-a baiño leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.

EUSKAL-SARIKETEA AMAR URTETIK AMABOST URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT (1962-rako)

1961 urteko oiñarriak eurak izango dira. Izenak 1962 gko. apirillaren 30-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxearen. Irakurtea **Ipuin barreka** liburutik be egin leiteke.

POESIA SARIAK

Euskaltzaindiak erabakia du urtero Lizardi saria ematea olerkariantzat eta beste sari bat bertsolariantzat bertso paper argitaratuak bialtzen badituzte.

ORIXE-K IRABAZI DU "LIZARDI" JOSE MARIA AGIRRE-REN GORAZARREZ ANTOLATUTAKO POESIA-SARIKETA

1961 maiatzaren 26-an Antonio Maria Labayen eta Manuel Lecuona juraduko jaunak erabaki zuten. Eusebio Erkiaga jaunak etzuen parte artu juraduan lana bialdu zuelako sarietarria.

Orixek "Lau urtaraoak nere begietan" lanak irabazi zuen lenengo saria. Bere baserri-lirika txukunez, bere izkuntzaren eta itz-neurtuen erreztasunez, lanaren batasunez, eta nun-naitik darion pakezko izatez, itz batean, olerki guztiaren benetako lizarditasunez.

Bigarren saria Jose Maria Aranalde apezaren "Len eta Orain" lanak.

Eta irugarren saria Lukax Dorronsoro apezaren "Kaiolatik iges" lanak.

GABRIEL ARESTI-K IRABAZI DU 1961 TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Toribio Alzaga" teatro-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute:

"Mugaldeko herrian eginikako tobera" izeneko teatro-lanari "Toribio Alzaga" saria ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Gabriel Aresti dala ikusi da.

Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 iraillaren 22-an.
Luis Michelena, Antonio Arrue, Aita Villasante O.F.M."

Obra au sarietara bialdutako amaseiren artean aukeratua izan zan.

Gabriel Aresti Bilbon jaio zan 1933 urriaren 14-an eta bertan egin zituan bere estudioak. Indar eta nortasun aundiko idazle bezela ezagutzen da euskal-letretan eta euskal-poetarik onenetakoa bezela. Lendabiziko saria lortu zuen 1959 urtean "Loramendi"-ren gorazarrez Euskaltzaindiak egin zuen poesia sarietan. Bere poesiazko eta bestelako lanak EGAN-en eta EUSKERA-n irakurri ditezke. Euskaltzaindiko urgazlerik gazteena da.

Toribio Alzaga teatro-saria urte birik bein ematen da, eta 1963 urtean ematea tokatzen da berriro.

EUSEBIO ERQUIAGA-K IRABAZI DU 1961 URTEAN DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Domingo Agirre" novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute:

"Batetik bestera" izeneko novelari ematea "Domingo Agirre"saria. Begiratu da egillea nor dan eta Eusebio Erkiaga dala ikusi da.

Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 urriaren 14-an.
Nazario Oleaga, Juan San Martin, Jose Antonio Loidi."

Autore onek berak irabazi zuen 1958 Domingo Agirre novela-saria.
Domingo Agirre saria 1962 urtean ematea tokatzen da berriro.

NOVELA TA TEATRO SARIEN EMATEA

1961 urriaren 31-an, ahorro egunez, Bizkaiko Ahorro Kaxaren etxearen Eusebio Erquiaga-k novela-saria eta Gabriel Aresti-k teatro-saria eskuratu zituzten.

EUSKALTZAINDIKO URGAZLE BERRIAK

1960 urtean izendatuak:

Cirilo Arzubiaga - Zabalbide, 96, 1.^o - BILBAO.
Dr. Justo Garate - Peru, 678 - MENDOZA (Argentina).
Michel Labeguerie - CAMBO (B. P.) (France).
Javier Peña - Pérez Galdós, 6, 1.^o izqda. - BILBAO.

1961-ean izendatuak:

R. P. Marcelo Andrinua - PP. Pasionistas - EUBA (Vizcaya).
Fernando Artola - San Pedro, 28 - FUENTERRABIA (Guipúzcoa).
R. P. Salvador Barandiarán, S. J. - Colegio de San Francisco Javier - Apartado 1 - TUDELA (Navarra).
R. P. Imanol Berriatua - PP. Franciscanos - BERMEO (Vizcaya).
Joseph Camino - Aumônier de l'Enfance - 9, rue des Prerbendés - BAYONNE (B. P.) (France).
José Echeandía - Párroco de Santa Ana - DURANGO (Vizcaya).
Ignacio Eizmendi - Ntra. Sra. del Pilar, 10 - ZARAUZ (Guipúzcoa).
Andima Ibinagabeitia - Santa Bárbara a Tienda Honda - Edificio Torino, Apartamento 8 - CARACAS (Venezuela).
Mariano Iceta - ELIZONDO (Navarra).
R. P. Joseba Inchausti - Santuario de Aránzazu - OÑATE (Guipúzcoa).
R. P. Felipe de Murieta - PP. Capuchinos - Carlos III, 22 - PAMPLONA.
Dominique Peillen - 15, Boulevard St. Germain - PARIS V (France).
Francisco Tirapu - Plaza San José, 1 - PAMPLONA.
Thomas Uthurry - 9, rue des Prerbendés - BAYONNE (B. P.) (France).
Antonio Valverde - Zubietza, 38, 3.^o - SAN SEBASTIAN.
R. P. Antonio Zabala, S. J. - Colegio de San Ignacio de Loyola - Ategorrieta - Apartado 410 - SAN SEBASTIAN.
Agustín Zubicaray - Cruceño, 38, 3.^o - ONDARROA (Vizcaya).

EUSKERAZKO ERA BATZUK

Dakazan gramatika oar batzukatik B. M. Garro-k Aita L. Villasante-ri egin zion karta bat argitaratzen degu. Izan bedi lendabizikoaren gomutaz.

"Bernardo M.^a Garro. / Buenos Aires, 13. / Bilbao.

1957'gnko. zezeillak 1.

Aita Villasante Kortabitarte'ri. / Arantzazu'n.

Agur, Aita gurgarri orreria:

Ezerezkeri bat baño ez nayoatsu esaten, baña leenago mesede bat eskatu gura deutsut: "Arantzazu" aldizkariak ekarri ei dau or euskaltzaleak egin genduan batzarraren barri, eta emen erosteko aukerarik ez dodanez, bialduko al zeunskit iyekiren bat? Eskerrak aurretiaz. Eta Aita Donostia'ren liburu barian, nik or bazkal-ostean Gernika'ko erregelekaz esan nebana bayeztuta ikusten dodanez, ba-leiteke àlakoren baten, umorea dodanean eta gomuteak utsik egiten ez be'deust, gitxi-gora-beera paperean imintea, eta bialduko neuskitzu, gomutagarritzat baño ez pa'da bere. Ona emen, orain ezerezkeria:

"Ez-baiña" gipuzkeraz (?) - Bizkayeraz, "barik"

Arantzazu'ko Andra-Mariaren aurtengo egutegiko Urtarrilla 25'garrenari dagokion orrialde atzean "Munduan zear..." izenburutzat dauan irakurgaitxoan, auxe ikusten dot idatzita: "Papelezkoak ez-baiña, egurrezkoak dira, pergaminoz yosiak". Nik, beintzat, eta nik legez beste askok Bizkayan, esakuna ori onetara idatzi izango genduan: **Papelezkoak barik egurrezkoak dira, pergaminoz yosiak.**

"Ez-baiña" txarto dagoanik ez dot onegaz esan gura. Orixé'ren Meza-Liburuan txitean-pitean ikusten da esakuna ori; ain zuzen bere lengo igan-deko Irakurgaian, 130'gn. orrialdean, 9'gn lerroan: "Gaizpean ezi ez-baña, ezi gaitza on-azpian". Eta 131'gn. orrialdean, Eskeintzean: "...il ez-baña bizi egingo naiz".

Barriro diñot, ez deutsadala esakuna orreria, or, Gipuzkoan esanda, aka-tsik topa gura. Orixek ondo daki Gipuzkoako barri, eta ain sarri idazten dauan ezkero, orretara erabilli izango dabe aïde orretan, aurki. Baña, bizkaitarrori txoka egiten yaku, eta ba-deritxagu gure "barik" ordeazkoa baizen yator eta indartsu ez danik, geyenentsuetan, batez bere izenen edo adverbioen ostean. Atara ekanduta gagozelako-edo, bear bada. Guk, bizkaitarrok, "bearrean"-en ordez erabilten dogu, onetara:

a) **Ura-barik ardaua edan dau**, "ura edan bearrean ardaua edan dau"-en ordez. Eta oartu, "ura"-ri "a" artikuloa kendu ezkero beste esangura bat daukola: **Ur barik edan dau ardaua** (ha bebido el vino sin agua).

b) **Diruak barik zorrak ekarri dauz Ameriketatik**, "diruak ekarri bearrean zorrak ekarri dauz Ameriketatik"-en ordez.

c) **Niri barik eure aitari esaiok ori**, "niri esan bearrean e. a."

d) **Trenean barik zoaz autobusean**, "trenean yoan bearrean e. a."

Aditzak bi diranean bere erabilten da:

e) **Aza barik yan egin' dauz katuak kumak.**

f) **Irakatsi barik astotu egiten dituz umeak irakasle orrek,** baña onakoetan, "ez-baña"-ri jatorragoa deritxat. Orraitiño, nik neuk, aditzak bi diranean "bearrean" idatziko neuke beti, argiago dagoalako eta ulerterrezago. "Azi bearrean yan egin dauz...", eta "Irakatsi bearrean astotu..."-k bestela emoten dabe e) eta f) -ren aldean. Argitasuna bear da beti, **idazten dauanarentzako barik, irakurten dauanarentzat.** Ona orain beste esangura bereizidunak:

Batek ba-diño: **Paixan ei daki gizon orrek, oyez?** Erantzunak:

g) **Paixan barik, yosten daki ederto,** "Paixan (puntoa egiten) ez; yosten daki ederto".

h) **Paixan barik be, yosten daki ederto,** "Paixan ba-daki, bai baña yosten obeto, ederto".

i) **Paixan barik be, yosten be ederto daki,** "Paixan eta yosten, biyetara daki ederto".

Edo-ta: **Ameriketatik gizon etorribarria tximinoitan ei dabil.** Erantzunak:

2-g) **Tximinoitan barik, soloan egiten dau bear,** "Ez dabil tximinoitan; soloan egiten dau bear".

2-h) **Tximinoitan barik be, soloan egiten dau bear,** "Bai, ekiten deutso tximinoitan (a por jibiones); baña soloan egiten dau bear geyenetan".

2-i) **Tximinoitan barik be, soloan be egiten dau bear,** "Biyetara ekiten deutso, tximinoitan eta soloan".

Beste eratxu bat: Batek: **Egurretan zoaz basora, ala?** Erantzunak:

j) **Egurretan barik, beste zeregin askorik be ba-daukat basoan,** "Ez, ez noa egurretan"-edo, ez uste egurretan baño ez nientekeala basora yoan- "beste zeregin askorik... eta abar".

"Barik" ori beste era onetara erabilten dogun berbera ete da?:

k) **Eutsi guardasola, busti barik,** "...busti ez zaitezan"-en ordez.

l) **Kontuz, laprast egin barik!** "...laprast egin ez dagizun".

Eta arako bermeotarren erderakadea aterraldi baten bilbotar batzuk guardasolpean yoiazale ikustean: **Sin mojar, despúes!**

m) **Busti barik, gero!** esan gurariik, edo erderaz burlazar esango eukeena: "No os vayais a mojar".

Eta k), l), m) gogoan doguzala aztertu daigun orain Orixe-ren: "Gaizpean ezi ez-baña, ezi gaitza on-azpian".

Gerkerea eta latiña ez dakigunentzat illun samarra da, eta ondo bizkayeratuteko lorrik dituguz. Ain zuzen be, ara latiñez e. a.:

"Noli vinci a malo, sed vince in bono malum" (Latiñez).

"Ez ezi gaizpean; ezi, ordea, gaitza on-azpian" (Olabide).

"Be not overcome by evil, but overcome evil by good" (Ingelesez).

"No te dejes vencer del mal; mas vence el mal con el bien" (erd.).

Eta emen bizkayerazko "barik" imini ezkerro: **Gaizpean ezi barik, ezi gaitza on-azpian,** ba-deritxat: "Gaitzak (azpian) ezi ez zagizan, ezi zeuk gai-

tza on-azpian", edo "Para que no te dejes vencer del mal", esan gura izango leukeala, eta onakoetan, len esan dodana, nik neuik, "Gaizpean ezi bearrean", esango neuke bizkayeraz.

Eta onenbestegaz naikoa eta lar bere ba-da. Ezerezkeria da, bear bada, baña tamala artzean dot bizkayeraz idaztean, nora-ezdirala, gipuzkerako esa-kunak erabilteaz, jakin-ezagaitik, aurki.

Parkatu alamena emon ba'deutsut eta agindu Jainkoagan,

Gorro'tar B. M.rí."

ESTUDIOS DE BACHILLERATO REALIZADOS POR RESURRECCION M.^a DE AZKUE

D. Mario Grande Ramos, Catedrático y Director del Instituto Nacional de Enseñanza Media (Masculino) de Bilbao,

HACE CONSTAR:

Que en el Archivo del Centro se custodia el expediente académico número 34, Ag^a del Instituto Vizcaino, que transscrito literalmente dice así:

"Instituto Vizcaino. N.^o 34, Ag^a.

Expediente del alumno Ascue y Aberásturi. D. Resurrección, natural de Lequeitio, provincia de Vizcaya.

Cursos	Asignaturas	Exámenes	
		Ordinarios	Extraordinarios
1876-77 Escuela de Naútica. Lequeitio	Examen de Ingreso	Aprobado	
	Aritmética-Algebra	Sobresaliente	
	Geografía 1. ^o Curso	Sobresaliente	
	Dibujo Lineal	Aprobado	
1877-78 Id.	Geometría y Trigo-nometría	Notable	
	Geografía 2. ^o curso	Sobresaliente	
	Dibujo Geográfico	Aprobado	
1878-79 Bilbao	Latín y Castellano 1. ^o curso	No presentado	Notable
	Historia Universal	No presentado	Suspensio

(1) Bilbao	{	2.º Latín y Castellano	Sobresaliente	Aprobado
		Retórica y Poética	No presentado	
		Historia Universal	No presentado	
		Historia de España	Bueno	
(1) Bilbao	{	Retórica y Poética	Notable	Bueno
		Física y Química	Sobresaliente	
		Psicología Lógica, Etica	No presentado	
		Fisiología e Higiene	Bueno	
		Agricultura	Bueno	
		Historia Natural	Aprobado	

El día 23 de junio de 1881 fue aprobado en los ejercicios del Grado de Bachiller."

Bilbao, a 5 de diciembre de 1961.

EL DIRECTOR

M. Grande

BERTSOLARIEN TXAPELKETAK

1960 urtekoak.

Aurreko EUSKERA-n eman genduan Urkiola-n eta Lecunberri-n egindako txapelketen berri.

Bizkaikoak onela jarraitu zuten:

Uztailaren 17-an Mungia-n, Ireneo Ajuria Muxika-ko gaztea txapeldun.

Uztailaren 24-an Markiña-n, Juan Mugartegui txapeldun.

Agustuaren 14-an Zeanuri-n, Faustino Echevarria Dima-koa txapeldun.

Agustuaren 15-ean Ondarroa-n azken txapelketa nagusiaren aurrekoak. Ondarroa-n aurreko urtean Bilboko azken txapelketa nagusian jokatu zuten lauk parte artu zuten —Valentin Embeita eta Juan Azpillaga, lendabizikoa eta bigarrena kenduta— eta gaiñera aipatu diran errietan txapeldun gelditutakoak. Parte artu zutenetatik bik kanpoan gelditu bear zuten Bilboko azkenera joan gabe. Faustino Echevarria eta German Uriguen erori ziran. Egun aretan lendabiziko sari bat ere eman zan eta Juan Mugartegui-k jaso zuen.

(1) Figura al margen «Dº», es decir, repetido curso.

Bizkaiko bertsolarien irugarren azken txapelketa nagusia Bilboko zezen plazan egin zan iraillaren 11-an. Parte artu zuten zortzirak dira: Valentín Embeita Muxika-koa, 1959 urteko Bizkaiko txapelduna, Juan Azpillaga Berriatua-koa, 1959 urteko Bizkaiko bigarrena, Ireneo Ajuria Muxika-koa, Jose Alberdi Mañaria-koa, Juan Mugartegui Berriatua-koa, Juan Ormaeche Larrauri-koa. Basilio Pujana Zeanuri-ko semea, Deunoro Sarduy Muxika-koa, Ondarroa-n azkenerako geldituak. Zezen plazan Juan Mugartegui gelditu zan txapeldun eta Bizkaiko Diputazioaren kopa nagusia eta diruzko saria artu zituen. Bigarren Juan Azpillaga, Bizkaiko Ahorro Kaxaren kopa eta diruzko saria. Gaiñerakoak diruzko sariak. Jente asko egon zan entzuten. Euskaltzaindiak Bilboko Ayuntamentaurekin batera prestatu zuen zezen plazakoa.

Bizkaiko Ahorro Kaxaren amairu milla pezeta partitu ziran saritan Euskaltzaindiak antolatutako 1960 urteko sei txapelketetan. Gaiñera errietako Ayuntamentuen kopak eta erri batzuen diruzko sariak ere bai.

* * *

Nafarroan leen aipatutakoaz gaiñera beste txapelketa bi egin ziran. Bat Elizondo-n uzaillaren 25-ean. Eta Nafarroako azken txapelketa nagusia Lesaka-n iraillaren 25-ean.

Elizondo-n Juan Perurena Arizkun-en bizi dana gelditu zan txapeldun eta gaiñera beste iru Lesaka-n parte artuko zutenak.

Lesaka-n zortzi bertsolarik artu zuten parte eta Andres Narvarte Goizueta-koa gelditu zan txapeldun eta Juan Perurena Arizkun-en bizi dana bigarren. Lendabizikoak txapela, kopa eta bi milla pezeta jaso zituen, bigarrerenak milla pezeta eta gaiñerakoak bosteuna pezeta.

Nafarroako txapelketa auek Príncipe de Viana Alkartadearen Euskeraren Aldeko Saillak Euskaltzaindiaren laguntasunarekin antolatzen ditu.

Euskalerriko bertsolarien txapelketa.

1960 abenduaren 18-an Donostiako "Victoria Eugenia" Teatroan Euskaltzaindiak antolatuta "Centro de Atracción y Turismo"-ren laguntasunarekin Euskalerriko bertsolarien txapelketa nagusia egin zan. Parte artu zuten: Eiharren 1959 azaroaren 8-an Gipuzkoako bertsolarien txapelketan txapeldun eta bigarren gelditutako Uztapide ta Michelenak, Lesaka-n 1960 iraillaren 25-ean Nafarroako bertsolarien txapelketan txapeldun eta bigarren gelditutako Narvarte ta Perurena-k, Bilbon 1960 iraillaren 11-an Bizkaiko bertsolarien txapelketan txapeldun eta bigarren gelditutako Mugartegui eta Azpillaaga-k, eta mugaz goialdeko Xalbador eta Mattin-ek. Auetako onenak Basarri-kin jokatu bear zuen Euskalerriko txapela. Uztapide-k egin zuen eta Basarri-ki piñi zuen berriz ere. Ikus "Itxaropena"-k (Zarauz 1961) argitaratutako liburua txapelketa onetan kantatu ziran bertso eta gora beerakin.

1961 urtarrillaren 6-an Bilboko Capitol-ean aritu ziran.

1961 garagarrillaren 4-an zarautzarrak Basarri-ri gorazarre bat egin zioten errian.

1961 urtekoak.

Bizkaiko bertsolarien laugarren txapelketa oneña egin zan:

Urkiola-n garagarrillaren 13-an —San Antonio egunez— eta Francisco Mandiola Ermua-koa txapeldun.

Uztailaren 16-an Mungia-n Juan Lopategui Muxika-koa txapeldun.

Uztailaren 18-an Markiña-n Juan Ibarzabal Ondarroa-n bizi dana txapeldun.

Agustuaren 15-ean Igorre-n Jesus Urrutia Dima-koa txapeldun.

Agustuaren 21-ean, astelenez, Gernika-n egin zan azken txapelketa nagusiaaren aurrekoia. Amar bertsolarik parte artu zuten. Aurreko urtean Bilboko azkenean jokatu zutenak —lendabizikoa eta bigarrena kenduta— eta goian aipatu diran errietan txapeldun gelditutakoak. Lauk Bilboko azken txapelketa nagusira joan gabe gelditu bear zuten. Auek erori ziran: Juan Lopategui, Jesus Uriarte, Basilio Pujana, eta Francisco Mandiola. Lendabiziko sari bat ere izan zan eta Deunoro Sarduy-k irabazi zuen. Jendetza ikaragarria egon zan entzuten eta bertsolariak Ayuntamentuaren balkoitik kantatu zuten. Nazario Oleaga jauna ere (g. b.) an egon zan juradukoena artean.

Bizkaiko bertsolarien laugarren azken txapelketa nagusia Bilboko Coliseo Albia-n egin zan agustuaren 27-an. Juan Azpillaga gelditu zan txapeldun eta Deunoro Sarduy bigarren. Gero gelditu ziran Embeita ta Mugartegui nor noren aurretik zegoen aipatu gabe. Txapeldunak Bizkaiko Diputazioaren kopa eta iru milla pezeta Bizkaiko Ahorro Kaxak emanak artu zituen. Bigarrenak Bizkaiko Ahorro Kaxaren kopa eta bi milla pezeta. Bi sari milla ta bosteuneko eta gaiherakoak milla pezetakoak. Saio bikaiña egin zuten eta aurrerapide aundia egin dutela argi ta garbi ikusi zan. Txapelketa asi baiño leen 1961 garagarrillaren 15-ean esamíñatu ziran Bizkaiko neska mutillai sariak partitu zitzaitzien. Jaso zituzten aurren artean, amabi urtetik beerakoetan, Jon Embeita Valentin-en semea zegoen eta mikrofonotik bertsotan ekin zion publikoaren aurrean. Bilboko Ayuntamentuko txistulari bandak zenbait doña eder jo zituen.

Juraduan parte artu zuten: Jose Echeandia, Eusebio Erquiaga, Gabriel Aresti, P. Marcelo Andrinua, Sabino Berasaluce eta Alfonso Irigoyen jaunak, azkenengo onek txapelketa zuzendu zuen.

Bizkaiko Ahorro Kaxaren amairu milla pezeta partitu zituen Euskaltzaindiak saritan 1961 urteko sei txapelketetan. Gaiñera errietako Ayuntamentuen kopak eta erri batzuen diruzko sariak ere bai.

Nafarroan onela egin zan bigarren txapelketa:

Betelu-n apirillaren 23-an Martin Oreja Errazkin-goa txapeldun.

Irurita-n garagarrillaren 1-ean Miguel Arozamena Lesaka-koa txapeldun. Leitze-n iraillaren 24-an Andres Narvarte Goizueta-koa txapeldun.

Urriaaren 29-an Echarri Aranaz-ko frontoia jentez beterik zegoela Nafarroako bertsolarien bigarren azken txapelketa nagusia egin zan. Zortzi bertsolarik parte artu zuten, aurretik Betelu-n, Irurita-n eta Leitzan eginda zeuden txapelketetan azkenerako geldituak.

Txapeldun Bautista Madariaga Aranaz-koa gelditu zan, eta bigarren Andres Narvarte Goizueta-koa. Irugarren eta laugarren Martin Oreja Errazkin-goa eta Martin Azpiroz Areso-koa. Orietaz gaiñera parte artu zuten: Juan Perurena Arizkun-koak, Juan Arozamena Lesaka-koak, Manuel Iriarte Arribel-koak, Mikel Zubeldia Areso-koak eta Angel Aldaz Yaben-goa. Azkeneko auordezko joan zan eta txapelketatik kanpora kantatu zuen.

Juradua urrengoa jaun auek osatu zuten: Pedro Diez de Ulzurrun apezak, Jose Agerre-k, Antonio Arrue-k, Aingeru Irigaray-k, Aita Antonio Zabala Jesusen Konpaina-koak, eta Alfonso Irigoyen-ek. Azkenekoak txapelketa zuzendu zuen. Txapeldunak Echarri Aranaz-ko Robustiano Escala alkate jaunaren eskuetatik Ayuntamentuaren kopa eta txapela artu zituen eta gaiñera bi mila pezeta Euskeraren Aldeko Saillak emanak Pedro Diez de Ulzurrun mediku jaunaren eskuz. Bigarrenak mila ta bosteun pezeta, eta gaiñerakoak sari bikaiñak dirutan.

Madariaga-k eta Narvarte-k parejatuta egin zuten saioa oso ederra izan zan, eta batez ere aipatzekoak dira urrengoa gai auen gaiñean asmatu zituzten bertsoak: ezkontzeko mandatua egin bear zioten neskatxa bat, eta gerrak dakazan kalteak esan bear zituzten. Bitarteetan Peru Txiki umorista euskaldun bikaiñak parte artu zuen. Eta txapelketa bukatu zanean Jaun Antonio Arrue euskal-akademikoak itzaldi labur bat egin zuen. Lendabizi eskerrak eman zizkien Euskeraren Aldeko Sailla-ri, Nafarroako txapelketa au egin aalizateko laguntasuna eta erreztasuna eman zuten Ayuntamentu guztiai, eta nolabait parte artu eta lagundu duten beste guztiai, eta gero euskera gorde dezagun eskatu zuen.

* * *

Beste txapelketa batzuek ere egin ziran:

Deba-ko Ayuntamentuak bertsolari gazteentzat deitutakoa 1961 garagarrillaren 11-an. Cosme Lizaso Erreenteria-koa gelditu zan txapeldun eta Jesus Eguileor Alberdi Osintxu-koa bigarren.

Ondarroa-n agustuaren 15-ean bertako Ayuntamentuak jarrita "Ondarroa-ko Andra Mari lendabiziko txapelketa". Juan Ibarzabal Ondarroa-n bizi diana gelditu zan txapeldun. Domingo Garmendia Berrobi-koa bigarren. Amabost bersolarik parte artu zuten.

Elgoibarren Ongarri Kultura Alkartadeak antolatuta bertako bertsolarien arteko txapelketa bat egin zan 1961 abenduaren 30-ean. Sei bertsolarik parte artu zuten. Isidro Leyaristi gelditu zan txapeldun eta Tiburcio Zubizarreta bigarren. Jendetza oso aundiago egon zan entzuten.

Azkainen 1961 apirillaren 16-an bertsolarien egun eder bat prestatu zuen Eskualzeen Biltzarra Michel Labeguerie jauna buru zala, eta Euskalerriko onenak parte artu zuten.

Beste erri asko eta askotan bersolaririk ezta falta izan erriko jaietan edo bestelako aitzaki batekin deituta.

Bertsolarien jai bikaiña Donostian.

1962 urtarrillaren 6-an, Errege egunez, Donostiako Victoria Eugenia Teatroa puntatik puntara beterik zegoela, bertsolarien jai aundi bat egin zan, Euskaltzaindiak antolatua "Centro de Atracción y Turismo"-ren laguntasunarekin.

Goizean Gipuzkoako bertsolari gazte onenen txapelketa bat egin zan. Parte artu zutenak dira: Jose Luis Lecuona "Lexoti" Oyartzun-goa, Casiano Ibarguren Lizartza-koa, Domingo Garmendia Berrobil-koa, Jose Aguirre Azpeitia-koa, Cosme Lizaso Errenteria-koa, Jesus Basoarte "Zumai" Zumaya-koa, Jose Miguel Iztueta "Lazkao-txiki" Lazkao-koa, eta Vicente Mugica Ormaiztegui-koa. Txapeldun Jose Luis Lecuona "Lexoti" gelditu zan, eta bigarren Jose Aguirre. Bertsolari gazteenak —"Zumai" zan danetatik gazteena—. Zubiria arotzak emandako kopa bat artu zuen. Txapeldunak milla ta bosteun pezeta jaso zituen, bigarrenak milla, eta gaiñerakoak zazpiereun eta berrogetaamar.

Arratsaldean Basarri eta Xalbador, Uztapide eta Azpillaga-ren kontra aritu ziran eta sekulako saioa egin zuten. Juraduak parra egin zutela adierazi zuen eta bertsolari bakoitziari bi milla ta bosteun pezeta eman zitzazkion. Ikus "Auspoa liburutegia"-k argitaratutako "Errege eguneko bertso-sayoa (1962)".

"LIZARDI" JOSE MARIA AGIRRE ZANAREN GORAZARREZ TOLOSAN

Tolosa-ko "Lizardi" taldeak eratuta eta Euskaltzaindiaren eta Tolosa-ko Ayuntamentuaren ardurapean gorazarre bikain bat egin zitzaien Lizardi zanari Tolosa-n 1961 maiatzaren 28-an.

Goizean Ayuntamentuan bildu ziran euskaltzain eta erriko agintariak eta andik Santa Maria-ra joan ziran ospe aundiarekin meza entzutera. Meza ondoren Plaza Zarrean txistularien saioa entzun eta eguerdiko amabietan Iparraguirre Teatroan Euskaltzaindiak batzarre agiri bat egin zuen poesia sariak emateko. Nola Tolosa-ko Ayuntamentuak sariak aundiago egiteko milla pezeta eman zituen onela partitu ziran: 1) Orixe, 2.500 pezeta; 2) Jose Maria Ara-

nalde, 1.000 pezeta; 3) Lukax Dorronsoro, 500 pezeta. Jentez beteriz zegoen saloia. Eszenarioan Tolosa-ko alkate Enrique Ortiz de Zarate eta Euskaltzaindiko buruzagi Ignazio Maria Echaide jaunekin batera beste Euskaltzaindiko jaunak eta Ayuntamentukoak paratu ziran. Alfonso Irigoyen jaunak jura duaren erabakia irakurri zuen eta sariak eman ziran txalo beroen artean. Mirentxu Moraiz "Lizardi" taldeko anderañoak poema sarituaren lendabiziko partea eta Lizardi-ren azken poesia, sekula argitaratu gabea, esan zituen eta publikoak txalo ugari egin zuen. Gero Orixek itzaldi eder bat irakurri zuen gogora ekarririk Lizardi zanarekin zuen adiskidetasuna. Eta bukatzeko Antonio Arrue jaunak itzaldi bat egin zuen euskal-gauzen alde.

Eguerdian anaitasuneko bazkari bat egin zan euskaltzain, agintari eta Monseñor Olano Guamislako apezpiku kaputxinoak ere parte artzen zutela, eta etziran faltatu bertsoak ere.

Arratsaldean Zezen Plazan, puntatik puntara beterik zegoela, euskal-jaietako jaunak buru egiten zutela ikusleen artean. Iruñeako Dantzariak, Gazteiz-eko "Txirribil", Bilboko "Gaztedi", Miarritze "Oldarra", Donostia-ko "Oinkari", eta Donostia-ko Kantari eta Dantzari taldea izan ziran parte artu zutenak dantzetan. Basarri ta Uztapide-ren bertsoak ere entzun ziran.

Eta eguna Zumardi Txikian egindako erromeria batekin bukatu zan.

Aurreko egunetan ere, ospea emanik gorazarreari, zenbait gauza egin ziran: 22-an "Lizardi" taldeak Iparraguirre Teatroan "Ezkondu ezin ziteken multilla" teatro-obra eman zuen. 24-an Luis Michelena jaunak itzaldi bat egin zuen. Eta 27-an pelota partiduak jokatu ziran.

BIZKAIKO NESKA MUTILLEN EUSKAL-ESAMIÑAK

1961-VI-15-ean egin ziran, aurreko urtean bezela, euskal-esamiñak Bilbon, Jesuiten kolejioko gela batean. Ogetaemeretzi aur esamiñatu ziran Laukiniz, Iyorreta, Algorta, Muxika, Mungia, Arrankudiaga eta Bilbotik etorriak.

Sariak eta diplomak Bilboko Coliseo Albia-n 1961 agustuaren 27-an egin zan Bizkaiko bertsolarien laugarren azken txapelketa nagusiaren asieran partitu ziran.

Lendabiziko saria amabi urtetik gorako artean Maria Dolores Urrutia Laukiniz-koak irabazi zuen, eta gazteagoen artean Maria Teresa Zugaza-artaza Iyorreta-koak.

BAYONA-KO IRAKAS-SOLASAK

Bayona-ko Musée Basque-n itzaldi batzuek egin ziran euskal pedagogiaz 1961 agustuaren 31-an eta irailaren 1-ean. "Euskal Kulturaren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestatuta. Azkenengo egunean Euskaltzaindiak bere batzarrea egin zuen. Ona emen nola:

"Bayona-n 1961 iraillaren 1-ean.

Bildu dira: Ignacio Maria Echaide jauna, buru, Irigaray, Villasante, Arrue, Michelena, Lafitte, Dassance, Epperre, eta Krutwig jaun euskaltzaiñak. San Martin, Anai Berriochoa, Loidi, Zaitegui, Narbaits, Eyheramendy, eta Irigoyen jaun urgazleak, eta beste entzule asko. Aita Ignacio Larrañaga Pingliang-ko apezpikuak ezin etorria adierazo dau.

Aurrerago "Euskal Kulturaren Alde" eta "Ikas"-ekoak prestatuta egindako itzaldia jarraiturik Luis Michelena jaunak irakastearen gañean berba egin dau eta erderatiko euskal-itzak be ontzat artu bear doguzala izkuntza eskastu eta indarga itxi eztaigun gura badogu oñarritzat artu dau.

Ostean Aita Villasante-k egin dau itzaldia: "Euskal eskola nola ematen dedan". Eta berak aurkitu dituen ostopoak eta artu dauen bidea azaldu ditu.

Zaitegui jaunak aurkeztu ditu izlariak.

Eta beste barik amaitu da."

LAUGARREN EUSKALZALEEN BILTZARRA DONOSTIAN

1961 abenduaren 20 eta 21-ean Donostiako Ayuntamentu zaarrean Euskalzaleen Biltzarra egin zan. Urengo EUSKERA-n zabalago emango degu aren berri.

1961 iraillaren 14-an toki berean biltzar bat egin zan abenduan egindo zanaren prestakizun antzera.

ONDARROA-KO NESKA MUTILLEN EUSKAL-ESAMIÑAK

1961 abenduaren 10-ean egin ziran Ondarroa-ko neska mutillen euskal-esamiñak. Guztiz ogei neska mutil aurkeztu ziran eta Ayuntamentuko gela batean bildu ziran juradua osatzen zuten jaunekin batera.

Sari partitzea 1962 urtarrillaren 28-an egin zan "Bide Ona" zine-saloia beterik zegoela. Sariak emateko maipurua urrengo jaun auek osatu zuten: Juan Manuel Aguirre diputadu eta Ondarroa-ko alkatea, Andrés Quadra Salcedo diputadu eta Gueñes-ko alkatea, Justo Arrieta diputadu eta Markiña-ko alkatea, Pedro Altuna diputadu eta Elorrio-ko alkatea, eta Aita Luis Villasante eta Alfonso Irigoyen Euskaltzaindiokoak. Agustín Zubicaray etzan egon Italia-tik zalako.

Lendabizi Ondarroa-ko musika-bandak euskal-usaizko kontzertz bat eman zuen Victor Ureña maisua buru zala. Ondoren Alta Villasante-k itzaldi bat egin zuen. Onela:

Jaun-Andreak.

Ondarruko erri prestu ta leiala.

Ondarruko alkate jaun, abade agurgarri eta Udaletxeko jaun danak.

Euskaltzaindiaren izenean natorkizue gaur eskerrak emotera. Bai, eskerrik emotera, euskerearen alde jai eder au eratu dozuelako, zeuen umeak euskerakin zaletu gurariak zabizelako; eta orretarako, euskeraz irakurten eta idazten ikasi dagien, eskolak jarri dituzuelako. Asmo txalogarria benetan. Gaur emen umeen artean banatuko direan sariak gauza bat esan gura dabe: zuek, ondarrutarrok, ba-dakizuela aintzat artzen euskerea, gure erriko ondasunik bereziiena eta maītagarriena dan euskerea. Ejemplo ederra Ondarruko erriak gaur emoten dabena. Ondarruk gaur jarraibidea erakutsi deutsie Euskalerriko beste erri guztier.

Egia esango badot, ez genduan gitxiago itxaroten zuengandik. Euskal literatureari Domingo Agirre bezelako gizon ospetsua emon deutsan erria, zelan gelditu eitekean atzera euskera-gauzeta? Bai, ondarrutar bati, Domingo Agirre-ri, zor deutsaz euskereak egundo izkuntza onetan idatzi direan novelarik ederrenak. Eta Euskaltzaindia sortu zanean —Euskal-Akademia— akademiko izendatua izan zan Domingo Agirre. Kargu ori, iñok baean, ondo irabazi eban-da.

Ondarrutarrok, ez aaztu bada zuen erritar onek utzi eutsuen irakaspen ori: zaindu beti euskerea, irakatsi batez bere umeai, landare barri ta etorkizuna direan umeai. Goratu Domingo Agirre, zuen seme ospetsua, zergatik bere seme ospetsuak goratzen dakian erriak, eurakin batera bere burua bere goratzen dau.

Eta zergatik gorde eta maitatu bear dogu euskerea? Ba, jakin̄a, gurea dalako lenbizi. Bai, gurea dalako. Gure aurrekoak utzi euskuen ondasun bat dalako. Guri gure aurrekoak emon euskuén ondasun au, eztogulako eskubiderik gure ondorengoa ez emoteko. Gizonaren ondasunak eztira bakar-bakarrak dirua, lurruk, etxeak, barkuak, fabrikak edo lantegiak. Baliotsuenak eta estimagarrienak ere eztira orreek. Ba-dira beste ondasun batzuk, espirituzko ondasunak. Eta lengo gizaldietako euskaldunak, bearbada pobreak izango ziran diru-kontuan, oraingoak baiño pobreagoak; baiña beste ondasun orreitan aberatsak ziran gure aldean: egiazko kristautasunean, oitura garbi eta olakoetan. Eta ondasun espirituzko orreitan, euskerea ere sartu eta aitatu bearra dogu: bai, euskerea, gure izkuntza zaar eta berezi-berezi au! Zeiñen aberatsa, giartsua eta jatorra zan gure aurrekoen euskerea! Areik utzi euskuen ondasun au, bada, guk eztogu eskubiderik alperrik galtzen uzteko eta gizaldi berriai ez emoteko.

Oraindik urte asko eztala eskribitu eban ortaz bilbotar jakintsu batek, Azaola jaunak, Madrileko errebistarik famatuenetako batean, "Arbor" de ritxon errebistan. Eta an iñohan ondamendi ikaragarria eta galmen lotsagarria izango litzakela Euskalerriak bere izkuntza au galtzen utziko baleu. Eta au garbi dago, zergatik euskerea da euskaldunaren berezitasun agiri-agiria eta nabariena eta ezagunena.

Gure euskal lurak eta euskal parajeak euren poz eta zoragarritasun guztia, edo geiena beintzat, galduko leukete, egunen batean menditarte eta itxas-alde oneitatik euskereak iges egingo baleu, betiko isilduko balitz. Eta ezuste niri gogoak emoten deustalako esaten dodala au. Alde guztietatik, etxeekoak eta kanpokoak, ari jakuz auxe bera esaten. Zuek badakizute Frantzian ere ba-dirala euskaldunak, an ere bizi dala euskerea. Eta ain zuzen, gure gizaldiko umeak an ere euskerea aaztutzen asi dirala-ta, jarri dira lanean, euskerearen eriotza gertatu eztedin, eta umeak eskolan euskerea ikasteko bidea izan dagien. Errrebista txiki bat ateratzen asi dira, "Ikas" (ikasi) deritxona. Antxe irakurri lei nik oraintsu esan dodan au: euskerea itzegino eztan egunean, Euskalerriak bere berezitasun eta maitagarritasun guztia galdu izango dabela.

Naparrak ere bardin. An ere euskereak atzeraka bildurgarria egin dabela-ta, jarri dira zerbait egin naiean. "Institución Príncipe de Viana" deritxon alkartasunak, jarri dau sail barri bat euskerearen alde lan egiteko. Jaun orreik errirrik erri joaten dira umeen esamiñak egitera, euskeraz dakitenai sariak emonaz. Eta Naparroatik urteten dau "Umeen Deia" deritxon errebibista polit orrek, umeen euskerazko kartakin datorrena. Orri maitagarri orreik irakurtzean, pozik ikusi ditut bertan Ondarruko umeen kartak eta barriak.

Kanpotik ere didar berbera datorkigu. Linguista jakitunak, mundu guztiko izkuntzen barri dakitenak, samiñik eta naibagerik andienaz ikusten dabe euskaldunak euskerearentzat daukaten ajolakabea eta oztasuna, eta etengabe ari jakuz esaten euskereari, Jaungoikoaren amoriarren, eutsi deiogula, ez daigula galtzen utzi. lotsagarri izango litzakela, eta pekatu bat kulturaren kontra, eta gizateria guztiaren kontra bere bai. Jakitun oneitatik bat edo beste aitatzeagaitik, or dozue, estate baterako, Txekoslobakia-ko Norbert Tauer jauna, euskaltzale sutsua, euskeraz ikasi eta ederto idazten dakiena. Askotan artu izan ditut jaun onen kartak, eta beti euskeraz, eta guztiz ondo idatziak. Beste bat, Pierre Naert, Suezia-ko Universidade batean Irakasle dagoena. Jaun au orain diala urte batzuk Euskalerrira etorri zan Suezia-ko puntatik, euskerea zelangoa dan urragotik ezagutu eta jakitearren. Bere magnetofonoakin ibiltzen zan euskaldunen aotik zuzen-zuzenean euskerazko ipuñik, kantuak, bersoak eta olako gauzak artzen. Berak esan eustanez, emen, Ondarru onetan ere izan zan. Arritzekoa eta biotza ikutzekoa zan benetan jaun arek euskereagaitik eukan ardurea eta maitasuna ikustea, zelako pena artzen eban euskerearen galtzeaz, eta zelan saiatzen zan alde guztietan euskeraz itz egiten eta eragiten.

Len esan dogu euskerea gurea dalako maite izan bear dogula lenbizi, eta au ala da; baiña arrazoi ortaz kanpora ere, euskereak ba-du nimbait beste zer edo zer, beste baliorik, urruneko gizon jakitun orreik orrenbeste maite dabenean, eta beraren galtzeaz orrenbeste min artzen dabenean. Ezta oraingoa, gaiñera, ezta atzo goizekoa ere, jakitunak euskereari agertu deutsien maitasun eta itzal ori. Orain dala eun ta irurogei urte Alemania-tik etorri zan Guillermo Humboldt jakituna Euskalerrria ezagutzera, eta batez bere gure erriko izkuntza zaar onezaz zoraturik eta lilluraturik gelditu zan. Gero bere liburuekin ezagutzera emon zituan Europan euskaldunak eta euskerea. Zer ikusten eban ba

Humboldt-ek gure berbeta onetan? Antziña-aldiko ondakin bat dala, gure zoko ontan bizirik iraun daben eta eztakigu noiztik datorren izkuntza zaar bat dala, eta orregatik estimatzen eban berak euskerea. Injuruko berbetakin senidetasunik eta urkotasunik eztaben izkuntza dalako, berezi-berezia, erromatarra Espaňira latiñā ekarri baiño lenagotikoa. Eta Humboldt-en atzetik beste lingüista asko izan ziran eta dira, euskaltzale bezela agertu diranak. Adibidez, Van Eys holandesa eta Bonaparte Prinzipia, orain eun urte. Bonaparte-k bere, ibillera asko egin zituen gure Euskalerrrian, euskerea zearo eta sustrai-sustraitik ikasi ta menderatu eban, eta aspertu gabe ibilli zan euskaldunak zirikatzen euren berbetea landu dagien, euskerazko liburuak atara dagiezan, ta abar. Baita bere diruz makiña bat euskerazko liburu argitaratu bere egin eban. Eta ia gure egunetakoak dira Schuchardt alemana, Dodgson inglesa, Uhlenbeck holandesa, eta Espaňian Aita Fita eta Cejador, danak jakitun andiak, euskalari ta euskaltzale fiñak eta porrokatuak. Gaur eguneon bere or ditugu Espaňian Menéndez Pidal eta Továr, Frantzian René Lafon, Alemanian Karl Bouda, Berger ta abar, danak jakitunak eta euskaltzale bikaiñak. Zer ikusten ete dabe, diñot barriz bere, jaun oneik gure euskeran?

Antziña-antziñatiko izkuntza bat dala, izkuntza berezi-berezia, gizaldiz-gizaldi ta belaunik belaun eldu jakuna, kristautasuna bazter oneitan sartu baiño lenagoko gauzea, eta bere antziñatasun arrigarriagaitik aspaldiko jakin-garri asko argitzeko giltza egokia. Lingüistak diñonez, orain dala iru milla bat urte indo-europatarrak Europara eterri eta emen zabaldu zituezan euren izkuntzak. Izkuntza eterri-barri oneik nagusi gelditu ziran, eta emen lenagotik egozanak il edo galdu egin ziran. Baiña euskerea ezta indo-europatar familia orretakoa, lenagotikoa da emen, eta indo-europatarren izkuntzak European zabaldu ziranean, euskerek zoko onetan bizirik iraun al izan eban. Geroago eterri ziran erromatarra bere euren latiñakin: danok dakizute zelako Iurralde zabalak eukezan euren menpean. Seireun urte baiño geiago egon ziran erromatarra Espaňian agintzen. Denpora orretan Espaňian egozan berbeta-mota guztiak galdu ta aaztu egin ziran, eta latiñā gelditu zan izkuntza bakarra bezela. Baiña oker esan dot: danak etziran il, bat bakarra gelditu zan zutunik: euskerea. Zergatik edo zelan egin zan mirari ori? Nik eztakit. Gauza arrigarria da benetan. Latiñāk beste izkuntza guztiak il eta ito zituen bitartean, auxe bakarrik bizirik gelditzea. Bistan da euskerea eztatorrela latiñetik, eta bistan da orobat latiñetik urten dabela gaur Espaňian itzegiten diran beste izkera guztiak.

Orregaitik, esaten badeutsue iñoi euskerea eztala idiomea, dialektu bat baiño eztala, ori ukatu bildur barik eta jakintzaren izenean. Euskerea ezin lei izan dialektua, eztalako ez latiñaren, ez gaztelaniaren edo frantsesaren edo galleguaren edo katalanaren ume, bere-berezkoa baita, eztauka oneitatik bere jatorria eta oneek danak baiño leenagokoa da, gaiñera. Munduan izkuntzarik ba-da idioma izen orrekin deitzeko eskubidea dabenik, ori gure euskerea da, audarik gabe!

Eta euskerea gordetzeko, zer egin daikegu? Erabilli, berba egin, ori le-nengo. Izkuntzak ezpaiñetan erabiltzeko dira, ez kaxa zaarean gorderik euki-tzezo. Eta gero, irakatsi umeai. Bai, umeak dira biarko gizonak eta emakumeak. Etorkizuna eureka dabe. Eurak ezpadabe euskeraz ikasten, orduan akabo, gure gizaldi onekin ilko litzake millaka urtetan bizirik iraun daben gure izkuntza au, eta ori benetan lotsagarri litzake, eta gure errua eta gure pekatua litzake. Orregaitik, len esan dogun bezela, Naparroan badabiz erririk erri umeen euskerazko esamiñak egiten eta sariak banatzen eta gurasoei bultza egiten ertan zabarrak eta ajolakabeak izan ez daitezan. Donostian eta Bilbon eta Eibarren ere olako esamiñak egin izan dira. Eta orain Ondarruko erri jator onek ere ejenplo eder ori emon deusku. Eskerrak zuei, gurasoei eta umeai eta erriko agintari leialai, eta irakaskintza onetan zuen izerdiak bota dituzutenoi!

Eta gauza bat bego argi **Euskerea ezta politika**. Euskerea geurea da, euskaldun guztiona, eta gordetzeko eskubidea dogu. Ez eskubidea bakarrik, obligaziñoa bere bai, eginbide zorrotza, eta ori mundu guztiaren aurrean. Geurea dalako eta zaarra dalako eta ondasun estimagarria dalako eutsi bear deutsagu eta jarraitu. Zer esango genduke iñor asiko balitz bere etxeko ondasunak leiotik kalera botatzen? Zoroa dala, jakiña, burutik dagoela, iñusentea, leloa edo ergela dala. Ba pentsa egizue zer esango daben mundu guztiak gugaitik, geure-geurea dogun ondasun au etxetik botatzen ari gareala ikusten badau. Munduko erri guztiak euren izkuntzak eta dialektuak zaintzen eta lantzen ari diran bitartean, gu, euskaldunak, geurea jaurtitzen eta zokora baztertzen. Orrekin eztogu ez tantorik irabaziko iñoren aurrean eta bai barregarri gelditu danen aurrean!

Erderea bere ikasi bear dala, bizitzarako bearrekoa dalako? Bai. Baiña bata ikasteak eztau esan gura bestea aaztu edo baztertu bear dogunik.

Gure santuak bere euskaldunak izan ziran; euskeraz itzegin eben eta batzuk euskeraz idatzi bere bai. Or ditugu San Iñazio Loyolakoa eta San Frantzisko Xabier napar-euskalduna. Onek, bere eskutitz batean onela diño: "la mía lengua vizcaína". Eta badakizute garai artan "vizcaíno" itz ori, "vasco" adierazteko erabiltzen zala. Cervantes-ek bere, Quijote-an, azpeitiar bat "vizcaíno" deitzen deutso, eta Azpeitia eztago Bizkaian, Gipuzkoan baiño. Baita San Martin Asensiñokoa bere, Japoen martiri il zana, santu euskalduna dogu eta euskerazko eskutitzen idazle, gaiñera. Valentín Berriotxoa doatsua bere baita. Misiño-lurretatik bere amari bialtzen eutsazan euskerazko kartak eta bai berak egiñiko bertso barriak bere.

Eta onekin amaitzera noa. Arantzazu-ko errebiesteak, bere azkeneko zenbakian, ba-dakar Ondarruko esamiña onein barri, eta umeak esamiña orreitara ekarritako ipuin batzuk bere argitaratu ditu. Zuen pozgarritzat irakurriko deutsuet bertan diñoana: (Errebistatik irakurten dau "Aranzazu", Enero 1962, página 24).

Txalo bat oneeri, eta euskeraz ikasten alegintzen direan Ondarruko neska-mutil danairi.

Amaitu dot.

* * *

Gero Alfonso Irigoyen jaunak bana banaka dei egin zien esamiñetan parte artu zuten guztiai eta sariak eman ziran. Lendabiziko saria amabi urtetik gorakoen artean Garbiñe Echaburu-k irabazi zuen. Bizkaiko Diputazioko buruzagiak emandako luma eder bat artu zuen beste sari batzuen artean.

Gazteagoen artean Koldibika Echaburu-k irabazi zuen. Beste sari berezi batzuek ere eman ziran Ondarroa-ko eta gabonetako kantak ondoen kantatzen zituztenentzat, eta arlo bi orietan Javier Azpiri-k irabazi zituen lendabiziko graduak. Diputazioak eta Ondarroa-ko Ayuntamentuak eman zituzten sariak. Ondarrutar batzuen artean ere bildu zituzten dirua eta euskal-liburuak aur esamiñatuen artean emateko, beren borondatea erakutsirik. Aur guztiak jaso zuten bakoitzak bere saria. "Pan Pin"tebeoa ere danak artu zuten eta beste batzuen artean ere zabaldu zan. Markiña-ko Ayuntamentuak kopa bat eman zuen Ondarroako Ume Kantariantzat, Bilbon ain ondo kantatu zuten kantari txiki-entzat, eta aurrik gazteena joan zan kopa artzera txalo beroen artean.

Aur batzuek esamiña egunean egindako ipuïña irakurri zuten.

Sariak eman ondoren Quadra Salcedo jaunak itz egin zuen Bizkaiko Diputazioaren izenean. Esan zuen asko sentitzen zuela euskeraz ezin egin izatea aspaldian euskera galdu dan Bizkaiko partekoa dalako. Berari gertatu zaiona gertatu eztedin gurasoakandik seme alabakana izkuntza gauza bikain bat bezel gordetzeako eskatu zuen. Seme alabai gurasoakandik artutakoa emateko. Gaiñeratu zuen borondate firme bat dagoela euskal-izkuntza beti izan dana izan dedin lan egiteko.

Bukatzeko Ondarroako Ume Kantariak euskal-kanta batzuekin eztitu zituzten entzuleen belarriak.

BILBON PRESTATUTAKO JAIAK

Bilboko Capitol-ean 1961 urtarrillaren 6-an eta Arriaga Teatroan 29-an jai bi egin ziran Euskaltzaindiak antolatuta.

Lendabiziko egunean Donostian Euskalerriko txapelketan parte artu zuten bederatzi bertsolariak aritu ziran. Juan Perurena nafarra gexorik etxearen gelditu baitzan bere ordez Bautista Madariaga etorri zan. Capitol-a beterik eta jentea gustora.

Bertsolarien saioa asi aurretik 1960 garagarrillaren 2-an esamiñatu ziran Bizkaiko neska multillai sariak eta diplomak partitu zitzaitzien, eta Valentín Embeita bertsolariak ere kantatu zuen.

Bigarren egunean Ondarroako teatro-taldeak "Kresaletan" Agustín Zubizaray-ren obra eman zuen Gregorio Solabarrieta-ren musikarekin. Orkesta ta koruak musikaren autoreak berak zuzendu zituen. Txalo ugari irabazi zuten publiko gustora zegoenagandik.

BILBON PRESTATUTAKO JAIA

1962 urtarrillaren 7-an Euskaltzaindiak Bilboko Arriaga Teatroan urte-roko jaialdia antolatu zuen. Goizeko amaikak eta laureneta teatroa jentez beterik zegoela Ondarroako Ume Kantariak, Imanol Oruemazaga apez gaztea zuzendari zala, kantatu zuten lendabizi. Gero Mirentxu Moraiz anderañoak Lizardi-ren azken poesia esan zuen. Eta Tolosa-ko Lizardi teatro-taldeak Toribio Alzaga-n "Osaba", iru ekitalditako teatro-lana, eman zuen. Bukaera Ondarroako Ume Kantariak. Publikoa gustora.

FE DE ERRATAS

PAGINA	LINIA	DICE	DEBE DECIR
16	5	Huhuñenera	Huhuñenera
28	10	Zauzu	Zuazu
60	8	Sonistu	Sinistu
83	26	andijac ditubez	andijac eguin ditubez
86	35	diabruac	diabrubac
104	11	Guere / guenquez	Gueure / gueunquez
104	12	gueijago	gueijago
108	13	ala tormenturic	ala eta tormenturic
111	19	eguinian	guinian
117	19	(Esta línea debiera estar en quinto lugar en la misma página).	
119	4	eztoz	eztot
120	12	debocinoeco	devocinoeco
121	26	dongaroe	dongaro
122	31	Zubec emon	Verba emon
122	32	badeuztatu	badeutzatzu
222	3-4	Aincihuru	Anciburu
231	4	ECIN	EGIN
233	37	Orrelaxe jartzen du qui.	Orrelaxe jartzen du.
237	10	Yose (sic)	Yose (sic)
248	Nota (1)	primeras que siguen en mi manuscrito	primeras gramáticas que siguen en mi enumeración
253	Faltan las líneas 1. ^a y 2. ^a . Están en la página 248, líneas 33 y 34.		
256	8	certera	certara
263	12	(de)	(d)
305	33	botaarteco	bitaarteco
307	24	vicitza	vicitzia
312	30	ganec	ganez
319	1	ataretara	ataratera
322	33	Jaico	Jaioco
337	Nota (1)	«Ogeiatez	«Ogeiardez
348	26	1961	1960
359	2	Aza	Azi
359	32	yoiazale	yoiazela

AURKIBIDEA 1961

Luis Michelena-k Euskaltzaindian sartzean egin zuen itzaldia eta Aita Luis Villasante-k egin zion erantzuna. (Euskal - iztegigileak XVII-XIII ^{garren} mendeetan)	5
B. Fagoaga.—Algunas frases inéditas del euskera antiguo	27
Fr. Luis Villasante, O. F. M.—Despojo sistemático de la lengua de Axular. Caps. II y III	31
Fr. Pedro Aranguren, O. F. M.—Flexiones verbales de la obra “Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac” (Introducción de Fr. Luis Villasante, O. F. M., y realizado con la colaboración de Fr. Víctor Garamendi y otros estudiantes de Aránzazu).....	59
A. Irigaray.—Catecismo manuscrito en euskara alto navarro	161
Faustino de Zerio y Segura, Pbro.—Cartas de D. Resurrección María de Azkue a Mariano Mendigacha	181
José M ^o Satrústegui.—Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca	209
N. Alzola. — XIX - garren gizaldiko euskal izkribuak. Jose Paulo Ulibarri - koak 1823 - garren urtean Erro Ministruarti egin zion eskutitza, eta beste batzuk	231
Justo Gárate.—Juicios y glosario vasco- latino de Buenaventura Vulcanius.	239
Justo Gárate.—Pablo Astarloa. Extracto Humboldtiano de su Plan de Lenguas	247
Justo Gárate.—Notación filológica del Plan de Lenguas de Astarloa	277
Sermones manuscritos antiguos	303
Jon Joseba Pujana - 1	303
Jon Joseba Pujana - 2	312
Xabier Amuriza - 3	320
Xabier Amuriza - 4	322
Jesús Fco. Garitaonandía - 5	326
Orixe.—Lau urtaroko nere begietan	337

Berriak eta gai laburrak	345
Jean Elissalde (1883-1961).....	345
Nikolas Ormaetxea «Orixe» (1888-1961).....	345
Nazario Oleaga (1884-1961)	347
Ignazio Larramendi (1874-1960)	348
Bernardo María Garro Basterrechea (1891-1960)	348
Jean Ithurriague (1896-1960).....	349
Eladio Esparza Aguinaga (1888-1961)	350
Gregorio Maidagan (1891-1961)	350
Aita I. Manzisidor, S. J. (1907-1961)	351
Domingo Agirre novela-saria 1960	352
Toribio Alzaga teatro-saria 1961	352
Euskal-sariketa amar urtetik amabost urterako neska-mutil bizkaita- rrentzat (1961-rako)	352
«Lizardi» Jose María Aguirre-ren gorazarrez Euskaltzaindiak antolatzen duen poesia-sariketa	353
Euskal-sariketak Markinako eta Ondarroako neska-mutillentzat	354
1962 Domingo Agirre novela-sariaren oiñarriak	355
Euskal-sariketa amar urtetik amabost urterako neska-mutil bizkaita- rrentzat 1962-rako)	355
Poesia sariak	355
Orixe-k irabazi du «Lizardi» Jose María Aguirre-ren gorazarrez antola- tutako poesia-sariketa	356
Gabriel Aresti-k irabazi du 1961 Toribio Alzaga teatro-saria	356
Eusebio Erquiaga-k irabazi du 1961 urtean Domingo Agirre novela-saria	356
Novela ta teatro sarien ematea.....	357
Euskaltzaindiko urgazle berriak.....	357
Euskerazko era batzuk	358
Estudios de bachillerato realizados por Resurrección M.ª de Azkue	360
Bertsolarien txapelketak.....	361
«Lizardi» Jose María Aguirre zanaren gorazarrez Tolosan.....	365
Bizkaiko neska mutillen euskal-esamiñak.....	366
Bayona-ko irakas-solasak.....	366
Laugarren Euskalzaleen Biltzarra Donostian	367
Ondarroa-ko neska mutillen euskal-esamiñak	367
Bilbon prestatutako jaiak.....	372
Bilbon prestatutako jaija	373